



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

Sistema Penitentiarioaren Transparentzia: interes sozialaren beharra politika kriminalaren prozesuan

Kriminologiako Gradua

Gradu Amaierako Lana

Egilea:

Jon Gómez Garmendia

Zuzendariak:

Juan Aldaz Arregui eta Ana Isabel Pérez Machío


2016/2017 Ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

Sistema Penitentiarioaren Transparentzia: interes sozialaren beharra politika kriminalaren prozesuan

Kriminologiako Gradua

Gradu Amaierako Lana

Egilea:

Jon Gómez Garmendia

Zuzendariak:

Juan Aldaz Arregui eta Ana Isabel Pérez Machío

2016/2017 Ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
Bide honen helmuga	7
Bide honen izaera	9
Bidean zehar igaro beharreko geltokiak eta jarraitu den metodologia	10
I. ATALA. BARRASKILO SAREAK	13
Globalizazioa eta post-industrializazioa	13
<i>Paupecultura</i> : pobreziaren ekoizpena	14
1. BOTERE INTERESEN ALDARRIKAPENA	17
Botere paperak: botere banaketa zalantzan	18
Estatu Sozialetik estatu penalera	20
Boterearen eraginak: zigor-instituzioaren merkantilismoa	21
2. POLITIKA KRIMINALAREN JOERA	24
Izaera eta garrantzia	25
Influentzia ideologikoak: neoliberalismo errepresiboa	26
Zigor-instituzioak: politika aldaketak	28
3. ZIGORRAREN KUDEAKETA ETA JOERA HISTORIKOA	31
Zigor kontrolaren txip aldaketa	32
Botere eta politiken eraginak	33
Informazioa abiapuntu	36
II. ATALA. ZERO KOLOREGABEA	39
Transparentzia: harresi bat baino gehiago	39
Informazioaren kontrolaren linbo egoera	40
4. TRANSPARENTZIA POLITIKEN OINARRIAN ESPAINIAN	43
19/2013 Legea: “aurrerapauso garrantzitsua”	44
Ebaluazio printzipioak	45
Espainiako instituzio penitentziarioak	48

5. NAZIOARTE MAILAKO IRUDIA: PROPAGANDA?	52
Proiektzio globalaren noranzkoa	53
<i>El sistema penitenciario español</i>	54
Gardentasun azterketa	59
6. IRUDI OROKORRA: MANIPULAZIOA?	63
Barrura begira	64
2015eko Informe Orokorra	65
Gardentasun azterketa	69
7. EGUNEROKO IRUDIA: NAHIKOA DA?	73
Hiritarrok eskura duguna	74
Estatistika penitentziarioak	75
Gardentasun azterketa	77
III. ATALA. ARAZO OPTIKOA	79
Ikuspegi akatsa	79
Kriminologia sendagai moduan	80
8. ETORKIZUNA JOKOAN	83
Sareak merkeegi ateratzen dira	84
Zifrak kolore bakarra dauka: gorria	87
Merkatu berriak, zenbaki berriak	89
BIBLIOGRAFIA	93
INFORME EXEKUTIBOA	103
Ikerketaren testuingurua	103
Estruktura eta oinarria	103
Emaitzak	104
Eraginak	106
Gomendioak eta hobetu beharreko aspektuak	107

AURKEZPENA

“Gure ideia eta ezagutza guztien artean elkarrekiko erlazioa dago; geroz eta korapilatsuak izan, handiagoak izango dira hauetatik iritsi edo irten daitezkeen bideak.” (Beccaria, 1943, 23.or).

Bide honen helmuga

Zigorraren ikerketa arloan barneratzen den edonor argi ikusiko du azkar batean, zigorra ikerketa objektutzat duten ikerlanak oso konplexuak direla. Arazo honen erruduna, agian, gai hauek duten eremu zabala da. Horrexegatik norabide konkretu bat hartzea honelako testuinguruan hautu nahiko zaila izan daiteke ez bada hasiera-hasieratik helmuga bat zehazten.

Testu honen xedea kokatu nahian, ideologiaren eta jasotako informazioaren arteko harremani buruz hitz egitea da hartu beharreko lehen urratsa. Harreman hau ez du inork zalantzan jartzen, gure ideia propioak egunero eraikitzen ditugulako jasotzen ditugun mezuen arabera. Arazoa, informazio hori errealitatearen isla ez denean edo interpretazio nahiko ematen ez duenean suertatzen da. Informazioa eta errealitatearen arteko elkar eraginak dira ondorioz giltzarri.


Zigorrak historian zehar izan dituen aplikazioei eta helburuei buruz mintzo diren klasikoei so egiten badiegu¹, aipaturiko konplexutasuna argi nabaritzen da. Egon daitezkeen hutsune hauetatik, jorratuko den gaiarekin topatu gintezke: zigorraren kontrola dutenen eskutik jasotzen dugun informazioaren transparentzia maila.

Hipotesia edo helburu zehatza ondorioz, **sistema penitentiarioak publikaturiko informazio eta datuak -botere interesetan oinarriturik-, duten transparentzia maila zein den erakustea** izango da.

¹ Hauetatik testu ezagunenak, beste batzuen artean, hauek dira: BECCARIA, C. (1943). *Disertación sobre los delitos y las penas*. Madril: UC3M; FOUCAULT, M. (2009), *Vigilar y Castigar: nacimiento de la prisión*. Mexiko: Siglo XXI; MELOSSI, D., eta PAVARINI, M. (1980). *Cárcel y fábrica: los orígenes del sistema penitenciario (siglos XVI-XIX)*. Mexiko: Siglo XXI; RUSCHE, G., eta KIRCHHEIMER, O. (1984) *Pena y estructura social*. Kolonbia: Temis; VON LISZT, F. (1994). *La idea de fin en el derecho penal*. Mexiko: UNAM; CHRISTIE, N. (1993). *La industria del control del delito. ¿La nueva forma del holocausto?* Buenos Aires: Editores del Puerto; GARLAND, D. (1999), *Castigo y Sociedad Moderna*, Mexiko: Siglo XXI; WACQUANT, L. (2004). *Las cárceles de la miseria*. Buenos Aires: Manantial.

Beccariak emaniko esaldiaren ildoan, *interes sozialak politika kriminalaren prozesuan eragina duela* baieztatzen ahaleginguduko naiz. Modu berean, azalaraziz *zigor-instituzioaren transparentziak interes sozialean eragina ere baduela*, eta ondorioz, *gizartearen ideia eta ezagutzen arteko erlazioa* gidalerro izanik, espetxeak bezalako erakunde sozialek eman ditzakeen interpretazio eta informazioa gizartearentzako garrantzitsuak direla.

1. Grafikoa. Lan honetan jorratuko diren gaien testuingurua.




Iturria: Elaborazio propioa

Ikertuko dudun *transparentzia maila hori, baldintza handia bihurtzen da errealitatea ezagutzerako garaian* -1. grafikoa aztertu daitekeen moduan-. Ikerketa sakonago bat egiteko aukerarik ez dagoenez, transparentziaren harresiak zatitzen dituen zatietako bat aukeratu dut, ibilbidearen lehenengo pausoak alegia.

Lan honen helburu zehatzak hortaz honako hauek izango dira:

2. Grafikoa. Ikerlanaren oinarria.



Iturria: Elaborazio propioa

1. Botere interesen atzean zer dagoen erakustea.
2. Botere interesen eta politika kriminalaren arteko harremana erlazionatzea.
3. Sistema penitentiarioaren egoera aztertzea.
4. Transparentziak politika eta jurisdikzio penalean duen garrantzia aldarrikatzea.
5. Espainiako estatuaren joera informazio penitentiarioa ematerako orduan zein den erakustea.

Bide honen izaera

Ikerlan honen testuingurua berezia dela esan genezake. Zigorra bezalako eremu juridikoan bi pauso desberdin existitzen diren heinean “gizarteak zuzenbidearekin egiten dutena esaten dutenean” edo “gizarteak zuzenbidearekin benetan egiten dutena” (Witker, 1995, 4.or.), soziologia eta arlo juridikoa fusionatzen duten ikerketak garrantzitsuak izan behar dira, errealitatea erakustea beharrezkoa baita.

Gakoa hemen beraz, errealitatearen isla ematea bada, eremu-lana egitea behar-beharrezkoa da. Lévi-Strauss antropologo frantziarraren aipu bat gogoratu “bidaiari garaikidea gutxiago harritzen da eta gehiago ezagutzen du” (1988, 88.or.). Guk errealitatea gehiago ezagutzen badugu, arazo eta gertaera berriei erantzuteko erraminta egokiak emateko aukera izango dugu.

Baina, zigor-sistema bezalako arloan eremu-lana egiteko aukera existitzen da? Baietz esan genezake, baina hau gutxiren eskuetan dago. Sistema penitentiarioa, adibidez, oso selektiboa dela esan daiteke, bere interes propioen arabera aukerak ematen dituelako helburu konkretu bat duten ikerketak onartzeko². Helburu konkretu hori ez da izango espetxeen ahuleziak seinalatzea, hortaz gai horri zuzenduta dauden ikerketek etorkizun txikia izaten dute.

Testuinguru hau ikusiz, ezarritako helburuak eta hipotesia jatorri etiko eta politikoa daukatela baieztatu daiteke. Argi dago, bestetik, herrialde honetan honelako ikerketak egiterako orduan arauetan oinarrituriko dogmatika *-liburuetako zuzenbidea-* nagusitzen dela³, horregatik testuingurua *berezia* dela aipatzen dut lan honen metodologia eta teknikak soziologiak gehiago erabiltzen dituenak izango direlako, zuzenbideak jorratzen dituenak baino⁴.

² Erakunde penitentiarioen eskutik “opakotasun bat dagoela aldarrikatu daiteke ikertzailearentzako”, “espetxea selektiboa” delako, “arrazionaltasun burokratiko eta erakundeen helburuei begira jo egiten duena”. GONZALEZ SÁNCHEZ, I. (2012). La cárcel en España: mediciones y condiciones del encarcelamiento en el siglo XXI. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, (8), 352-353.orr.

³ KELSEN, H. (1995). *Teoría general del derecho y del Estado*. Mexiko: UNAM, 10.or. Jurista eta filosofo austriar honek, ikerketa enpirikoaren erabilera eskasari buruz hitz egiten du ere, aitortuz “*soziologia juridikoaren edo zuzenbidearen ikerketa ekonomikoak ez daudela*” (1995, 10.or.).

⁴ Hala ere, nahiz eta zuzenbidearen metodologia zehazki ez jorratu, honek ez du esan nahi zuzenbidearen ikerketa metodoek “*formalismo*” batean oinarrituta daudenik. Ikerketa sozio-juridikoak, ordea, aukera ematen digu “*positibismo*” horretan ez jausteko, ondorioz disziplina anitzetatik edozein lan lantzea behar-beharrezkoa dela esan daiteke. MATIAS CAMARGO, S.R. (2012). Tendencias y enfoques de la investigación en derecho. *Diálogos de Saberes*, (36), 14.or.

Kriminologia bezalako zientziak horrelako norabidea jarraitu behar du baita. Kriminalitatea ikerketaburu duen zientzia izanik, kriminologiak perspektiba anitzeko begirada eduki behar du, bereziki, Marchiorik esaten duen moduan “delitua dinamikoa delako, influentzia indibidualez, sozialez, ekonomiko eta kulturez gauzatua” (2004, 23.or). Gaur lan honetan adierazitakoa, urte batzuk geroago -etorkizun batean- ez dute baliorik izango errealitateari erreparatuz, horrelakoak dira kriminologoek ikerketa objektuak, hala ere susmoa daukat transparentziari buruz landurikoa baliagarria izan daitekeela edozeinentzako, aditua edo ez aditua izan.

Botereari buruz hitz egiten ari gara azken finean, informazioa isilarazteko aukera ematen duen boterea, alegia. Hortaz, botere-instituzioak lotsaraztea lortu beharra dago, prebentzioa egiterako orduan “erabakitzen dutenak eta soluzioak ematen dituztenen arteko dibortzioa”⁵ oso presente dagoelako gaur egun⁶.

Bidean zehar igaro beharreko geltokiak eta jarraitu den metodologia

Lehendabiziko atala, marko teorikoago batean oinarriturik, zigorraren eta politika kriminalaren joera botere interesen arabera dela erakustea du helburu. Horretarako, kontestu garaikide baten barnean, sistema penitentiarioaren gainean boteredunen edo honen eskumena dutenen interesa aztertuko da. Hauek politika kriminalean duten influentzia erakutsi ondoren, eta honi amaiera emanez globalizazioak zigorra kontrolatzeko mekanismoetan eragina izan dutela baieztatuz bukatu da atal hau.

Marko hau zehaztu ondoren, arlo enpirikoan murgilduz, herritarrok eskura ditugun datuen analisia egingo da. Bertan zigor-instituzioek argitaraturiko datu eta informazioaren transparentziaren inguruko analisia egingo da. Informazioa nahikoa da? Interpretazio baliagarria ematen dute? Gehiago egin daiteke? Hauek dira besteak beste argituko diren zalantzak.

Amaiera moduan, azkenengo atal batean, interpretazio kriminologiko bat eginik lanean zehar aurki daitezkeen hutsuneak eta zailtasunak aztertuko dira. Emaniko konklusioek etorkizun batetara proiektaturiko ikerketa sakonago bat bilatzea helburu izanik.

⁵ RODRIGUEZ MANZANERA, L. (1981). *Criminología*. Mexiko D.F.: Porrúa, 30.or.

⁶ Oso interesgarria da WEBERREK (1984) “*El político y el científico*” ikerlanean zientzialarien -soluzioak ematen dituzten teknikariak- eta politikarien -erabakia eskutan dutenak- arteko harremanari buruz egiten duen ikerketa kritikoa.

Marko teorikoaren barnean nahiko lan akademikoen presentzia dago, horregatik helburuak pausoka-pausoka egitea ez du arazorik suertatzen. Agian aspektu nabarmengarri moduan, testuen kutsu ideologikoa aldarrikatu daiteke, ia guztiek joera berdina erakusten dutelako: sistemaren kritika eta honen aurkako posizioa.

Metodologiaren ikuspuntutik, atal enpirikoan jorraturiko lanak zailtasun gehiago suposatzen dute, helburu nagusia gardentasun maila aztertzea edo ebaluatzea bada, dokumentu publikoen transparentzia ikertzen duten mekanismoak behar direlako. Hauek espainiar estatuan ordea, behar duten modukoak ez dira izan. Argi erakutsiko dudan moduan, herrialde honetako transparentzia politikek dokumentu publiko desberdinen aspektu guztietan ez dute eskurik hartzen.

Ondorioz, lan honetan egindako ikerketa enpirikoa analisi propio batean oinarriturik dago, sistema penitentziarioaren dokumentu desberdinen kalitatea eta balioa zein den aztertzen ahaleginduko dena. Egia esan, ikerketa bideragarria egiteko oztopo nagusia hau izan da eta badirudi administrazio publikoak hobetu beharreko puntu bat dela.

Ikerketa eremua espainiar estatuan kokatzean, herrialde honetako transparentziaren fenomenoaren berritasunak muga batzuk ezartzen ditu. Datuen eskuragarritasunetik zer atera daitekeen bakoitzak egin dezakeen interpretazioa da ondorioz.

I. ATALA: BARRASKILO SAREAK

Globalizazioa eta post-industrializazioa

Orain dela hainbat hamarkada industrializazioak bere neurrian kontrola sustatzen zuen heinean, **post-industrializazio** garai batean kokatzen gara gaur egun, non kontrolaren zailtasunak bere lekua hartu eta egoera nahasi egin duen.

Garai honetara heltzeko **globalizazioak izandako eragina** azpimarratu behar da, fenomeno honek izandako eraginak gure gizartean indartsuak izan direlako. Adibidez, industrializazio garaitik gaur eguneraino *mundu berriak* ezagutzeko aukera dugu, harremanak eta komunikazioa bultzatzeko aukera, eguneroko zereginari beldur barik aurre egiteko joera... Laburbilduz, ezezaguna zenarekin konektatzeko aukera.

Globalizazioari aurpegia jartzeko helburua hartzekotan, ohartu beharko ginatke fenomeno hau ez dagoela pertsona edo talde konkretu batzuen helburuen eta desioen esku, baizik eta, denei gertatzen zaigun egoera bezala interpretatu behar dela⁷. Hala ere, egoera honek dakartzan eraginetatik aprobeztatzen direnak badaude, Baumanek zionez “globalizazioak banandu egiten baitu batzen duen neurri berdinean” (2001, 8.or.).

Estatu-nazioaren gainbehera abiarazten lagundu izan du fenomeno honek⁸, beraz post-industrializazio garaian elkar-ulertzea zaila izatea ohikoa da gaur egun. Gil Villak aldarrikatzen dituen ideiekin bat eginik, globalizazioak klase banaketa arindu duen heinean, araua apurtzeko erraztasunak handitu ditu⁹.

Hala ere, gizartean gertaturiko eraginen artean ezaugarri bat nabarmendu beharko balitz, **arlo politiko-ekonomikoan** sorturiko aldaketak izango lirateke. Krisi egoerek oreka ekonomikoarekin apurtu egin zuten heinean, lan munduan izugarritzko aldaketak eragin dituzte, langabezia, prekariedade edo azpienplegu fenomenoak sortuz, gizartearen ezaugarri bihurtu direnak¹⁰.

⁷ BAUMAN, Z. (2001). *La globalización. Consecuencias Humanas*. Mexiko: FCE, 80.or.

⁸ NAVARRO, V. (1998). *Neoliberalismo y Estado del Bienestar*. Bartzelona: Ariel, 40.or. Estatua estatu sozial moduan eta Estatu-Nazio moduan krisialdian dagoela aldarrikatzen du López Capdevilak baita. LÓPEZ CAPDEVILA, J. (2015). *Derecho penal del enemigo. La sombra del autoritarismo en la Política Criminal contemporánea* (Grado Amaierako Lana). UAB, Bartzelona, 4.or.

⁹ GIL VILLA, F. (2004). *La delincuencia y su circunstancia*. Balentzia: Tiran lo Blanch, 14.or. Ideia hauekin batera arazo sozialak kudeatzeko zailtasunek egoera larriagotzen dutela aldarrikatzen du autoreak. Globalizazioak delitu berriak ekarri ditu, orain dela hamarka batzuk ulertezinak zirenak, hauei aurre egitea erronka bihurtzen da ondorioz.

¹⁰ CABRERA, P.J. (2005a). La realidad penitenciaria en el siglo XXI y perspectivas de futuro. *Corintios XIII: Revista de teología y pastoral de la caridad*, (114-115), 68.or.

Paupecultura: pobreziaren ekoizpena

Lanaren etikak gaur egungo gizarte helburuen paradigman lekurik ez duela esan daiteke, nahiz eta gizartearen baitan lan duinak dituztenek eta lanik ez dituztenen edo egoera kaskarrean dauden arteko desberdintasuna garrantzitsua izan. Hala ere “**ekonomia produkzio**” baten ildoan mugitzen gara¹¹.

Kontsumoaren etikara igaro gara non desioak eta nahiak asetzeko gaitasunak eta medioak dituztenek, besteen gainetik daude¹². **Kontsumo prozesuak** hortaz herritarrak desberdindu egiten ditu eta pobrezia egoeran daudenak azken-mailako pertsonaiak bihurtzen ditu.

3. Grafikoa. Paupecultura fenomenoaren sorrera.



Iturria: Elaborazio propioa

Mateo efektuaren¹³ eraginak irudikatu nahian, barraskiloen haztegiak paralelismo egokiak bihurtzen dira gutxien dutenen egoera ulertzeko, bereziki, hauek espetxeekin duten erlazioa ikusi nahi bada.

Arlo bioetikoan azken boladan sorturiko eztabaiden artean animalien ekoizpena dago, elepide hauek oso kritikoak izanen elikagaien eta gainontzeko baliabide naturaletan erabiltzen diren tekniken gainean. “*Helicicultura*”¹⁴ adibide bezala hartuz, ikusiriko globalizazio egoerak, teknologiaren garapenarekin, animalien gainean honelako joerak bultzatzea erraztu izan du. Modu berean, sektorean industriak eta enpresen presentzia bertan nagusitzea ekarriz,

¹¹ PETRELLA, R. (1997). Une machine interne. *Le Monde Diplomatique*, Paris, 17.or., ondorengo liburuan: BAUMAN, Z. (2000). *Trabajo y consumismo*. Bartzelona: Gedisa Argitaletxea, 50.or.

¹² BAUMAN, Z (2000). Op. Cit. 12.or.

¹³ Teoria honen arabera Merton soziologoak aldarrikatu egiten du “aberatsa geroz eta aberatsagoa egiten dela eta pobrea geroz eta pobregoa”. MERTON, R.K. (1968). The Matthew Effect in Science. *Science*, 159 (3810), 56-63.

¹⁴ Definizioa: Helburu komertzialak izanen, lur-barraskilo jangarrien ekoizpenaz arduratzen den haztegi mota.

Pobrezian bizi diren pertsonekin berdina gertatzen hari da, hauek barraskiloen papera hartzen dute eta espetxeetan dauden presoak bezala interpretatzen baditugu, gizarteak gogoko ez dituzten “*animaliak*” bihurtzen dira¹⁵.

Sistema penaleko agentziek, hortaz, haien boterea erabili egiten dute giza-sektore konkretu batetara zuzenduta¹⁶. Jimenez Francok hauen **tendentzia penalak** bi ondorioen gainean mugitzen direla dio: hauetako bat bizi- eta lan-prekarietate estrategien finantziatzeagatik, eta bestea; ekonomiatik gobernatzen den erregimen politikoak harturiko jokabideetatik (2016, 1.or.).

Aipaturiko barraskilo haztegia *paupecultura*¹⁷ bihurtzen da konklusioz, pobrezia-aren ildoan josi egiten den sarea. Espetxe erakundeetako Idazkaritza Nagusiak (DGIP) egoera hau baieztatu egiten du ondorengo esaldian:

Espetxeko populazioaren gehiengoaren profila konkretu bat aurkezten du, non ingurune deprimituetan bizi, hezkuntza maila eskasa izan, eta kualifikazio profesionalaren eta gaitasun sozialen falta aurkezten duten. Hauetako ehuneko nabarmen bat analfabeto funtzionalak dira ere, eta beste talde garrantzitsu batek ez du lehen mailako hezkuntzarik edo ez du hura bukatzeko aukerarik izan. Etorkin kopuru bat ere badago hizkuntzarekin arazoak dituztenak. Eta beste ezaugarri garrantzitsu bat droga-mendekotasunaren portzentaje altua da presoaren artean. (Barne Ministerioa, 2014, 20.or.)

Naturatik hartzen diren barraskiloak zeintzuk diren jakitea argi dago esaldi honek aipatzen dituen ezaugarriei begiratzen bazaie. Espetxeetako populazioaren profila ikusiz, legeen ondorioak hein handi batean profila konkretura zuzendurik daude.

¹⁵ Gizartean dagoen “arriskua”; espetxeetako “ghettoak”; “miserian” bizi diren “lotsagarriak” eta “txiroak”; “zakar soziala”; edota, “munduko alferrak” ezizenez deituak izan dira literatura akademikoaren alorrean. BAUMAN, Z. (2001). Op. Cit. 158.or.; BAUMAN, Z. (2009). *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*. Madril: Siglo XXI, 118.or.; WACQUANT, Z. (2001). *Parias Urbanos. Marginalidad en la ciudad a comienzos del milenio*. Buenos Aires: Manantial; COHEN, S. (1988). *Visiones de control social*. Barcelona: Editores PPU; CASTEL, R. (1997). “*La metamorfosis de la cuestión social*”. Buenos Aires: Paidós.

¹⁶ ZAFFARONNI, E.R. (1998). *En busca de las penas perdidas. Deslegitimación y dogmática jurídico-penal*. Buenos Aires: Ediar, 28.or. Autore honen usteetan tolesgabea da ustea sistema penaleko boterea pertsona konkretu bat atxilotzean, prozesatzean edo epaitzean erakusten dela. Lan honetan, kontrol-botere horren atzean egon daitezkeen fenomenoak ikertzen dira besteak beste.

¹⁷ Hitzez-hitzeko itzulpena, “txiroen haztea”, latinezko *pauperibus* (txiroak) eta *cultivare* (hazi) terminoetatik eratorria. Kasu honetan “hazi” aditzaren erabilerak, presoak animalia bezala irudikatzeke helburua dauka. Asmaturiko termino propioa.

Azkenean enpresaburuen eskutik barraskilo sareak salmentan jartzen dira, haztegietatik atera eta askotan hauen jatorriari buruzko benetako informaziorik eman gabe¹⁸. Gure errealitatean hau gertatzen da sistema penitentiarioarekin. Konstituzioak aldarrikatzen duena betetzen dela saldu nahian, barraskilo sareek eta edozein gauzek prezio merkeak dituztenean, beti izango dute *zerbait* susmagarria atzean. Izkutatzen den hori modu berean gizartearen ezagutzetara heltzeko oztopoz beteta egon daitekeena.

¹⁸ Zigor instituzioen gainean “beira-arasa publiko” baten beharra aldarrikatu behar da, honek interesa dutenei aukera ematen dietelako hura aztertzeke eta arazorik baldin balego konponbideak aurkitzeko. Hala ere, hurrengo orrialdeetan ikusiko den moduan transparentzia hori ematea ez dago boterean dauden interesen artean. UGALDE, L.C. (2002). *Rendición de Cuentas y Democracia en México*. Mexiko D.F.: Instituto Federal Electoral, 17.or.

1. BOTERE INTERESEN ALDARRIKAPENA

“Globalizazioaren kabaretean, Estatuak strip-tease bat burutzen du eta funtzioa bukatu ondoren gutxienekoa gelditzen zaio: errepresioaren boterea. Oinarri materiala suntsituta, bere independentzia eta burujabetza baliogabetua, klase politika ezabaturik, nazio mailako Estatu enpresa handien segurtasunaz arduratzen den zerbitzua bilakatzen da.” (Sous-Commandant Marcos, 1997, 4-5.orr.)

Post-industrializazioak ekarririko aldaketen artean, espazio politiko-penal berri baten panorama dago, lana eta kapitalari buruz aritzen den espazioa (Garreaud, 2009; 3). Nahiz eta gaur egun erakutsi kapitalismoaren esentzia arnastu daitekeela, sisteman egituratzen den prozesu honen ondorioak ezagutu beharko lirateke. Helburu hori lortzeko, boteredunak ezagutu behar dira lehendabizi, produktu honen egitura eta kontrola eskutan dutenak, alegia.

Arlo politiko-penal horretan justiziaren irudia gaur egun ez da eraikitzen esku baten balantza eta begiak estaliak zituen emakume horretan. Christiek aldarrikatzen zuen “isilezko iraultza bat gertatu dela legearen instituzioaren barnean”, “delituaren kontrola oinarritzat duen industria” indartu duen egoera (1993, 22.or.). Justizia hiritarren nahiak asetzen ez dituztela aldarrikatzen dutenak badaude ondorioz¹⁹, baita, Estatuaren indarra ahuldu dela esaten dutenak²⁰.

Hortaz, zein da benetako botereduna? Zer nolako harremanak ditu beste alorretan aritzen diren profesionalekin? Hauen arteko interesak elkarlotu daitezke? Zein da saltzen diguten produktuaren oinarria? Nora heltzen da erantzun hori? Boterearen paperak eta eraginak ezagutu behar dira.

¹⁹ Christiek bere buruari galdetu egiten zion “Justiziaren ikurrak zergatik ditu begiak estalita?”. Zalantza honi erantzuna emanez, aldarrikatu zuen hiritarrei gerturatzeko ezaugarria zela, objektibotasuna galdu ez zedin aplikatzen zena. Hasiera batean beraz, justizia demokraziarekin harremanetan jarri nahi zen, baina gaur egun ondo jakin daitekeen moduan “gizarte garaikideetan demokratikoki hautatua izatea ez da guztien errepresentaziotzat hartzen”. CHRISTIE, N. (1993). *La industria del control del delito. ¿La nueva forma de holocausto?*, Buenos Aires: Editores del Puerto. 149-150. orr.

²⁰ Ian Gough, adibidez, galdera batzuk planteatu egiten ditu *welfare state* edo ongizate estatuari buruz: “errepresio erakundea da edo behar sozialetan arduratzen den sistema? Kapitala biltzeko eta etekinak handitzeko laguntza edo lan eginez irabazten den soldata moduko soldata soziala defendatzen duena? Iruzur kapitalista bat da edo langile klasearen garaipena?” GOUGH, I. (1979). *The Political Economy of the Welfare State*. Londres: MacMillan, 11.or., ondorengo liburuan: BAUMAN, Z. (2000). Op. Cit. 74.or.

Botere paperak: botere banaketa zalantzan

Espainiar Konstituzioak argi aldarrikatzen du 1.1. artikuluan: “Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa”²¹. Hau honela izanik, **zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko** baten oinarrian, ezaugarri garrantzitsuenetako bat Montesquieuk aldarrikaturiko botere banaketa dago²².

Banaketa bat egitea beharrezkoa bihurtzen da “Estatuaren askatasun politikoa” lortu dadin. Horregatik Estatuaren adar bakoitzak bere funtzioa betetzeko ardura hartu beharra dauka, gainontzekoen funtzioetan esku hartu gabe (Vile, 2007, 14.or.). Non dago orduan, lan honen kontestuan, arazo nagusia? Erantzuna, funtzio hauek fusionatu egiten direla da, fusio bat zein boteredunen interesetarako oso aproposa den.

1.Taula. Estatuaren botere banaketaren egitura.

	Arduradunak	Aukeraketa	Funtzioa
Botere Legegilea	Gorteak: Diputatuen Kongresua eta Senatua	Lau urtero –printzipioz- sufragio unibertsalaz	Legeak sortaraztea eta onartzea dute xede.
Botere Betearazlea	Gobernua: Presidentea eta Ministroak	Kongresuak hautaturikoa lau urteko legislatura baten oinarrian. Ministroak presidenteak aukeratzen ditu.	Parlamentuan onarturiko legeak betearazteko ardura. / Barne eta nazioarteko politika kudeatzeko beharra.
Botere Judiziala	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: Epaileak eta Auzitegiak	Gorteek aukeratua. Kontseilu Nagusia epaileak izendatzen arduratzen da, baita auzitegiak kontrolatzen eta kudeatzen.	Legeen aplikazioa bermatzea eta kasu konkretuetan ordena soziala apurtu ez dadin, erantzun bat ematea.

Iturria: Elaborazio propioa.

²¹ EHU. (2006). *Constitución Española- Espainiako Konstituzioa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 43.or.

²² MONTESQUIEU, C.L (2007). *Del espíritu de las leyes*. Madril: Tecnos.

Estatuaren zereginen artean, **moralitate publikoaren kontrola** egon daitekeela esaten dutenak daude. Lamo de Espinosak, adibidez, Durkheimen ideiak harturik, Estatuak gizartea babestu behar duen heinean -bere botereaz argudiatu- morala babestu ahal daitekeela aldarrikatzen du, hiritarren artean kontsentsu morala ez apurtzeko (1989, 37.or.). *Askatasun politiko* hori zalantzan jarri daiteke ondorioz, **arbitrariotasuna** kasu askotan urratzen baita.

Urrapen hori legeen aplikazioetatik dator nagusiki, “segurtasun-gabeziaren sententzia gaur egungo gizartearen ezaugarri esanguratsuenetako bat izanik”, Estatuaren arduren artean ordena mantentzea dagoelako (Silva Sánchez, 2001, 32.or.).

Kontrol soziala edo ordena soziala Estatuaren eskutan dagoen heinean, botere judizialak bere zereginen artean gizartearen beharrei erantzutea du helburu **legeen aplikazioen** bidez. Beste modu batean esanda, botere judizialak justizia penalaren egikaritzea izanik, kontrol sozialaren aurka doazen pertsonen aurre egiteko estrategiak diseinatzea du xede (Daroqui, 2002). Horregatik hiritarrok “sistema penalak saldu nahi diguten segurtasuna erosten dugu” ez baitugu Estatutik ezer okerrik espero²³.

Esan daiteke, hala ere, zigor zuzenbidearen testuinguru horretan, sistema penala “produktu politiko bat dela” (Silva Sanchez, 2001, 87.or.). Botere judizialak “mantentze sozial” horren kudeaketan esfortzu handien beharra izanik, hori ezin dezake bakarrik lortu, ondorioz Estatuak dituen errekurtsoak bakarrik bihurtzen dira bidea, **aparatu burokratiko hierarkiko** baten itxuraz, hori batzeko, biltzeko eta zabaltzeko aukera eman (Bauman, 2001, 13.or.). Konklusioz, arlo juridikoa eta arlo politikoaren interesak elkartzean, esan genezake beti egongo dela galtzaile berdina: botere judiziala.

Aldaketa eta arazoaren egoera horretan, ezjakintasunaren poderioz, bide errazena harturik, estatuaren botere guztiak batzea ekarrarazi egiten du honek. “Ongizate estatuaren krisiaz” hitz egin daiteke, botere judiziala eta justizia orokorrean “aitzakia politikoak izanen, boteredunen interesen arabera diseinatu egiten direnak” (Graeber, 2012, 258.or.)²⁴.

²³ ZAFFARONI, E.R. (1998). Op. Cit. 31.or.

²⁴ “Europar post-industrializazioa gizartea Ongizate Estatuaren krisia erakusten duen gizartea da, lehian dagoen gizartea langabezia eta marjinalitate poltsekin -bereziki gazteena-, migrazio boluntario edo behartuekin eta kulturen arteko talkarekin. Gizarte bat, arazo nagusia barne oinarrian duena.”. SILVA SÁNCHEZ, J.M. (2001). *La expansión del derecho penal. Aspectos de la política criminal en las sociedades postindustriales*. Madril: Civitas, 30 or.

Estatu sozialetik estatu penalera

Ongizate estatuak aldarrikatzen zituen **balore sozialak mendekuaren eta errepresioaren joeretara** mugitu direla aurkeztean, sistema penalean zigorraren aplikazioak mugak galdu dituela aldarrikatu nahi da. Honek segurtasun botereen errepresioa, berme prozesalen galtzea eta espetxeen demanda handituz (Daroqui, 2002, 201.or.).

Estatu sozialaren -aitzinako sistema fordistan ideia keynestarrak kontuan hartuz-, ideia nagusia “mugagabeko hazkundean, aberastasunaren distribuzioarekin eta ekitate sozial handiago baten konbinatzean” oinarritzen zen. Hala ere 70. hamarkadan transformazio politiko-ekonomikoen krisira eramane zuten ideologia edo pentsamendu hau (De Giorgi, 2000, 11.or.).

Ondorioa Estatu penalaren egituraketa da, integrazioaren bidea edo bazterketarena aukeratzean zeuden dilemak konpondu egin dituenak. **“Bazterketa sozialen eta kontrol penalen korrelazioa”** emaitza izanen, babes sozialaren bidea baztertuz, egoera larrietan dauden pertsonak zapalduz (Gallego Diaz, 2010, 57.or.)²⁵.

Arazoa badirudi orain ez dela pobrezia kudeaketa, baizik eta, bazterketarekin nola bizi²⁶. Estatu sozialetik Estatu penalera igaro gara (Wacquant, 2004, 96.or.), Baumanen iritziak hartuz «[...] “garai likidoko” operadore politikoak eta bozeramaile kulturelek justizia sozialaren modeloa baztertu dute [...] “giza eskubideen” arau/estandar/neurri bategatik ordezkatur...» (2009, 69.or). Estandar hori onartzea gaurko joera da, erakutsiz minimo batzuk betetzen direnean gainontzekoa garrantzirik ez duela.

Zigor-instituzioak baliabide bihurtzen dira baita, kasu honetan estatuaren aurrean ez garela berdinak erakutsiz, ondorioz Arendtek dion bezala Nazio-Estatuaren berdintasun printzipioaren apurtzea sortzen da²⁷.

²⁵ Horregatik ordena eta segurtasunaren helburuetatik at igaro beharra dago, azken finean gobernuaren izaera berean, zuzenbidezko estatu baten oinarrian portaerak onargarriak ez direlako. JIMENEZ FRANCO, D. (2013). *La burbuja penal. Mercado, Estado y Cárcel en la democracia española. Un análisis estructural no-estructuralista de la inflación punitiva en el estado español* (Doktoretza tesia). Zaragozako Unibertsitatea, Zaragoza, 35.or.

²⁶ “Integrazio politikak diseinatzen diren etorkizun bat ikustea ez da posible, sobratzen direnak biltzeko eta baztertzeko gobernu estrategiak ohikoagoak izango direla dirudi” CASTEL, R. (1997). Op. Cit.

²⁷ ARENDT, H. (1998). *Los orígenes del totalitarismo*. Madril: Taurus, 242.or. Adituak hausnarketa honi gehitu egiten dio, kontraesan egoera baten emaitza Estatu-Nazio egituraren baitan. Legeak berdintasuna errespetatzen ez duten heinean, eskubideak eta askatasun indibidualak zalantzan jartzen direlako.

Boterearen eraginak: zigor-instituzioaren merkantilismoa

Estatuaren botere desberdinen funtzioak *disolbatuak* daudela adieraztean, ezin diezaiokegu uko egin ideologiaren fenomenoak izan duen garrantziari. Garraudek adibidez *iraultza liberalaren* terminoa ematen du, gobernuaren praktiken barnean zigor-instituzioak izandako mutazioak eta honek azken boladan hartu duen sekulako garrantzia adierazteko (2009, 3.or.). **Liberalismo** honen oinarrian, espetxe edo kartzelek gobernu formekin harremana dutela bermatu daiteke beraz. Zigor-instituzioak. “gainegitura ideologiko baten oinarriak eraikitzen dira, kezko hesien beste aldean injustiziaz eta miseriaz osaturiko errealitatean” (Miro, 2002, 295.or.)²⁸.

Zigor-instituzioen markoan azterketa egitean *panoptikoren kultura*²⁹ ezin daiteke alde batera utzi, ikurra jarraitzen baitu izaten modernizazio garaian dugun botere eta kontrol mekanismoetan. **Zelatatzearen ideietan** murgilduz, Mark Posterrek panoptikoaren ideia gaur egungo globalizazio egoerara eguneratu du, datu elektronikoen adibideari ezarriz, honen aburuz “gure gorputzak sareekin konektatuak” daude, “datu baseekin, autopista informatikoak eraikiz” (1995, 291.or.). Oraingoan zelatatuak ez izatea oso helburu zaila da, hori bai, datu baseetan metaturik dagoen informazio pertsonala geroz eta handiagoa bada, askatasuna handiagoa izango da³⁰. Laburbilduz, oraingoan gutxiengo batek gehiengoa zelatatzen du eta ez panoptikoaren hasieran bezala kontrakoa gertatzen zena (Mathiesen, 1997, 212-234.orr.).

Hala ere, aurretik adierazi den moduan, zigor-instituzioak beti egon izan dira krisi egoeran. Agian, korrelazioa egin daiteke kontrol sozialean sorturiko arazo eta zailtasunen eta instituzio hauen *merkantilismoaren* artean. Espetxeak merkatuaren egoeraren

²⁸ Ondorioz, estatuarekin erlazionaturik, zigor-instituzioek harremana estua dute egoera horrekin. Situazio horretan sorturiko aldaketak “lan-kontsumoarekin harremana” dutelako, eta “gizabanakoek eta haien familien egoera aldaketa sozioekonomiko haien oinarria delako”. JIMENEZ FRANCO, D. (2013). Op. Cit. 143.or.

²⁹ Bentham anaiek garaturiko modelo hau RAE-ren arabera: “*Eraikina: bere barneko egitura puntu batetik ikusteko egina dagoena*” RAE. (2017ko urtarrilaren 1ean). Real Academia Española. Honen atzetik, espetxe berri bat sortzearen ideia zegoen, beste eremu batzuetara aplikatzeko ideiarekin helburuak betetzen baziren. “Diziplina sozialaren instrumentua da, zelatatzearen eta kontrolaren bitartez gizartearen zati handi bati aplikatzeko helburuarekin sortua [...] Honek aditzera ematen du errepresio sistema funtzionatzen bazuen espetxeratueta, askatasunean bizi zen gizartearen aplikatzeko aukera ematen zuela.” LOZANO JIMENEZ, J.L. (2013). La influencia del Panóptico de Jeremy Bentham en el Proyecto *Tracking Transcience* de Hasan Elahi. *AUSART Journal for research*, 1(1), 203.or.

Baumanek egiten duen interpretazioaren arabera, panoptiko egoera honek gizakiak zelatatuak eta errutina apurtuz zigortuak izan daitezkeen leku batera gerturatzen ditu, modu berean, zelatarien lana ere lotuz eta leku konkretu batera eramanez. BAUMAN, Z. (2009), Op. Cit. 26.or.

³⁰ BAUMAN, Z. (2001). Op. Cit. 69.or.

araberako joera dutela erakutsi baitute, eta adibidez, herrialde anglosaxoietan ematen hari den pribatizazio mugimenduak honen adierazle dira³¹.

Merkataratze honen aldarrikapenak egiten dituztenek adierazi egiten dute “**ethos enpresarial**”³² baten testuinguruan, hiritar gehienek nagusitasuna bilatzen dituzten botere interesak badaudela (Castaño Tierno, 2014, 214.or.). López Petitek dio:

Egtate bat da finantza merkatuek garapen propiozko dinamikak kudeatzera iritsi direla, puntu bateraino non “merkatuek” gobernu politika konkretu baten alde edo kontra bozkatu dezakete. Estatuek haien erregulazio boterea galduko zuten ondorioz, hiritarrek gobernuak ezartzeko eta aldatzeko aukera galdu duten heinean. “Hautesleri ekonomiko global” batek irabaziko zuen ondorioz... (2009, 79.or.)

Egoera honen irudikapenean, zigor-instituzioek diagrama post-panoptikoan ezartzea ekarri dute. **Diziplina** eta etengabeko kontrola ez dira bilatzen, “**bizitzaren mobilizazioa eta harrapatzea**” da gaur egun helburu nagusia (Garreaud, 2009, 5.or.). Eta hori lortzeko moralitate sozialean gertatzen dena ezinbestekoa da, erabaki politikoak badirudi gizartearen sentsibilitateen arabera dela (Garland, 1999, 250.or.). Baina azkenean, benetan hiritarrek nahi duten arabera da ematen den erantzuna? Legegileak alarma sozialaren arabera hartzen ditu erabakiak?³³ Zigorraren alde egitea edo utilitarismoaren alde egitea, behar politikoen arabera izango da?³⁴

Emaitza jakitea erraza izango da politika kriminalaren azterketa egiten bada. *Ultima ratio*ren ideia atzean utzi egin da eta maximalismo penal baten oinarrian dago kokatua gaur egun fenomeno hau, zigor mundua *prima ratio* ideia indartuz³⁵.

³¹ “Aro garaikidearen ezaugarriak delituaren kontrol sozialean pribatizatu egiten duten mugimenduak ikusten dira, berezi espetze pribatuek harturiko indarra.” CHRISTIE, N. (1993). Op. Cit. 116.or.

³² GARLAND, D. (2005). *La cultura del control. Crimen y orden social en la sociedad contemporánea*. Barcelona: Gedisa, 199.or.

³³ Ezin daiteke begirada beste alde batera zuzendu dinamika legislatiboaren handitzeari dagokionean. Kontzeptu juridikoen, delitu-tipifikazioen eta interesen berrien agerraldiak benetakoak dira. DÍEZ RIPOLLÉS, J.L. (2005). De la sociedad del riesgo a la seguridad ciudadana: un debate desenfocado. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, (7), 1-37.

³⁴ Lan honetan planteatzen den egoera : MARÍ, E. (1983). *La problemática del castigo*. Buenos Aires: Hachette, 85.or.

³⁵ GONZÁLEZ RODRÍGUEZ, M. (2008). El Derecho Penal desde una evaluación crítica. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, (10-11), 7.or. Adituaren arabera, Zigor Zuzenbideak duen eskumenaren muga irekitzean sortzen den jarrera da. Abolizionismo penal edo Minimalismo penala besteak beste, ordea, ez dute gaur egungo errealitatearen itxura.

Christieren *La industria del control de delito. ¿La nueva forma de holocausto?* liburuak, honen ildoan, gaur egungo zibilizazioak holokaustoaren fenomenora bideratuta dagoela epaten du (1993, 12.or.). Honelako joerek aldaketen unea lortzen ez duten bitartean, gizarte industriak baldintza negatiboak sortarazten ditu, arrazismoa, segregazioa edo pobrezia adibidez (Christie, 1993, 16.or.).

2. POLITIKA KRIMINALAREN JOERA

“Agintariak artzainen modukoak dira. Haien ganaduekin borondate ona eta adeitsuak direla pentsatzea gogoko dugu, baina, zer egiten dute azkenean artzainek haien aberekin? Hil egiten dituzte gero hauek jateko edo hauen haragia diruaren ordeztatzeko.” (Graeber, 2012, 258.or.)

Lehen aipatzen genituen boteredunak edo hasierako *paupecultura* fenomenoaren kontrola dutenak deabruaren papera hartu dute. Ondorioz, “deabrua kontrolatu nahi badugu, ezagutu beharra daukagula” oinarritzkoa dela erakusten ahalegindu naiz. Hala ere, “deabruak bere trikimailuak ditu, moztuz aldatzen baita denbora guztian zehar”, bere eraginak argitaratzea, konklusioz, aukera ematen dute antzerako egoerak infernu mundu honekin lotzeko (Christie, 1993, 171.or.).

70. hamarkadan kokatu daiteke, aurretik adierazi bezala politika zigortzaileen hasiera, ideia politiko-ekonomiko berriek Estatu Batuetan joera berri bat sortarazi zuten, non erantzunak delituak burutzeko arrisku-mailan oinarritzen ziren: geroz eta arriskutsuagoa, geroz eta zigor gehiago (Ribera Beiras, 2015, 107.or.).

Testuingurua oroituz, kontserbadoreak diren joera hauen oinarrian hiru ezaugarri betetzen ari ziren berean: “Estatu ekonomikoaren lausotasuna; Estatu sozialaren ahultasuna eta; Estatu penaltaren indartzea eta gorespena” (Wacquant, 2000, 22-23.or.).

Orain, aurkezturiko joera hauen eragina politika kriminalaren gainean zein izan den ezagutuko dugu. Pobreziaren egoerak, bereziki, zigor joeretan eragin berezia izan du eta hauek zeintzuk izan diren argitaratzen ahaleginduko naiz. Helburua oraingoan beraz, politika kriminalaren eta boterearen arteko harremana erakustea izango da, baita politika kriminalak izan dituen eraginak.

Aurkezpen labur honek, errealitatea helmugatzat duen ibilbidean jarraiki, *transparentziaren* harresira iritsi aurretik dagoen eremuari bukaera eman nahi dio. Sistema penitentziarioaren testuingurua konplexua den heinean, eragin desberdinak aurkeztu behar baitira.

Izaera eta garrantzia

Politika Kriminala definitzen badugu, “honen objektu nagusia zehazturiko bizikidetzaren sozialaren arauen kontra jokatzeko dutenen eta kalteak sortarazten dituztenak tratatzeko modua kudeatzea da, baita gizabanakoa edo komunitatea arriskuan jartzen duten pertsonena” (Roxin, 1992, 9.or.). Arau-hausleei zuzenduriko politika da azken finean, zigorren eta kontrol soziala zehazteko erreminta.

Garlandek, Foucaulten ideiak gogoan edukiz, politika penalak³⁶ gizartea eraikitzen laguntzen duela dio: “Politika penalak hedaturiko mezuak ez dira arau-hausleei zuzenduriko mehatxuak bakarrik: subjektibitateak, autoritate formak eta erlazio sozialak sortzen laguntzen dituzten sinbolo positiboak ere badira” (Garland, 1999, 320.or.). Honek aurreko kapituluan aztertutako boterearekin harremana zuzena erakusten du, delinkuentzia eraikuntza soziala moduan ere interpretatzea posiblea dela izanen³⁷.

Politika kriminalari egitura sozialaren aztergai bihurtu da ondorioz, mekanismo hau objektutzat hartzen duten lanek hala erakutsi izan baitute³⁸. Horrexegatik, aktualitatea eta hurbil dagoen etorkizuna ulertzeko baliabide aproposa izanik, honen inguruan mugitzen diren ate guztiak ireki behar dira.

Egitura edo formulazio hau ulertzen laguntzen duten eragiletako bat IKTak dira, informazioa emateko garrantziak punitibismo izaera pizten lagunduz:

Politika kriminal honek erlazioa dauka presio sozial eta mediatikoarekin. Aldiro, larritasun konkretu bat duen delitu baten egitateak edo delituak kontsideratzen ez diren arau-hausteei alarma soziala pizten dute, komunikazio hedabideek hauek tratatzerako orduan iritzi publikoan eragina izanik delituaren zigorraren gogortzeari buruz edota infrazkzioen kriminalizazioagatik. Honelako presio sozial eta mediatikoen errealitatea distortsionatzen dute askotan, justua edo eraginkorra ez den erantzun bat ekarriz. (Gallego Diaz, 2010, 53.or.)

³⁶ Politika Kriminala izendatzeko beste modu bat.

³⁷ TORRENTE, D. (2001). *Desviación y delito*. Madril: Alianza, 74-75.or.

³⁸ Politika kriminala aztergai duten lanetatik aipatzekoak dira: RIVERA BEIRAS, I. (2005). *Política criminal y sistema penal*. OSPDH, Bartzelona: Anthropos; ROXIN, C. (1992). *Política criminal y estructura del delito (Elementos del delito en base a la política criminal)*, Bartzelona: PPU; MIR PUIG, S. (2007). *Política criminal y reforma penal*. Boadilla del Monte: Edisofer S.L.; SANCHEZ-OSTIZ GUTIERREZ, P. (2012). *Fundamentos de política criminal*. Madril: Marcial Pons.

Influentzia ideologikoak: neoliberalismo errepresiboa

IKTen influentziarekin batera, Castaño Tiernoren hitzetan, punitibismoaren atzean ideologia zehatz bat badago: “tradizioak, komunitateak, elizak eta familiak gizabanakoan izandako kontrola gerraosteak laxoagoak bihurtu arren, desoreka eta segurtasun ezaren beldurrek moralitate kontserbadoreen indartzea ekarri dute” (2014, 198.or.). Neoliberalismoaren indartzea moralitate hauen emaitzetako bat izan da, estatu sozialetik penalera igarotzea erraztu duena.

Gutxiengo Estatuaren sorrerara iritsi gara, non estatu babesgabearen joera gaur egun presenteago dago. Zuzenbide penalean Silva Sanchezek aipatzen duen espantsioaren barnean “**administratzizazio**” bat ematen ari da arriskuaren kudeaketan³⁹.

Inadaptazio selektibo edo kolektibo izenarekin deitua, kultura zigortzaile batera heldu gara non “kalkulu probabilistiko eta estatistikoetan” du oinarria, “epaiaren iraupena arrisku profilen araberakoa” izan behar dela aldarrikatzen duena (Anitua, 2015, 2123.or.)⁴⁰. Kalkulu hauetan oinarritzen da **aktuarialismoa**, metodo klinikoak atzean utziz, datu baseetan zehar norbanako edo taldeen portaera kriminalak zehaztu eta iraganeko, oraineko eta etorkizuneko portaerak iragartzen oinarritzen dena (Harcourt, 2007, 1.or. eta Brandariz García eta Iglesias Skulj, 2012, 19.or.)⁴¹.

Aktuarialismo hitza aseguru etxeetako “aktuario” langilearen jardunen antzekotasunagatik hartzen du izena. Honen betebeharra “egoera konkretu batzuen barnean eman ahal ziren arriskuen katalogoa egitea” zelako (Ribera Beiras, 2015, 106.or.).

Momentu garaikide honetako politika kriminalek joera hau jarraitzen dute *welfare state* delakoaren krisia eman zenetik. Honen lehendabiziko adibide nagusienak herrialde anglosaxoietan emaniko *zero tolerance* edo *three strikes law* politikak dira.

³⁹ SILVA SÁNCHEZ, J.M. (2001). Op. Cit. 123.or. Arriskuaren izaera hori oinarritzat duen obrarik aipagarriena BECK, U. (1998). *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*. Bartzelona: Paidós.

⁴⁰ Penologia berri bat daukagu, gizabanakoetan atentzioa utzi eta eremua handitu egin duena. “Orain egitekoak ez dute aldakuntzarik bilatzen, organizazioa baizik”, hor dago beraz predikzio eta klasifikazioen zentzua. FEELEY, M. (1991). *The New Penology. Reformulating Penal Objectives and Implications for Penal Growth, Growth and Its Influence on Correctional Policy*. Guggenheim Criminal Justice Program, Berkeley, 66-67.

⁴¹ BRANDARIZ GARCÍA, J.A. (2014). La difusión de lógicas actuariales y gerenciales en las políticas punitivas. *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, (2), 6.or. “Aktuarialismoaren helburua, arriskutsuak bezala klasifikaturiko eta identifikaturiko biztanleri taldeen kontrola da”. RIBERA BEIRAS, I. (2015). Actuarialismo Penitenciarios. Su recepción en España. *Revista Crítica Penal y Poder*, (9), 106.or.

Amerikako Estatu Batuetara bidai eginez -New York hirira hain zuzen ere- joera zigortzailezko politiken aplikazioen zantzuekin topo egingo dugu, “*tolerantzia zero*”⁴² politikekin (Cabrera, 2005b, 92.or.). *Three strikes law* legea beste adibide bat da, 1993. urtetik aurrera Estatu Batuetan aplikaturikoa, non honen arabera “norbaitek indarkeriazko hirugarren delitu bat burutzen bazuen biziarteko kartzela-zigorra izango zuen askatasun aukerarik gabekoa” (Anitua, 2015, 2126.or.).

Adibide hauek, besteak beste, neoliberalismoaren begirada populazio konkretu batera zuzendurik dagoela erakusten dute. Desberdintasun sozio-ekonomikoa sortuz, “askatasun gabetzaileak diren zigorrak, bazterturiko sektoreei aplikatzen zaie” (Manzanos Bilbao, 1992, 265.or.). Silva Sanchezek pauso bat aurrera egin eta ausartu egiten da aipatzera kriminalitatearen⁴³ %80a *lower class crime* bezala interpretatu daitekeela, hau da, pobrezia zuzenduriko krimena. Kopuru oso nabarmena zeresanak ematen dituen (2001, 57.or.).

Zigor-instituzioen sorreratik, erakunde sozial honek kapitalismoarekin izandako erlazioa estua izan da. “Espetxearen zentzua” alde batetik “zigorra-pena” ideiarekin lotu egin daiteke – delituaren bidez gizartea erasotzen zituenen egoera eta hura erreparatu behar zutenak-; eta bestetik “zigorra-itxialdia” – burgesiaren ordena sozialarentzako mehatxuzkoak ziren sektore sozial konkretu bateko pertsonen atxiloteta, hauekin “lan egin” behar zena geroago produkzio sistemara berriro “itzultzeko” (Daroqui, 2002, 195.or.)⁴⁴.

Globalizazioak sorturiko situazioa da azken finean indartze honen arrazoi nagusia. Egoera honek ekarri dizkigun erraztasunak eta jakintasunek ahalbidetu egin dutelako “*masen indibidualizazio*” egoera batean egotea. Lehen komunitatea kontsideratzen zena gaur egun horrela interpretatzera ez gaitu bideratzen, baizik eta “desio eta interes propioak lortu nahian atomizatuak eta nartzisismoz dauden gizabanako taldeak” izatera heldu gara (Souza, 1999, 322.orr.).

⁴² Ordena soziala kontrolatzeko porrota aitortuz, erakunde harremanen arteko indarrak baliaturik harturiko erantzuna izan zen.

⁴³ Gaur egun “kriminalitate” kontsideratzen den eremu “huts” horri egiten zaion interpretazioa.

⁴⁴ “...baztertuen miseria – aitzinean errudun kolektiboa zuen gaitza kontsideratzen zena, eta ondorioz, bitarteko kolektiboekin konpondu behar zena – delitu indibidual bezala kontsideratu daiteke soilik. “Arriskutsuak diren klaseak” klase kriminalak dira, eta kartzelak Ongizate estatuari zegokion funtzioak betetzera igarotzen dira, honela asistentzia sozialeko prestazioak murriztu egiten diren heinean, kartzelek paper hori betetzen jarraituko dute intentsitate handiagoarekin.” BAUMAN, Z. (2000). *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*. Bartzelona: Gedisa, 117.or.

Zigor-instituzioak: politika aldaketak

Christiek aipatzen zuen deabruaren maskarek Zaffaroniren “*etengabeko larrialdi*” egoerarekin erlazio zuzena daukate. Argentinarraren arabera, “zigor botereak prozedura diskurtsibo berdinean mugatzen da beti: oinarri ideologikoa errepikatzen den heinean, ez da berdina gertatzen honen edukiarekin”⁴⁵. Ideia berdinak, modu desberdinean, hau da gaur egungo egoera.

Abolizionismoaren joera hartzea oso ohikoa izan da **krisi egoera** honen aurrean, hala ere, Gallego Diazen aipu batekin bat eginik, gaur ezin daiteke desagertze horri buruz hitz egin. Sistema zalantzan jartzea bide egokiagoa da “**zigor zuzenbidearen espantsioaren**” aurrean gaudelako, “hipertrofia baten joera” jarraitu duen egoera (Silva Sanchez, 2001 eta Gallego Diaz, 2010, 52.or.).

Zabaltze edo estentsio hau espainiar estatuan ematen da baita. **Etsaiaren zigor zuzenbidea**⁴⁶ oinarri izanik, sistema penaleko erreformek -2015 azkenekoa barne- joera hau argi erakusten dute. Orain ez da arau-hauslea elementu garrantzitsuenetako bat, baizik eta horrek duen arrisku maila. Efizientziak protagonismoa galdu du eta efikaziak hartu du bere lekua. “Aurkezten diren jarduketan kopurua garrantzi handiagoa daukate benetan borrokatu nahi diren delituen tasa jaitsi baino.” (Brandariz, 2014, VI-VIII).

Adibide batzuk dira, besteak beste, espetxe-zigor iraunkor berrikusgarria; protesta baten egiletasun intelektuala; atentatuaren definizio berria; protesten kriminalizazioa edo; zigorren iraupenaren luzatzea⁴⁷ dira (Jimenez Franco, 2016, 16-17.orr.).

Hala ere, adibide argienetan sakondu nahi badugu, López Capdevillaren Gradu Amaierako Lanean ematen dituen hiru *etsai-taldeetara* jo beharra daukagu. Hauek: delinkuentzia sexualeko, etorkinen gaineko eta terrorismoko tipifikazioak dira, azken hau politika kriminalen joeraren adibide garbiena izanen.

⁴⁵ ZAFFARONI, R. (2001). Naturaleza y necesidad de los consejos de política criminal. Ondorengo liburuan, CARRANZA, E. *Justicia Penal y sobrepoblación penitenciaria: respuestas posibles* (85-104). Mexiko D.F.: Siglo XXI, 87.or.

⁴⁶ Etsaiaren Zigor Zuzenbidea arrisku maila oinarri izanen “segurtasun kognitiboa bermatu nahi duen joera da arauen iraunaldien baldintza moduan”. COELLO, J. (2006), *Derecho Penal del Enemigo* (Ikerketa lana). San Martín de Porres Unibertsitatea, Lima, 35 or.

⁴⁷ “Luzatze hauek ez da bakarrik zigorren goi-mugen edo espetxe-zigor iraunkor berrikusgarriagatik, baita betearazpenaren malgutasunean jartzen diren oztopoak aipagarriak dira”. GARCÍA CASTAÑO, C. (2012). *¿Cómo afecta la reforma del Código Penal al derecho penitenciario?* Madril: Asociación Libre de Abogados.

Delinkuentzia sexualaren eremu penala aztertuz, 189. artikulua arriskuaren aurkako izaerari buruzko informazio nahiko ematen duena da. 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, 1995. urteko Kode Penalaren erformatzen duenak, haur pornografiari buruz eginko aldaketak aipatzekoak dira. 189.1. artikuluko “c” atalak adibidez, haur pornografia kontsideratzen du “adin-txikikoa diren norbait bat agertzen” bada irudikapen batean. Honen arabera, fikziozko pertsonaiak agertzen diren animazioak ikusten dituenak adibidez, delitu hau burutu dezake, nahiz eta adin txikikorik inplikaturik ez egon (López Capdevilla, 2015, 24-25.orr.).

Tipifikazio hau printzipioz, “pedofiloak diren pertsonen gainean aplikatzeko xedea dauka, etorkizun batean haur pornografia produzitzeko edo hedatzeko arriskua izan dezaketelako”. Aktuarialismo hau ere irudikatu egiten dute adibidez, ondorengo artikuluek: 183. bis artikulua *-child grooming*⁴⁸ delakoa tipifikatzen duena-; 187.1. artikulua -antzerako zigorra aplikatzen zaio adin nagusiko pertsona bati indarkeriaz edo larderiaz, adibidez, “prostituzioan jardutera edo horretan irautera derrigortzen badu” edo hauen baimenarekin bere prostituzioaz irabaziak lortzen duenari- -; 188.1. artikulua - adin-txiki edo desgaitu bat “prostituziora induzitu, hura sustatu, faboratu edo errazten duenak”, besteak beste, zigor eremu berdina dute prostituzioa burutzen dutenekin- eta; 192.1. artikulua -segurtasun neurria, askatasun sexualaren aurkako delitu bat edo gehiagoko kondenatuei aplikatzen zaiena- (López Capdevilla, 2015, 24-26.orr.).

Etorkinen kontestura igaroz, Zigor Kodeko 89. artikulua da seinalerik aipagarriena. Artikulu honen arabera, egoera legal batean ez dauden atzerritarrak kanporatzeko bidea ematen zen, 2015 erreformak ordea, joera hau zabaldu egin du. Gaur egun, espainiar estatutik kanporatzeko aukera legezko etorkinei edota europar hiritarrei aplikagarri zaie adibidez (García España, 2016).

Atzerritarren Lege Organikoa edo Prozedura Penaleko Legeek joera hau bermatzen dute ildo berean, erakutsiz zuzenbide penala migrazioaren aurkako politikaren erraminta bat dela.

⁴⁸«Norbaitek, sexu-helburuekin, hamasei urte baino gutxiagoko adingabe bat sexu-jokaeretan parte hartzera edo sexu izaerako egintzak ikustera behartzen badu, egileak berak jokaera horietan parte hartu ez arren, orduan, pertsona horri sei hilabetetik bi urte arteko espetxe zigorra ezarriko zaio. Sexu-abusuak ikustera behartu badu, egileak abusu horietan parte hartu ez badu ere, urtebetetik hiru urte arteko espetxe zigorra ezarriko zaio.». BOE (1995). 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. 183. Bis.

Azkenik, **terrorismoaren aurkako politikek** erakusten dute aktuarialismo, estatu babesgabearen, punitibismoaren, etsaiaren zigor zuzenbidearen edo neoliberalismoren praktikak edo politikak. Azken boladan mass-medien bitartez ezagutu ditugun ustezko terrorismo gorespenen⁴⁹ kasuak aipatzekoa dira. Kode Penaleko 578. artikulua delitu hau tipifikatu egiten du eta arriskuaren aurrean aurre egiteko beste adibide bat dela erakusten du (Aranda Ocaña, 2005, 382.or.)⁵⁰.

Neurri bereziak barneratzen ditu kodeak terrorismo kasuetan baita. 7/2003 Lege Organikoak 76. artikuluan ekarriko aldaketek bi terrorismo delitu edo gehiagotik kondenaturiko pertsonak -hauetako bat 20 urte edo gehiagoko zigorra izanik- 40 urteko betearazpen osoa betetzera iristeko aukera ahalbidetu egiten dute adibidez. Prozedura Penaleko Legeak 520 bis artikulua -atxiloketa 5 egunera eta erabateko inkomunikazioa baimentzen duena- edo 579.4. artikulua -ikerketa fasean epailearen baimenik gabe interbentzio telefonikoko eginbideak burutzea errazten duena- beste adibide batzuk ere badira (López Capdevilla, 2015, 29-30.orr).

2015eko martxoaren 30eko, 2/2015 Lege Organikoak, terrorismoaren gainean aldaketak ekarri zituenak zigor kodean, sisteman ekarriko espantsioaren beste adibide bat da, hala ere modu sakonago batean egin beharreko analisia da sistema penalaren erreforma. Orain botereen interesen atzean dagoena, honek politika kriminalarekin duen harremana eta politika desberdinen joerak azalarazi ondoren, sistema penitentziarioko eremu mikro batera jo beharra dago. Zigorraren eta zigor-instituzioetan izandako eraginei buruz hitz egiteko beharra dago, modu konkretuan espainiar estatuko egoerara iritsiz.

⁴⁹ Azken boladako epairik esanguratsuenetako batzuk Cassandra edo Valtonycken kasuak dira. Cassandra Twitterren bidez jarriko 13 txioengatik epaitua izan da terrorismo biktimak apaltzeagatik urte bateko espetxe zigorra. Valtonyc rap kantaria, ordea, hiru urte eta erdiko espetxe-zigorreko epaia izan du terrorismoaren gorespenagatik akusatua. AUZITEGI GORENA, Zigor Sala, 4. Sekzioa. (2017eko martxoak 29). 9/17 Sententzia eta; AUZITEGI GORENA, Zigor Sala, 2. Sekzioa. (2017eko otsailak 21). 4/17 Sententzia.

⁵⁰ 576. eta 579. artikuluek *ex ante* izaerazko preparatze-tipoak ere badira. Lehendabizikoaren arabera kolaborazio egitateak aipatu egiten dira terrorismo talde edo organizazio batekin; bigarrengoak berriz, probokazio, konspirazio edo proposamen egitateak zigortzen ditu.

3. ZIGORRAREN KUDEAKETA ETA JOERA HISTORIKOA

“Zigorra pairaezinak ziren sentrazioen artea izatetik, zintzilik dauden eskubideen ekonomia izatera igaro da” (Foucault, 2009, 20.or.)

Krimenaren munduan barneratzean arazoekin aurkituko gara beti. Krimenaren kontzeptua bera hutsik baitagoela esaten dutenak baitaude. Horregatik beharrezkoa da termino honen inguruan muga batzuk ezartzea (Morrison, 2009, 3.or.).

Honekin batera, Christiek delitua ez dela existitzen aldarrikatzen du, datuak bakarrik baino ez direla esanez (2004, 9.or.)⁵¹. *Ingurugiro sozialaren arabera* aldatzen diren *datu* hauek ondorioz historian zehar aldagarriak direla aitortu daiteke. Zigorrek bere joera propioa izan du, egoera sozialaren arabera baldintzatua izan dena.

Zigorraren hasierako kudeaketaren sintesi labur bat egiten bada⁵², aitortu beharra dago mendeak igaro direla helburu juridikoen artean min fisikoa protagonismoa galdu egin zuenetik⁵³, garai hartan buruturiko delituaren arabera ematen zen erantzuna oso zehatza baitzen: “zigorrada kopurua; burdin beroa non kokatu; sutean edo gurpilean egon beharreko denbora; zer nolako mutilazioa ezarri behar zen...” (Foucault, 2009, 43.or.).

Erdi Aro garaian, European, zigor mota eta zigor mailak desberdinak ziren “arau hauslearen eta ofendituaren estatu sozialaren arabera” (Rusche eta Kirchheimer, 1984, 8-9.or.). Baina denbora igaro ahala, espetxeen erabilera aldatuz joan zen, nahiz eta hasiera batean aukera ekonomikoa zuten arau-hausleen kokagune izan⁵⁴. Gaur egun, espainiar estatuan gertaturikoak azalarazten izango du helburu kapitulu honek, zigor-instituzioak agertu zirenetik betidanik egon izan diren egoerak protagonismoa hartuz.

⁵¹ “...bakarrik modu arbitrario batean hautaturiko gatazkak daude edo juridikoki, bakarrik, heterogenoa den gatazka hipotesien multzo bat existitzen da” ZAFFARONI, E.R. (1998). Op. Cit. 253.or.

⁵² Gai honi buruzko literatura oso interesgarria da: PAVARINI, M. (1993). La justificación imposible. La historia de la idea de pena entre justicia y utilidad. *Capítulo Criminológico*, (21), 31-41; MELOSSI, D., & PAVARINI, M. (1980). *Cárcel y fábrica: los orígenes del sistema penitenciario (siglos XVI-XIX)*. Mexiko: Siglo XXI; OLMO, O.P. (2013). “Origen y evolución histórica de la pena de prisión”, Ondorengo tesitik sorturiko apunteak: OLMO, O.P. (2000). *La cárcel y el control del delito en Navarra entre el Antiguo Régimen y el Estado liberal* (Doktoretza tesia), EHU.

⁵³ “Minaren kode juridikoa” aplikatzen zen, zigorra helburu haietara bideratua egonik. FOUCAULT, M. (2009), Op. Cit. 43.or.

⁵⁴ Aukera zutenen atxiloteta eremu bezala kontsideratzen zen hasiera batean, baita kartzelariei edo erantzukizun ekonomikoak ordaintzeko aukera ez zutenei zigor korporalak aplikatzeko gunea. Ez zen XVI. menderaino non espetxeak interes merkantilistekin topo egin zuen. JIMENEZ FRANCO, D. (2013). Op. Cit. 89.or.

Zigor kontrolaren txip aldaketa

Esan bezala, espetxeen erabilera, hasiera batean publikoak ziren espetakuluei buruzko iritzia aldatzen joan zen heinean suertatu zen. XIX. mendearen erdialdean “**zigorraren inauteria**” zena⁵⁵, atzean utzi, eta egoera berdina espetxeetan aplikatzen hasi ziren. Aipaturiko aratustearen baloreak eraldatuz, espetxeetan zigorraren aplikazioa sen berdina izaten jarraitzen zuen, hala ere hiritarren iritzietatik ez zen aldentzen, horrexegatik sistema penitentiarioak iluntasunean bizitzeko beharra aurkitu behar izan zuen, mundutik eta errealitatetik aldentuz (Pratt, J., 2006, 62.or.).

Egoera honek zigorraren izaera “**denboraren pribatizazioa**” oinarriztera eraman zuen “min fisikoaren” aplikazioa alde batera utziz (Pratt, 2006, 72-73.orr.). Hala ere, ez da ahaztu behar pribatizazio horren betearazpenaren bitartez -oraindik- min fisikoa ere bazegoela eta badagoela beste min askoren artean -adibidez, besteak beste eragin somatikoak eta psikosozialak- (Diaz Cano, 1997, 35-36.orr. eta Valverde, 1991, 106.or.).

Ikerketa garaikide baten ildoan, gaur egungo egoera ezagutzea garrantzitsuagoa da ordea. Alde penitentiarioa kritiken egoeran dagoen heinean, konponbide egokienaren bila erakunde sozialaren izaera ematea lehendabiziko pausoa da (Garland, 1999). Hasieratik esan behar da aipaturiko ustezko krisi egoera hori erlazio zuzena izan dezakeela zigor askatasun-gabetzaileen aplikazioen sorrerarekin. Historia garaikide honetan, ondorioz, betidanik aipatu izan den gaia izan da⁵⁶.

Egoera honen gainean ematen den **kritika nagusia birgizarteratzearen aplikazio eza** da. Baumanek bere buruari zera galdetzen zion: “zigor erakundeek bere forma desberdinetan presoen birgaitzea, moralki, berregiteak eta gizartearekin dituen zorrak kitatzeko gaikuntza ematea lortu dute?” (2001, 144.or.). Erantzuna ematea erraza da: ez.

Konklusio honetara heltzeko faktore nagusia piramideko arau nagusienean kokatzen da espainiar estatuan, Espainiar Konstituzioan hain zuzen ere. Bertako **25.2. artikulua** “berrezteari” eta “birgizarteratzeari” keinua egiten dion arren, helburu hau osotasunez lortzea ezinezkoa da.

⁵⁵ *Carnaval del castigo* moduan ezaguna.

⁵⁶ PAVARINI, M. (1995) El orden carcelario. Apuntes para una historia material de la pena. *El derecho penal hoy*. Buenos Aires: Editores del Puerto, 567.or.

Anituak zalantzan jartzen ditu zigorrak izan behar dituen helburu hauek. Honen ustetan nola izan daiteke hauek pertsona baten gainean lortzea hau gizartetik aldentzera behatzen bazaio? gainera “hainbat datu enpirikoen arabera berrerortze kasuetan birgizarteratze arazoak daude eta espetxea leku kriminogenoa da, sozializazioa bultzatzen ez duena” (2015, 2119.or.).

Cabrerak ondorioz, baieztatu egiten du Konstituzioak diona azken finean ez dela guztiz erreal bere osotasunean, zigor mota hauek birgizarteratzeaz aparte beste printzipio baten baitan osatuta daudelako: zigortzean -segurtasunean eta kontrolean oinarritua dagoen zigorrean⁵⁷. Gaur egun beraz, gizartera heltzen den informazioa -heltzeko aukera badauka- errealitatearen irudi berdina ez duela esan daiteke.

Espetxez aparte, aipaturiko arazoei aurre egin nahian *alternatiba* moduan kontsideratzen ditugun zigorrak ere bere kritikak jaso izan ditu. Berezik, Larrauriren esanetan, hauek alternatiba izan ordez “gehigarriak” besterik ez direla espetxe zigorrei (1991, 46.or.)⁵⁸.

Konklusioz, berriro Lèvi-Straussen gogoeta batera heltzen gara, “gizarte garaikideak antropoemikoak” direla aldarrikatzen duen horretara, hiritarrek nahi ez dituzten pertsonak kanporatu egiten dituztelako, hauek alde batera utziz edo gizartetik aldentuz, zigor-instituzioak prozesu honen helmugetako bat izanik (Lèvi-Strauss, 1988 eta Bauman, 2005).

Botere eta politiken eraginak

Uste eta kritiken ildoan ibili izan den egoera honi konponbidea eman nahian, David Garlandek *Castigo y Sociedad Moderna* lan arrakastatsuan zigorrari abizena jartzen dio: **instituzio sozialaren izaera.**

⁵⁷ CABRERA, P.J. (2005b). Cárcel y exclusión. *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, (35), 87.or. Manchadok ere interpretazio berdina egiten du, zigortze horren printzipioari dimentsio “praktiko-implizitua” ezarriz, eta birgizarteratzeri “diskurtsibo-esplicitua”. MANCHADO, M. (2012). Educación en contextos de encierro: Problemáticas, miradas e interrogantes en torno al sujeto del aprendizaje y el proceso educativo en las prisiones santafesinas. *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*, 6(1), 129.or.

⁵⁸ Alternatiben analisi aipagarria aurki dezakegu artikulu honetan: CESANO, J.D. (2003). De la crítica a la cárcel a la crítica de las alternativas. *Boletín Mexicano de Derecho Comparado*, (108), 863-889.

Instituzio edo erakunde sozialei buruz aritzean (familia, eskola edo paresia bezala adibidez), esan daiteke hauen barnean “praktika sozial asko daudela, oinarri eta organizazio sendo bat dutenak”. Beraz, hasieratik eremu oso konplexua dirudien arren – “erakunde-logika” batean murgildurik gaudelako- bide egokia dela esan daiteke, zigorraren errealitatea osotasunean ulertzeko baliabideak ematen dizkigutelako (Garland, 1999, 327.or.).

Boterearen eraginei buruz lan honetan azalduko da, oso modu zehatz eta zuzen batean laburbildu daiteke Jiménez Francoren ondorengo pentsamenduarekin:

Merkatua (finantzarioak) proposatu eta inposatu egiten du. Estatua (oso espainiarra dena) jarri eta armatu egiten da. Lehendabiziko proposamenen mende dago bigarrenaren armak. Pilaketa eta bertatik ezin banandu daitekeen atzealdearen (gabetzea) hasierako baldintzek mamu teknokratikoa sorrarazi dute, non momentua iristean erantzun oso arrazionalak proposatzeko zalantzarik ez duten. Ekonomiagatik egiten del Gobernuan, kriminalitate estatal-korporatiboa eta min sozialaren administrazio eraginkorra. (2016, 13.or.)

Eta ideia hauei, Foucaulten filosofia gehitzen badiogu, ezinezkoa da botere formak erakunde sozialetatik bereiztea. Modu berean, badaude iritziak aldarrikatzen dutena, espetxeen sorrera hiritarren iritzien influentzia izan bazuen ere, hau ez zela zigor zuzenbide berri bat lortzeko asmotan sortua. Iritzi publikoa disziplina eta boterearen eraginaren araberakoa izan daiteke hortaz (Campos Zamora, 2010, 634.or.). Honi gehitu behar zaio baita, botere banaketan artean (legegilea, betearazlea eta judiziala) gertatzen den *funtzio-fusio* arazo hori, non, botere judiziala ahultasun egoera batean kokatzen da beste botereekiko.

Politika kriminalaren joeren kasuan, hauek argi erakutsi dute ezin dezakegula zigorrak gabeko etorkizun bat espero hauek kritikez gainezka egon arren. Boterea eskutan duten erakunde eta pertsonak gizartea kontrolatzeko gogoekin, helburua lortu nahian zailtasunak izan arren, legearen gogortzeak geroz eta ohikoagoak dira (Bauman, 2001, 119.or. eta Gil Villa, 2004, 120.or.).

Zigorraren egoera horren baitan, zigor-instituzioek -aurretik esan bezala- biztanleria konkretu batera bakarrik zuzenduta daude. Gutxi batzuk libratzen dira errepresio honetaz, hortaz espetxea ordainezko helburuak ditu eta ez ezabatzeak (Morris, 1978, 120.or.). Giza alderdi konkretu batzuegan dagoen presioa, sektore edo egitate batzuk kaltetzeko burutzen dira, Pavarinik esango zuen moduan⁵⁹.

Azkenean, zigorrak izan dezakeen erakunde sozial izaeraren atzean dimentsio politiko, moralak, ekonomikoak, kulturalak eta teknikoak aurkitu daitezkeen heinean, hauek aukera ematen dute gure buruari galdetzeko: **zergatik daude bizirik zigor-instituzio garaikideak?**⁶⁰.

Garlandek galdera honi beste horrenbeste zalantza atxikitzen dizkio:

[...] nola ulertu dezakegu kontraesanek, porrotek eta politika kaltegarriez hain zatiturik dagoen erakunde edo instituzio bat? Erakundearen mantentzearen gainean zeintzuk dira aldeko eta kontrako faktoreak? Eta hauen arazoek gainean? Nola izan daiteke aldi berean erakunde bat egonkorra eta oso problematikoa? (1999, 321.or.)

Galdera guzti hauei erantzunez, Diaz Cortesek, Garlanden hitzak hartuz, espetxeak bizirik dagoela dio **“arrazoi punitibo, ekonomiko, kontrol falta edo estrategia polizia eraginkorrendik”** (2007, 203.or.). Kasu honetan hezi garen disziplina kontestua ez da arrazoi bakarra, begirada anitzeko ikuspuntua hartzen bada -erakunde-sozialek hura merezi dutelako- eremua gehiago zabaldu daiteke. Bertan kokatzen da garrantzi berezia duen informazioaren gaia.

“Kartzela etengabeko bazterketaren sinonimoa da” eta koxka hor dago: “Gure kaleetan segurtasuna itzuli behar da eta hori lortzeko: arriskuak sortzen dituztenak hiritarren bistatik kentzen baditugu eta aldendu ezin diren lekuetan jartzen baditugu hura lortu dezakegu?” (Bauman, 2001, 158-159.or.).

⁵⁹ Zigorraren distribuzio ezegonkorak botere kontratu-instituzionalen oinarri batean oinarritzen dira, organizaturik dauden talde batzuen interesetan murgildurik. PAVARINI, M. (1995). Op. Cit. 583.or.

⁶⁰ PAULLADA, G.A. (s.f.). La cárcel como forma de castigo en las sociedades modernas. *Diálogos con presas*, 50.or.

Informazioa abiapuntu

Ondorengo arlo enpirikoan jorratuko den moduan, sistema penitentiarioaren testuingurua **kaxa ilun bat** da. Adibidez, zuzenbideak formalismoaren sen horretan, legeen interpretazio arazoak ekarri egiten ditu, hauek oztopoak izanen askotan hiritarren ulermenerako. Harritzekoa dirudien arren, hau ez da nire iritzia, baizik eta Beccariak 1943. urtean eginikoa⁶¹.

Oztopo hau adibide garrantzitsuenetako bat da, “neurketa zehatz baten, konfiantzako datuen gabezia eta aldagai penalak beste portaera batzuegandik banantzeko ezintasunekin” batera, **kriminologoen lana etorkizunera proiektatzea eragozten** dutenak (Garland, 1999, 292.or.).

Informazioaren eremuan egoera berdina gertatzen da. Badirudi, sistema penitentiarioaren transparentziaren gainean jardutean, instituzio-sozialen atzean kontrol konkretu baten zantzuak badaudela. Bereziki, zigorra **“gutxi batzuen” eskutan dagoen kontrola** bezala interpretatuz, beste “askoren gainean” inposatzen dena (Daroqui, 2002, 200.or.). Hau buruturiko delituen estatistiketan aurkitu daiteke, **datu ofizialak manejatzean kontrol berezia** baitago Cabreraren ustez (2005b, 89.or.). “Estatistikak ubide burokratikoetatik sorturiko informazio ofizialak dira, xede politikoak dituztenak [...] instituzio baten oinarri eta premiei erantzuten dizkietenak.” (Torrente, 2001, 171.or.).

Hasieran ezarririko helburuak betetzeko asmoarekin, sistema penitentiarioak boteredunen eskuetan daude eta hauek politika kriminalaren esku hartzean eragin desberdinak dituzte zigor instituzioen gainean. Hau ikusi ondoren, harresi batekin topo egiten dugu ordea: transparentziaren zalantzak. Muga honek interes sozialen gainean aldaketak edo ezagutzak jakitea eragozten du bereziki.

Bideak bi dira: Hiritarrek errealitate penitentiario-politiko kriminala ezagutzen dute baina errazago ikusten dute honi bizkarra ematea, aurre egitea baino, edo; benetan errealitatea ezagutzeko oztopoak jartzen direla esan daiteke informazio hedabideen kontrolaren bitartez.

⁶¹ BECCARIA, C. (1943). Op. Cit. 24.or. Beccariak ondorengo esaldia eman zuen: “legeen kode sakratua geroz eta jende gehiago ulertu eta eskutan edukitzen badu, delituak gutxiago gertatuko dira, ez baitago zalantzarik zigorren ezjakintasuna eta ziurgabetasunak lagundu egiten dutela pasioen adierazgarritasunari” (1943, 24.or.).

Hartu daitezkeen ikerketa-aukerak, bi hauek dira eta hauei erantzuna ematea zaila dirudi. Hala ere, transparentzia eza gertatzen ari dela erakusteak, edozein bide hartzeko pauso bat badela dirudi. Hortaz, ondorengo atalean transparentzia eza erakusteko helburuarekin, espainiar estatu sistema penitentiarioak helaraziriko txosten desberdinen analisisa egingo da. Nahikoa da bertan ematen den informazioa? Errealitatearen isla dira? Baliagarriak izan daitezke?


II. ATALA: ZERO KOLOREGABEA

Transparentzia: harresi bat baino gehiago

Interes sozialaren ezagutzera edo errealitatearen bidean dagoen oztopo nagusi bat transparentzia da. **Harresi** honek erakutsi egiten du sistema penitentiarioa zalantzaz josita dagoela, aipaturiko espetxeen egoera edo birgizarteratzea kolokan jartzen duten iritziak egoera honen adibide batzuk besterik ez dira.

Aurreko atalean aipaturiko markoan azalarazi egin dira botere interesen eta politika kriminalaren joeren gaineko laburpen teoriko bat. Hauek elkarren artean batera egiten duten bidean transparentzia deituriko harresira topo egiten dute (4. Grafikoa). Atal honetan muga horren analisisa egingo da, baina orain arte egin izan ez den modu batean.

4. Grafikoa. Ikerlanaren gai nagusiak.



Iturria: Elaborazio propioa

Transparentzia, gaur egun, **organo publikoekin erlazionatu** egiten da eta arlo ekonomikoa edo ustelkeria fenomenoak honekin loturik daude. Hala ere, atal honetan transparentzia interes sozialarekin lotzea dauka helburu, ahaztu barik politika eta jurisdikzio penalarekin duen erlazioa. Transparentzia harresi bat baino gehiago da eta **biztanleriaren eguneroko bizimoduan** eragina izatera heldu daiteke.

Platonen kobaren kontakizunarekin paralelismo egokia egin daiteke transparentziaren rola sistema penitentiarioaren eta gizartearen testuinguruan. Bertan kateaturik dauden pertsonak gizartearen papera hartzen dute eta ikusten dituzten itzalak interpretazioak besterik ez dira, errealitatearekin erlazio zuzenik ez dituzten interpretazioak.

Honekin erlazioan iritziak anitzak dira, hauetako interesgarrietako bat konfiantza eta transparentzia erlazio estua duten terminoak direla baieztatzen duena da. Byung-Chul Han filosofoaren arabera: “Transparentziak indarra duen tokian, ez dago lekurik konfiantzarako. Transparentzia konfiantza sortzen duela esan beharrean, transparentzia hura desegiten duela esan beharko zen” (2016, 91.or.).

Aditu honek arrazoia izan dezake, gaur egun mesfidantzazko gizarte egoera bat geroz eta ohikoa delako, baina, ondorioz, transparentziaren izaera negatiboa izan behar dela esan dezakegu? Edo agian errealitatea benetan ezagutzeko eskaera bat da?

Espainiar estatuan **transparentzia politikak** bultzatu egin dira, adierazle izanen adibidez, ikergai izango dudan 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Baita, 919/2014 Errege Dekretua, urriaren 31koa, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren Estatutua onartzen duena eta ondorioz agerturiko Gardentasuneko eta Gobernu oneko Batzordea aipatu beharrekoak dira. Baina ez da guztiz osotasunezko transparentzia landu nire iritziz.


Berdina egiten da Sistema penitentiarioan? Herrialde honen Barne Ministerioaren barnean kokaturiko Instituzio Penitentiarioen transparentzia maila jakin dezakegu? Honi buruzko ez daukagu informaziorik, zein kalitate-balio dute publikaturiko datuek?

Informazioaren kontrolaren linbo egoera

Informatua izateko garrantzia oso funtsezkoa da edozein gizakiarentzat. Globalizazioak hori ekarri du, egunero konektatuak egotea munduan gertatzen den edozein gauzari buruz -adibidetako bat *nomofobia* da adibidez, etxetik xakeleko telefonorik gabe ateratzeko beldurra, edo IKTen hazkundea eta sare sozialen erabilera besteak beste-. Bizitza intimoa geroz eta publikoagoa da, baina espetxeari buruzko informazioari buruz inork ez du begirada ezartzen. Aurretik plazaratu dudan bezala zergatiak bi izan daitezke: hiritarrok ezagutu ez nahi dugun eremua delako edo; bertan gertatzen denari buruzko informazio eza dagoelako. Edo gauza biak batera gerta daitezke ere.

Zalantza guzti hauen artean ikusiriko estatu penalaren izaeraren ondorio dira, adibidez, **kaxa beltza edo ilunaren egoera** (5. eta 6. Grafikoak), zigor sistemaren ibilbide-mekanismo horretan linbo egoera nagusituz. Kriminologoek ondo ezagutzen dugun alde ilun bat zifra beltza da, ematen diren delituen informazioa errealitatearekin bat ez datorren fenomenoaren adierazle. Hemen berdina gertatzen da sistema penitentiarioko datuekin, ilunak dira, nahiz eta beste batzuek esango dute benetan egiazkoak direla eta errealitatearen isla dela boteredunek eta arduradunek erakusten duten modukoa. Iritzi banaketa honetatik dator **zifra koloregabearen** terminoa, ez baitugu ondo ezagutzen horren atzean errealitatea dagoen edo ez.

5. eta 6. Grafikoak. Zigor Sistema mekanismo eta kaxa beltz moduan.



Iturria: Aldaz Arregui, J. (2014). La institución del castigo en la sociedad del control social incontrolado: Una propuesta desde la evaluación para una institución de castigo corresponsabilizadora. *International e-Journal of Criminal Science*, (8), 14-15.orr.

Atal honek hipotesia giltzarri izanen, sistema penitentiarioaren datuak eta estatistikak transparentzia falta dutela erakustea izango dute helburu. Ikerketa erakunde penitentiarioek ematen dituen dokumentu batzuen ikerketan oinarritzen da, transparentzia politikak oinarri izanen.

Ikertuko diren dokumentuetan zer da atera nahi dena? Ematen diren datuak baliogarriak dira? Informazioa falta da? Adibidez kanpora begira, emaitzak baloratzeko balio dute? Birgizarteratzeari buruzko informazioa ematen da? Edo azkenean guzti hau gizarte arazoak eta estigmatizazioa areagotzen laguntzen dute? (6. Grafikoa).

Bigarren atal enpiriko honetan lau izango dira beraz aztertuko diren atal nagusiak: lehenik, aipaturiko transparentzia politika espainiarrari buruzko ikerketa egingo da, bereziki 19/2013 Legearen analisi sakona eginez eta Transparentzia Batzordearen azkenengo txostena ikertuz; ondorengo hiru ataletan, eremu makrotik mikrora doan ikerketan sistema penitentiarioko arduradunek nazioarte mailara proiektaturiko lan bati buruzko analisia landuko da eta ondoren 2015 urteko Informe Orokorra eta hauen webgunetik eskaintzen den informazioaren balioa (7.grafikoa).

7. Grafikoa. Atal honetan jorratuko diren ikerketa desberdinen eskema.



Iturria: Elaborazio propioa

4. TRANSPARENTZIA POLITIKEN OINARRIAK ESPAINIAN

“Legeak egitea erraza da, gobernatzea ez ordea.” (Tolstoi, 1966, 468.or.)

Azken bolada honetan egunero entzuten eta ikusi ahal diren ustelkeria albisteek piztu izan dute agian transparentzia fenomenoaren interesa eta ardura. Organo publikoengana zuzenduriko mesfidantzak handitu dira eta hiritarren iritzien gainean zuzenbide-estatu konstituzional eta demokratikoaren zutabeak oreka galtzen hasi dira. Honen aurrean erantzun moduan, transparentzia politikak agertu dira, gardentasun maila betebeharrak bihurtu dituzten arauak. Boterearen estatusera itzultzea dakar egoera honek berriro ere, erakutsiz politika-ekonomia eta boterea egunero elkarloturik daudela eta ezin direla banandurik egon.

Ondorengo azterketan, harturiko politika haien gainean ezarriko da begirada, geroago azterketa sakonago bat egiteko oinarri baitira. Partidu bat jokatu nahi badugu, araudia ezagutzea beharrezkoa da gero arazoetan ez jausteko -araudi hori ondo egituratuta egotea beste gauza bat da ordea-. 19/2013 Legea araudi horren papera hartzen du, eta nahiz eta, nire iritziz hutsunez beteriko legea izan, gardentasuna ikertzerako orduan espainiar estatuan dagoen eremu normatiborik adierazgarrienetako bat da.

Partidua aztertzen duten adituen balorazioak ere izango dira ikergai. Hauen iritzia araudien araberakoa delako, hau da, haien ebaluazioa bertan oinarritua dago. Hauek mota desberdinetako ikuspuntuak izan dezakete eta nahi dutena ikusi dezakete araudiarekin bat egiten duten heinean. Iritzi desberdin hauetatik, bat aipaturiko Legea berak osaturiko Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluarenak dira, 2017ko martxoan argitaraturiko informe batean⁶² agertzen direnak.

Hau guztia ikusi ondoren, partiduan jokatzeko ez duen jokalaririk baten ausentziari erreparatuko zaio. Zergatik Sistema Penitentiarioko alorra ez dago presente horrelako ikerketetan? Zergatik izan daiteke adierazgarria hau? Interesen araberako gauza bat dela esan dezakegu? Zer nolako erantzuna eman daiteke egoera honen aurrean?

⁶² CTBG (2017). *Informe de evaluación de los órganos Constitucionales y reguladores. Órganos constitucionales y de relevancia constitucional y entes reguladores*. Madril.

19/2013 Legea: “aurrerapauso garrantzitsua”

2013. urtean transparentzia politikak espainiar estatuan bultzatzen hasi izan ziren. Gardentasun pausoak finkaturik zeuden arren, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, aurrerapauso aipagarria izan zen.

Hitzaurrean bertan, legegileak **gardentasun edo transparentziaren garrantzia** aipatzen du behin baino gehiagotan. Adibidez, azaldu egiten du hau “ekintza politiko ororen funtsezko ardatza” dela, baita gardentasun maila altu batek erakundeak sendotzen dituela “horrek hazkuntza ekonomikoari eta gizarte-garapenari laguntzen diela” esanez (19/2013 Legea, Hitzaurrea).

Gardentasunaz aparte, lege honek **informazioa publikoa eskuratzeko eskubidea eta gobernu onari** buruzko informazioa ditu oinarri ere: alde batetik, 12. artikuluan erreferentzia egiten zaio Espainiar Konstituzioko 105,b) artikuluari artxibo eta erregistroetara hiritarren sarbidea arautzen duena; eta bestetik, gobernu onaren printzipioak 26.2. artikuluan agertzen dira, gure kontestuan aipatu beharrekoak direnak:

26. artikulua. Gobernu onaren printzipioak.

2. Era berean, honako printzipio orokor hauetara egokituko dute beren jarduerak: a) Printzipio orokorrak:

1. **Gardentasunez jokatu dute** gai publikoak kudeatzean, **eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin** bat etorri eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.

2. **Zerbitzu publikoaz arduratuz** beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.

3. **Inpartzialtasun printzipioa errespetatuko dute**, eta, beraz, interes partikular ororen aurrean, **irizpide independentea** eta interes horrez bestekoa izango dute.

4. Beren eginkizunak betetzean, **berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua** ziurtatuko dute.

5. **Behar besteko arretaz jokatu dute** beren betebeharra betetzean, eta **kalitatea bultzatuko dute** zerbitzu publikoak ematean.

6. **Jokabide duina izango dute**, eta herritarrak arreta bereziz tratatuko dituzte.

7. **Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dute** beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkieken beste batzuk.

Lege honen helburu edo xedea azken finean “jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea eta horiek ez betetzearen ondoriozko ondorioak ezartzea” da (19/2013 Legea, 1.art.). Honek erakusten du aipaturiko hiru ardatzek elkar-eragin zuzena daukatela, horregatik transparentziari buruz aritzean kontuan hartu beharreko eremuak dira.

26. artikulua gainean gustatuko litzaidake esatea, oso laburki, “gobernu onaren” ideia gainean aipaturiko *eraginkortasuna, efizientzia, ardura, inpartzialtasuna, berdintasuna, kalitatea, duintasuna* edo *erantzukizuna* bezalako hitzak printzipio moduan aipatzen badira, araturiko fenomeno hau utopikoa den testuinguru baten ideia ematen dutela. Hori lortu dezakegu edo lortu daiteke bene-benetan?

Legegileak eginiko edo eratutako kontzeptu hau oso itxurosoa dela iruditzen zait. Kriminologoen, baita giza-zientzietan lan egiten dugunok, hiritarren onerako egiten dugun lana isilarazten dutela dirudi honelako gauzak gertatzen direnean. Itxura gauza da azkenean ardatz hau, erakutsiz adituen lana baliorik ez duela interesak aurrean jartzen direnean.

Gai nagusitik aldendu egin naizela badakit, baina benetan esan beharreko iritzia da. Testuinguru utopikoen alboan kokatzeko alde nago, kasu askotan, baina horrelako gertakarien aurrean ez. Badakit baita, zuzenbide konparatuaren mailan honelako legeak aurretik bazeudela, baina lege asko moduan, interes sozialik gabeko edukia dute, edo gai utopikoak dira behintzat.

Ebaluazio printzipioak

Aipaturiko 19/2013 Legeko III. Tituluan **Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua** arautu egin zen. Organo honi esleituz “administrazio publikoaren jardunean gardentasunaren kultura sustatzeko, publikotasun aktiboko betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gobernu onaren xedapenak betetzen direla bermatzeko eskumenak” (19/2013 Legea, Hitzaurrea eta 34.art.).

2014. urtean **919/2014 Errege Dekretuak, urriaren 31koa, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren Estatutua** onartu egin zuen eta geroztik batzorde honek Legearen aplikazioak aztertzen ahalegindu da. Ebaluazio honen oinarrian, pasaden martxoan *Organo Konstituzionalen eta erregulatzaileen ebaluazio informea*⁶³.

Informe hau legean aitorturiko transparentzia ikertzeko xedea zuen baina metodologia konkretu baten faltan, Espainian CTGB-ak berri bat garatu behar izan du *Metodología de Evaluación y Seguimiento de la Transparencia de la Actividad Pública* (MESTA) moduan ezagutzen dena (CTGB, 2017, 5.or.).

MESTA osatzen duen txostenak⁶⁴ -bere xedean azaleratzen duen moduan- 19/2013 Legeak ezarririko transparentzia betebeharrak neurtzeko dago, Legearen jarraipena eta ebaluazioa eginez (OAPM, 2016, 14.or.). Transparentzia harresi moduan kontsideratzen dudana heinean, hura neurtu dezakeen metodologia honi buruz hitz egin nahiko nuke.


MESTA 19/2013 Legean aipaturiko hiru ardatzetatik bi ditu aztergai: gardentasuna eta informazioa publikoa eskuratzeko eskubidea. Lehendabizikoan interesa ezarriz, **publikotasun aktiboa** da metodologia honek ebaluatzen duen fenomeno nagusia, zeinek metodologia osatzen duen txosteneko hirugarren kapituluan, neurketa-metodologia horri buruz mintzo den.

Publizitate aktiboa, 19/2013 Legearen II. Kapituluaren araututa dagoen printzipio batzuen oinarrian egituratzen da, hauek dira besteak beste: “jarduera publikoaren funtzionamenduaren eta kontrolaren inguruan egiten duten jardueraren gardentasuna bermatzeko beharrezkoa den informazioa eguneratua” izatea (5.1.art.); “argitaratutako informazioa eskuragarria, kalitatezkoa eta elkar eragiteko eta berrerabiltzeko modukoa” izatea (5.4.art.); “informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa” izatea (5.5.art.). Hala ere, guztia orokortuz, publizitate aktiboaren kontzeptuaren barnean hiru ezaugarri aldarrikatzen ditu txostenak: informazioaren argitaratzea; informazioaren osagarriak eta webgunea (8. Grafikoa).

⁶³ CTBG (2017). *Informe de evaluación de los órganos Constitucionales y reguladores. Órganos constitucionales y de relevancia constitucional y entes reguladores*. Madril.

⁶⁴ OAPM (Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) (2016). *Metodología de evaluación y seguimiento de la transparencia de la actividad pública*. Amaierako informea. Madril: AEVAL.

8.Grafikoa. “Publikotasun Aktibo” kontzeptuaren osagarriak.



Iturria: (euskarara itzulia) OAPM (Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) (2016). Metodología de evaluación y seguimiento de la transparencia de la actividad pública. Amaierako informea. Madril: AEVAL, 22.or.

Datu hauek, azaletik ikusita, informazio gutxi ematen dute gure jardunean, baina MESTA zer den eta zer ez den argi azaldu daiteke. “Diseinu honek Legearen edukiaren balorazioa egitea ez du helburu, ezta erakunde desberdinen webguneen kalitatea, baizik eta, Gardentasun Legean azalduriko beharrezko informazio eta baldintzak betetzen diren edo ez erabakitzeko erramintak eskaintzea.” (OAPM, 2016, 14.or.).

Sistema penitentziarioren gainean egin nahi dudana analisian martxoko informeak agian ez du zuzeneko laguntzarik eskaintzen, baina emaitzei edo eginiko lana ikustea gomendagarria da. Hurrengo kapituluetan aztertuko diren informazio multzo desberdinei begira laguntza partziala eskaintzen dutela esan dezaket, gardentasun joera dagoen edo ez aztertu daitekeelako, ez ordea informazio publiko horrek duen kalitate edo balio maila.

Espainiako instituzio penitentiarioak

2016. urtetik geroztik, organo eta erakundeen ebaluazioa egiten hasi zen kontseilu honek. Aipaturiko informeak ebaluazioaren emaitzak barne-biltzen ditu eta erakundeko memorieta protagonismoa hartzen dute (CTGB, 2017, 6.or.). Baina zeren oinarrietan egiten da ebaluazioa? Zeintzuk dira kontsideratzen diren beharrezko baldintzak?

19/2013 Legearen arabera, funtsezko betebeharrak dira “erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa” (6.art.) -antolamendu-egiturak, funtzioak...- ; eta “ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioari” buruzkoa (8.art.) -kontratuak, hitzarmen zerrendak, aurrekontuak...-. “Garrantzi juridikoko informazioa” (7.art.) ere aipagarria da, nahiz eta nahitaezkoa ez izan, bertan instrukzioak, lege-aurreproiektuak edo erregelamendu-aurreproiektuak argitaratzeari buruz aipatzen da.

1.Taula. Betebeharren betetze indizeak 2017 martxoaren informean argitaratuak.

Zenbakia	Organismoa	Betebeharren betetze indizea (0-10)
1	Konstituzio Auzitegia	9,83
2	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	9,70
3	Espainiako Bankua	9,43
4	Errege Etxea	9,42
5	Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala	9,39
6	Arartekoa	9,31
7	Ardura Fiskalaren Aparteko Boterea	9,28
8	Kontu Auzitegia	9,27
9	Segurtasun Nuklearraren Kontseilua	9,13
10	Senatua	8,62
11	Balore Merkaturaren Batzorde Nazionala	8,50
12	Diputatuen Kongresua	8,33
13	Estatu Kontseilua	6,16
14	Estatuko Fiskal Nagusia	5,66
15	Kontseilu Ekonomiko eta Soziala	5,42

Iturria: (euskarara itzulia) CTBG (2017). Informe de evaluación de los órganos Constitucionales y reguladores. Órganos constitucionales y de relevancia constitucional y entes reguladores. Madrid, 10.or.

1. Taulan agertzen diren erakundeak hitzaurrean aipatzen den “administrazio publiko, botere legegile eta judizialeko organoak [...] eta konstituzioaren eta estatuaren arabera bestelako organoetatik”, hamabost bakarrik dira ebaluatu direnak. Egia da honelako balorazioak oso berriak direla eta oraindik lan gehiago egin behar dela, hala ere harritzen nau kontseilu honek harturiko kriterioa organo hauek aukeratzeko unean. Etorkizunari begira baita, honelako emaitzen edo indizeen maila aipatzekoak dira, bostik beherako organismoak ez baitago.

Informarearen gaineko analisi bat eginik, lehenik esan beharra dago erakundeen webguneen analisia dela honen oinarria. *Ranking* honen lehendabiziko postuan dagoen Auzitegi Konstituzionala hartzen bada, ekarri daitezkeen ondorio batzuk hauek dira (besteak beste): web atariko lehendabiziko “pantailan” transparentziari zuzenduriko *banner* bat dagoela; informazioa hizkuntza desberdinetan irakurtzeko aukera eskaintzen duela; informazio instituzionala argitaratuta duela; organizazio eta planifikazio informazioa publikoa dela; informazio ekonomiko, estatistiko eta aurrekontuei buruzkoa badagoela edo; garrantzi juridikoa duten datuak ere badaudela (CTBG, 2017, 29-31.orr.).

Informe hori irakurri ondoren kriminologo batek egin dezakeen lehendabiziko galderetako bat zera izango zen: honelako analisia erakunde penitentiarioen webgunean egingo balitz zer nolako emaitzak lortu lirateke? Gardena da benetan webgune honen joera?

Egia da sistema penitentiarioen arrastorik ez dagoela transparentzia ebaluazio honetan. Agian Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluarentzako arduradunei ez zaie ardura edo garrantzi handiko eremu bat iruditu, baina jakin daitezkeen moduan, bakoitzak bere eremura mugatzen du guztia. Honen webgunearekin Auzitegi Konstituzionaleko webgunearen gainean egineko analisi berdina egingo bagenu, transparentziaren *banner*-aren presentzia eza ezaugarriarik adierazgarriena izango litzake (1. Irudia). Bestetik, hizkuntza desberdinen erabilera ere presente egongo zen nahiz eta dokumentuetan horren aldeko apustua ez den hainbeste egiten. Instituzio, organizazio eta planifikazio informazioaren presentzia ere egongo zen, baita estatistika edo garrantzi juridikoko dokumentuak.

1. Irudia. Erakunde penitentziarioen webguneko hasierako pantaila.

Bienvenidos - Beningutsa - **Doitu** - Benvidos - Welcome

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DEL INTERIOR SECRETARÍA GENERAL DE INSTITUCIONES PENITENCIARIAS

Direktoria Harremanak Mapa

Buscar

Hasiera Espetxe-administrazioa Espetxeak Berreziketa eta gizarteratzea Espetxeetako bizitza Inguru irekia Zigor eta neurri alternatiboak Prensa bulegoa Dokumentu funtsa

Portadan

Presupuesto del Ministerio del Interior para el año 2013
Asciende a 7.214,26 millones de euros, lo que supone un descenso del 6,33 % respecto a 2012. Es uno de los ministerios menos afectado por las medidas de austeridad

Instituciones Penitenciarias espera superar este año los 1.273 presos que cursaron estudios en la UNED en 2012
Estremera, escenario de la conmemoración del 30 Aniversario del Programa de Formación en Centros Penitenciarios de la Universidad a Distancia

Albiste gehiago

Castellón II espetxea

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua
"Zigor askatasun-gabetzaileek eta segurtasun-neurriek berreztea eta gizarteratzea dute helburu..."

Gehiago

Lasterbideak

Familiartekoak eta lagunak
Oposizilogileak / hautagaiak
Erakunde laguntzaileak

MINISTERIO DEL INTERIOR TPF

Berritasunak

Premio Victoria Kent
Convocatoria del Premio Victoria Kent 2016

The Spanish Prison System

Espetxe-Zentroetarako garraiobideetako gidaria
2014

Espetxeak

Izena
Edozein (molaren eta probintziaren arab)

Mota
Espetxe guztiak

Probintzia
Guztiak

Bilatu

Espetxeetako estatistikak Deialdi irekiak Eskaintzak Egoitza elektronikoa Bisiten aurretiko hitzordua Subvenciones

Espetxe-administrazioa Espetxeak Berreziketa eta gizarteratzea Espetxeetako bizitza Inguru irekia Zigor eta neurri alternatiboak Prensa bulegoa Dokumentu funtsa Direktoria Harremanak Mapa Erabilerraztasuna

2009 Secretaría General de Instituciones Penitenciarias - Ministerio del Interior - Gobierno de España

MINISTERIO DEL INTERIOR TPF W3C WAI-AA WCAG 1.0

Iturria: Erakunde penitentziarioaren webgune ofiziala. 2017ko apirilaren 21ean kontsultatua.

Beharrezkoa da lan honen testuingurura ekartzea honelako gardentasun politiken zereginak? Honi erantzuna emateko lehendabizi instituzioaren oinarria nola gauzatzen den ezagutu eta azaldu behar da eta ondoren hainbat galderei erantzun. Merezki dute Lege honekin erlazioan ikerketa bat egitea? Beste modu bateko analisisia egin beharko zen? Zein da biderik egokiena?

Zigor instituzioak Barne Ministerioaren eskutan dauden erakundeak dira. Hortaz Gobernuaren ardura dela esan daiteke erakunde hauen kudeaketa. Gardentasun Legearen aplikazio-eremu dela aitortu daiteke hortaz, Legen honen 2. artikulua aipatzen duenaren arabera. MESTA bezalako ebaluazioa egitea aplikagarria izango zen ondorioz.

9. Grafikoa. MESTA metodologia oinarrietako atala gardentasunari buruzkoa.

PUBLIZITATE AKTIBOAN OINARRITURIKO GARDENTASUNAREN BETEBEHARRAK				
INFORMAZIOA	INFORMAZIOAREN ARGITARETZA		WEBGUNEA	
	IRIZPIDEAK	KALIFIKAZIORIK ALTUENA	IRIZPIDEAK	KALIFIKAZIORIK ALTUENA
	Argitaratzen denarena edukia	100 PUNTU	Eskuragarritasuna	100 PUNTU
	Argitaratzen denaren forma	100 PUNTU	Egituratua	100 PUNTU
	Argitaratzen denaren aktualizazioa	100 PUNTU	Argitaratze lekua	100 PUNTU
	INFORMAZIOAREN OSAGARRIAK		<i>Banner</i> -aren presentzia	100 PUNTU
	IRIZPIDEAK	KALIFIKAZIORIK ALTUENA		
	Eskuragarritasuna	100 PUNTU		
	Argitasuna	100 PUNTU		
	Egituratua	100 PUNTU		
Berrerabiltzea	100 PUNTU			

Iturria: (euskarara itzulita) OAPM (Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) (2016). Metodología de evaluación y seguimiento de la transparencia de la actividad pública. Amaierako informea. Madril: AEVAL, 23.or.

Gardentasuna aztertzeke aukera bat da aipaturiko metodologia (9. Grafikoa), hala ere honek ikertzen ez dituen esparruak dira benetan interesatzen zaizkidan elementuak: kalitatea eta balioa bereziki, transmitituriko informazio maila barne.

Ondorengo hiru kapituluetan jarraituko dudak kriterioa lineala izango da hiru kasuetan: kapituluetan zehar orokorretik konkretura joanez, ematen den informazioa zein den aztertuko dut; ondoren aukeraturiko dokumentu bakoitzaren mamiaren sintesia eta; amaitzeko, konklusioetan ikerketa sakonena egingo da, hiru ardatz izango dituenak (alde onak, alde txarrak eta hobetu beharreko eremuak).

5. NAZIOARTE MAILAKO IRUDIA: PROPAGANDA?

“Transparentziaren gizartea informazioaren gizartea da. Zentzu honetan, informazioa, transparentziaren fenomenoa da, negatibitate osoa falta zaiolako. Interpretazioa positiboa da, operazioetan oinarriturikoa.” (Han, B.C., 2016, 77.or.)

Globalizazioak itxurakeria eta norberaren irudiaren gaineko zainketa geroz eta ohikoagoa izatea ekarri du. Sare sozialetan argitaratzen duguna -errealitatea bai edo ez izan- honen adibide argienetako bat da. Erakunde publiko eta pribatuen artean ere *irudi ona* emateko interesa oso zaindua dago baita. Espetxe-erakundeak ez dira atzean gelditzen eta organismoa diren heinean “gizarteari saltzeko” betebeharra daukate.

Nazioarte mailan proiektzio baten alde egiten da ondorioz. Gainontzeko herrialdeen aurrean sistemaren funtzionamendu apartekoa erakutsi behar da, alde onak alde txarrak baino gehiago dira eta guztien onerako ezkutatu beharko aspektuak daude beti. Espainiar estatuan arlo penitentiarioaren kasuan berdina egiten da? Harritzekoa dirudien arren erantzuna ezezkoa da.

Zuzenbide konparatua edo soziologia konparatua desberdintasun eta konparazio beharren adierazle bihurtzen dira. Iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen kultura eta gizartea desberdina den heinean, haien irudia zaintzean teknika desberdinak izanen dira. Ez dakit zergatik, baina beste behin ere, instituzio honek duen joera berezia da.

Interes berezia jarri diot 2014. urtean erakunde penitentiarioek argitaraturiko txosten bati⁶⁵, aktualizatua ez dagoen arren, sistema penitentiarioaren irudi internazional bat emateko helburua dauka (eta asmo horrekin eginiko dokumentu gutxi daude egia esan). Oso lagungarria da nire aburuz ikustea nola proiektatzen den organismo hau, horretarako bertan argitaraturiko informazioaren laburpena egiten ahaleginduko naiz. Bertan dagoena, nola dagoen eta zer modutan transmititzen aztertzen eta, ondoren aztertuz zeintzuk diren dokumentuaren alderik sendoenak, ahulenak eta hobetu beharrekoak.

⁶⁵ BARNE MINISTERIOA (2014). *The Spanish Prison System*. Madril: Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia.

Proiektzio globalaren noranzkoa

Gaztelera munduko bigarren hiztun kopuru handiena duen hizkuntza da, hala ere teknologia eta harreman zabalaren munduan ingelesa da informazioa transmititzeko erabiltzen den hizkuntza nagusienetako bat. Instituzio bat nazioarte mailan ezaguna izatea nahi duenean beraz, ingelesaren bidez transmititzea estrategia egokiena dela dirudi. Hortaz informazioa hizkuntza honetan helaraztea ohikoa izan beharko zen.

Transparentzia legeek informazio eskubidea bermatzen duten heinean, interesa duten dokumentuen zabaltzea bultzatu dezakete. Ikusi dudaren arabera, ordea, Espainiako gardentasun legeak (agian mundu mailako beste herrialdeetako legeekin batera) informazioa eskura edukitzea hiritarren eskubide bat dela bermatzen duten heinean, ez dute ardura handirik jartzen espantsio horretan, hau da informazioa globalizatzeko joera horretan.

Lan honen testuinguruan, sistema penitentiarioaren webgune ofizialera jotzen badugu, hizkuntzen aukerei dagokionez, herrialdeko hizkuntza ofiziala (gaztelera) eta koofizialak (katalana/valentziera, euskara eta galiziera) aukeratzeko aukera ematen digu, hauekin batera ingelera ere izanen. Argitaraturiko informazioari dagokionez ordea, dokumentu oso gutxi daude: informe guztiak gazteleraz daude, jurisprudentzia, dokumentu penitentiarioak, instrukzioak eta zirkularrak baita. Egia da proiektzio internazionala dokumentu guztiek ez dutela, interesa batzuk beste batzuk baino gehiago ematen dutelako, hauetako batzuk urteroko informeak izan daitezke baina kasu honetan ere, gazteleraz solik daude.

Gutxiengoa diren ingeleseko dokumentu bakarrak bi dira: “*The Spanish Prison System*” (2011 eta 2014 urtekoak) eta “*La Prisión Paso a Paso*” (2010 urtekoa ingeleraz, frantsesez, errumanieraz eta arabiarraz dagoena). Alde batetik, ondoren ikertuko den 2014ko txostena dago, instalazio eta zeregin penitentiarioen *irudi idealizatua* dena azken finean eta; bestetik, hainbat hizkuntzetan dagoen dokumentua Zentro Penitentiarioen informazio orokorra atzerritarren diren presoek ematea xede duena⁶⁶.

⁶⁶ BARNE MINISTERIOA (2010). *La Prisión paso a paso*. Madril: Espainiako Gobernuak, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia. Dokumentu honek ematen duen informazioa organizazio, komunikazio aukerak, eskubideak eta betebeharrak edo espetxeko bizitzari buruzkoa da besteak beste (2010, 5.or.). Hizkuntza hauek atzerritar populazioaren hizkuntzekin bat datorrela esan beharra dago.

“El Sistema Penitenciario Español”

2014. urteko txosten honek, organizazio penitentiarioaren ikuspegi orokorra eta barne funtzionamenduari buruzko informazio ematea du helburu. Bi hizkuntzetan argitaraturikoa da (gaztelera eta ingelera) eta 52 orrialde ditu. Bere edukia ondorengoa da laburbilduz:

2.Taula. Txostenaren aurkibide edo gai nagusiak..

1. AURKEZPENA
2. MARKO JURIDIKOA
3. HELBURU ETA PRINTZIPIOAK
4. ORGANIZAZIOA ETA OINARRI ADMINISTRATIBOA
5. GIZA BALIABIDEAK
6. ZENTRO MOTAK
7. POPULAZIO PENITENTZIARIOA
8. PRESOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK
9. ZENTROEN TRATAERA PROGRAMAK
10. LAN PENITENTZIARIOA
11. LANBIDE MUNDURA SARTZEA ETA LAN FORMAZIOA
12. ARAUTURIKO HEZKUNTZA
13. HEZIKETA ETA KULTURA PROGRAMAK ETA PROGRAMA OKUPAZIONALAK
14. KIROL PROGRAMAK ETA PROGRAMA FISIKOAK
15. OSASUNA
16. ASKTASUNA MUGATZEN DUTEN ZIGORREN ZIGOR ETA NEURRI ALTERNATIBAK
17. BOLUNTARIOTZA SOZIALA
18. JARDUERA PENITENTZIARIOEN KONTROLA

Iturria: (euskarara itzulia) BARNE MINISTERIOA (2014). The Spanish Prison System. Madril: Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia, 10.or.

Eduki hau aztertzen bada, txosten honen proiektzioa somatu daiteke, presoek eskubide eta haien esparruetara begira kokatzen dena gehienbat (7. ataletik 17. atalerako gaiak hori erakusten dute). Hala ere, nahiz eta dokumentuak hasieratik Espainiar Konstituzioko 25.2. artikuluari orrialde oso bat eskaintzen dion, errealitatea da presoak garrantzi txikia dutela. Tesi hau arrazoitzen duen froga bat txostenaren irudiek erakusten dute: 65-70 irudietatik ia erdia instalazio penitentiarioaren esparruak erakusten dituzte, presoek protagonismoa heren batean hartuz soilik.

Txostenaren **aurkezpenarekin** batera, aipaturiko **presoen birgizarteratze, berreztea eta eskubideari** buruz hitz egiten duten atalak daude eta **arabide eta oinarri administratibo penitentiarioari** buruzkoak. Fokoa hortaz bi gai nagusitara bideratu daitezke: espetxeak eta presoak (10.grafikoa).

10.Grafikoa. 2014 Txostenaren gai nagusien sintesia.



Iturria: Elaborazio propioa

Gai hauek oinarri moduan hartuz, honelako sintesia egin daiteke aipatzen diren aspektu garrantzitsuenetatik:

ESPETXEA

Organizaioa eta Funtzioak

3. Helburu eta Printzipioak

-Espainiako Konstituzioak eta Sistema Penitentziario Lege Organikoak espetxe sistemaren helburuen artean epaileek ezarritako zigorraren betetzea bermatzea, presoek kustumak arduratzea eta hauen integritatea bermatzea dute.

-Birgizarteratzea helburu nagusia izanda, lan eta hezkuntza baliabideak eskaini behar direla dio txostenak, etorkizunari begira bitzta berri batera aurreratu egiteko.

-Sistemaren printzipio nagusiak ondorengoak dira: indibidualizazioa, graduen progresioa; tratamendu penitentziarioa; zigorraren betetzea presoak erro-sozialak dituen lekuan eta; kanpoko munduarekin erlazioak izatea.

4. Organizaioa eta Oinarri Administrazioa

-Barne Ministerioaren kompetentzia da politika penitentziarioaren gestioa, berezitasuna izanen Kataluniako erkidegoa, kompetentzia propioa duelako.

Langileak

5. Giza Baliabideak

-Txostenak adierazten du sistema penitentziarioan lan egiten duten profesionalak lan erabakigarria dutela politika penitentziarioaren garapenean eta barneratuen birgizarteratzean.

-“Birgizarteratzea helburu duen sistema penitentziario batean, kualifikaturiko eta inplikazio maila altuko profesionalen taldeak edukitzea ezinbestekoa da”

-Langile publikoak arloaren arabera ondorengoak ziren 2014. urteari erreparatu: zuzendaritza (384); tratamendua (1358); osasungintza (949); bigilantzia (15422); administrazioa (4260).

-Gero eta plaza gehiago daudela dio Barne Ministerioak gaur egun modernizazio eta infraestruktura planak berrien ondorioz.

-Sistema penitentziarioan lan egiten duten profesionalak ondorengoak dira: Juristak, psikologoa, hezitzaileak, langile sozialak, osasun langileak, soziologoak eta barne eta bigilantzia pertsonala.

Instalazioak eta Zerbitzuak**6. Zentro motak**

-2014. urtean Estatuko Administrazio Orokorrean (Katalunia kontuan hartu gabe) ondorengo zentroak zeuden: 68 espetxe; 2 ospitale psikiatriko-penitentiario; 32 gizarteratze zentro; 3 amei zuzenduriko zentroak eta 14 agindupeko unitate.

-“Zentro berrien kokagune geografikoa estatuko eskualde bakoitzaren premiak erantzuten ditu, ondorioz barneraturiko pertsonaren jatorrian kondena betetzeko arazorik ez dago”

-Espetxeak (*Centros Penitenciarios Ordinarios*): diseinu berriko zentroak egiten hasi zirela aipatzen du txostenak, esanez zerbitzu guztiak eskaintzen dituzten lekuak zirela.

-Gizarteratze zentroak (*Centros de Inserción Social, CIS*): erregimen irekiko zigorra duten edo birgizarteratze prozesuan daudenei zuzentzen zaie. Teknologiaren erabilera aurrerapauso garrantzitsua izan dela aipatzen du txostenak “askatasun eta gizarteratze gehiago eta gizarteak eskaturiko segurtasunaren aldeko apustuak uztartuz”.

-Amei zuzenduriko zentroak (*Unidades de Madres*): Konstituzioak aitortzen du seme-alabak hiru urte bete arte kustodia izan dezaketela amak diren presoak. Hauek umeei begiratuta dauden zentro bereziak dira.

-Ospitale psikiatriko-penitentiarioak (*Hospitales psiquiátricos penitenciarios*): egotzi ezin diren pertsonak daude bertan. Diziplina anitzeko profesionalak dira hauen arduradun: psikiatrak, psikologoak, medikuak, langile sozialak, hezitzaileak... Baldintza aipagarriena da, honelako estantzietan egoteko eskubidea zigorra betetzean bukatzen dela.

-Agindupeko unitateak (*Unidades dependientes*): bereizgarriak dira eta bitarte irekiko zigorrak ditu oinarritzko elementu. Txostenak aldarrikatu egiten du bereziki umeak dituzten amei zuzendurik dagoela, baita lotura familiarrik gabeko gizonei. GKE-en esku daude.

9.Zentroen trataera programak

-Berreztea eta birgizarteratzera zuzendurik daude eta programa desberdinak hartzen ditu bere baitan, txostenak honako hauek aipatzen ditu: familia eremuko erasotzaileak; eraso sexualen kontrola; atzerritarrak diren biztanleri penitentiarioa; suizidio prebentzioa; desgaitasuna duten pertsonak; erregimen itxiko departamenduetan dauden presoak; gazteekin interbentzioa; animaliekin lagunduriko terapia; gatazken konpontzea; emakumeei zuzenduriko programa; gaixotasun mentala dutenen atentzio integrala; irtete baimenak prestatzeko programa; tabakismoa; edari alkoholikoen ez-ohitze programak; errespetu moduluak eta; modulu terapeutikoak.

-18 Jarduera penitentiarioen kontrola

-Administrazio penitentiarioaren kontrola hiru sektore erakunde-eremuen betebeharra dela dio txostenak.

-Kontrol Judiziala: zuzenbide prozesalaren barnean epaitegi berezia dago (*Juzgados de Vigilancia Penitenciaria*) zigorren exekuzioa eta pertsonen eskubideak babestea helburu duena.

-Arartekoa: barneko pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatzen direla bermatzea du xede.

-Kontrol politikoa: Gobernuaren kontrolaren barnean dago, kontrol parlamentarioa Gorteen eskuetan egonez baita nazioarteko organoetan.

PRESOAK

EK 25.2. artikuluak

2. Marko Juridikoa

-Birgizarteratze eta berrezte helburuak sistema penitentiarioaren giltzarri eta oinarri nagusienak direla azpimarratzen da.

-1/1979 Lege Organikoa osatzean, Europako Kontseiluaren eta Nazio Batuen aholkuak hartuz, eremu penitentiarioari autonomia aitortu zitzaiola azpimarratzen da, hona artikulua aipagarrienak izanen:

-1.art. Xede nagusia berreztea eta birgizarteratzea dira.

-3.art. Presoekiko errespetua, hauen eskubideak eta interes juridikoak babestea helburu nagusienetako bat da.

-6.art. Presoek tratatu txarrik ez dute jasango.

-26.art. Lana eskubide eta betebeharrak moduan kontsideratzen da (tratamenduaren mesederako).

-55.art. Presoaren hezkuntza eta formazioa bultzatzeko betebeharra.

7. Populazio penitentiarioa

-2013. urtean biztanleria penitentiarioa gutxitu egin dela aitortzen du txostenak: %2,3 gutxiago. Honen zergatia aurreko urteetan izandako erreforma penalak sorturiko ondorioa dela dio dokumentuak.

-2013-2014 inguruko populazio tasa 100.000 pertsonetatik 143 pertsona zen. Portugal, Frantzia eta Alemaniaren antzerakoak hauen arabera. 2014ko otsaileko biztanleria penitentiarioa 66.706 pertsona osatzen zuten.

-Presoen profila: ematen diren ezaugarrien artean, aipatzen da zapalduko inguruetako pertsona direla; formazio maila txikia dutenak; kualifikazio profesionala ez dutenak; analfabetismo maila altua da; lehen hezkuntza ez dutenak asko dira baita; atzeritarrek hizkuntza arazoak izaten dituzte eta; droga-menpekotasun maila altua izaten da.

-Emakumeen %7,6a ziren. Europako beste herrialdeak baino tasa handiagoa.

-Buruturiko delitu moten gehiengoa ondasunen aurkakoak, gizonen kasuan eta osasun publikoa emakumeen kasuan (2014 urteko datuak).

-“Espetxeratuaren profila ezagutzeak espainiar sistema penitentiarioak aurre egiten dien arazoak identifikatzeko laguntzen dute, honela estrategia berriak diseinatzeko aukera emanez eta birgizarteratzea lortzeko pauso aproposak eginez.”

16 Askatasuna mugatzen duten zigorren zigor eta neurri alternatibak

-“Arau-haustea bere komunitatetik aldentzen ez duten zigor penalak dira, kondenatua askatasunean dago hortaz eta ondorioz bere zigorra aske betetzen du. Hala ere baldintza eta/edo betebeharrak batzuk ditu inposatuta murrizketa batzuk ekarriz.”

-Neurrien artean: komunitatearen onurarako lana, zigorraren etetea, zigorraren ordezkatzeko eta segurtasun neurriak.

-Programa bereziak: erasotzaileen gaineko interbentzioa egiteko programak; bideko segurtasun arauetako buruzko programak; pentsamendu prosozialean enfokaturiko programak eta droga-menpekotasuna dutenen gaineko interbentzioa oinarri duten programak besteak beste.

Laguntza Sozialak

17. Boluntariotza soziala

-GKE-ak eta boluntariotza soziala paper garrantzitsua dute, bereziki birgizarteratzean.

-2012-2013 urteetan 799 erakunde; 1048 interbentzio programa eta 8499 kolaboratzaile parte hartu zuten sistema penitentiarioan.

-“Lan guzti hauek Kontseilu Sozial Penitentiarioak koordinatzen ditu, Kontseilu lokalekin batera, Espetxe arruntetan zein birgizarteratze zentroetan egon.”

Eskubideak eta Betebeharrak**8. Presoen eskubide eta betebeharrak**

-Gizakien eskubideak Konstituzioan bermatzen dira, LOPG horrekin bat egiten du, ondorioz administrazio penitentiarioa eskubideak urratzen ez direla arduratu behar da.

-Eskubideak (LOPG 4.art.): diskriminazio eza arraza, sexu, erlijio, iritzi, nazionalitate edo beste baldintza batengatik; bizitza, osotasun eta osasun eskubideak; duintasuna eta intimitatea bermatzea; eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalen eskubidea; erlijio askatasuna; tratamendu penitentiarioak izateko eskubidea; kanpo erlazioekin harremanak izatea; ordainduriko lana izatea; prestazio publikoen eskubidea; onura penitentiarioak izatea; zentroetako jardueretan parte hartzea; kexatzeko eta eskatzeko aukera eta informazio eskubidea haien egoerei buruz jakiteko.

-Betebeharrak (LOPG 5.art.): kolaborazio aktiboa eta jokaera solidarioa haien betebeharren betetzearekin.; zigorraren betetzea; konbibentzia ona; barne arauak errespetatzea; bertan gelditzea; materialak eta instalazioa errespetatzea; higie, garbitasun eta osasun-higie; prestazio pertsonalak betetzea, aktibitate formatiboak edo hezkuntza-, lan- jardueretan parte hartzea.

10. Lan penitentiarioa

-“Askatasun gabetzea [...] aukera bat bihurtu daiteke bazterketa eta marjinalitate istorioak bizi izan dituztenentzat”

-*Trabajo Penitenciario y formación para el empleo* (TPFE) delakoa da organo eskuduna.

-Ordainduriko lan produktiboa egiteko aukera eskaintzen da. Biztanleria penitentiariotik %40a honetan parte hartzen dutela aitortzen du Administrazio Penitentiarioak.

11. Lanbide mundura sartzea eta lan formazioa

-Lanbide heziketa planak daude, baita formazio eta lan-orientazio programak, komunitate zerbitzuak, gizarteratze konpainia programak...

-Adierazten da urtero batz besteko 700 ikastaro antolatzen direla eta 13.000 pertsona partehartzen dute.

12. Arauturiko hezkuntza

-Helduak diren pertsonen hezkuntza bultzatzen da eta ikasgela eta irakasleen kolaborazio da. UNED unibertsitateak unibertsitate ikasketak egiteko aukera ere ematen die. Izandako ikasle kopuruak: oinarrizko hezkuntzan 11.318 pertsona; bigarren mailakoan 4705 eta unibertsitarioan 1042.

13. Heziketa eta kultura programak eta programa okupazionalak

-Honelako programetan presoen parte hartzea eskatu egiten da eta hauen diseinuan modu aktibo batean jarduteko aukera ematen zaie. Horretarako haien interesak kontsideratzea garrantzitsua da.

14. Kirol programak eta programa fisikoak

-Honelako jarduerak ematen dituzten baloreen artean honako hauek daude: adiskidetasuna, kooperazioa, hobetzeko ahalegina egitea aurkakoarekiko errespetua eta arauan barneratzea.

15 Osasuna

-Bermatu behar da bizitza, osotasun eta osasun eskubideak.

-Osasun-hezkuntza programa eta jarduera desberdinek Praktika Onen saria jaso izan dutela aldarrikatzen da, Munduko Osasun Erakundetik.

Gardentasun azterketa

Txosten honen edukiak gai desberdinak jorratzen dituela argi ikusi daiteke, zaila da ondorioz begirada edo azterketa atal konkretu batera zuzentzea. Interesa ez da informazio kopurua, informazio mota desberdinak edo eremu anitzak erakustea, gardentasun analisi batean informazio horrek ematen duena eta ematen ez duena garrantzi handiagoa dute nire iritziz. Honela, ikertu behar dena galdera hauen eremuan egon behar da: Zer falta da eduki guzti honetan? Nola proiektatuta dago lana? Zer erakutsi nahi du txostenak? Zer edo zeintzuk dira txosten honen protagonistak? Zeintzuk dira alde onak, txarrak eta hobetu beharrekoak?

Kaxa beltzaren fenomenora itzultzen bagara sistema penala mekanismo bat kontsideratuz -non gizarte arazoen ondorioz zigor-politikak giltzarri bihurtzen diren-, kaxa argitzeko ahaleginak egin behar dira. Aipatu izan dut *paupecultura* fenomenoaren oinarrian *barraskiloak* hartu eta harresien beste alde ilunera eramaten direla, bertan barruan gertatzen denari buruzko ezagutza osoak ez izaneren. Hori bai, ondoren argi dago nola irteten diren pertsona hauek gizartera: barraskilo sare moduan hazi egin diren animaliak bezala.

Txosten honetatik (baita ikertuko diren gainontzekoetatik ere) beraz *zifra koloregabeari* kolorea emateko helburuz, gardentasunaren proiektzioan dauden jokabideak zein diren erakusten ahaleginduko naiz.

Objektibitatea galdu gabe, **alde positiboak** aipatu daitezke lehendabizi. Espainiako Konstituzio eta Sistema Penitentziarioaren Lege Organikoak protagonismo berezia dute dokumentu osoan zehar eta bertan arauturiko printzipio eta xedeen aipamen berezia nabarmentzekoa da. Adibidez, sistema penitentziarioak birgizarteratzearen eta berreztearen helburuak giltzarri nagusienak kontsideratzen dituztela diruri (EK 25.2.art.). Presoei errespetua, tratu txar eza edo hezkuntza eta formazioa bultzatzea, egiten diren aipamen positibo batzuk dira, erakusten baitute *animali* hauek gizatasun maila bat dutela, presoak pertsonak ere badirela.

Presoen eskubideen eta betebeharren eremuari atal berezia ematen zaio baita eta ondo dago ere ikusi daitekeen moduan, zentroak presoen beharretara egokitzeko ahaleginak egiten direla, baita programa-tratamendu erreperitorio anitza eskaintzen dela. Tratamendu esparru bereziak aipatu egiten dira besteak beste: lanbide mundura sartzera eta lan

formazioa, arauturiko hezkuntza, heziketa eta kultura programak, programa okupazionalak, kirol programak...

Nire iritziz ordea, aipatzen diren edukietatik boluntariora sozialaren garrantzia nabarmenduko nuke. Barne Ministerioak esaten duen moduan, hauen papera garrantzizkoa da birgizarteratze prozesuan, horregatik logikoa diru hauen presentzia urtez urte handiagoa izatea. Protagonismo garrantzia behar dutela esaten dutenen aldekoa naiz, interes soziala duten lana egiten dutelako, birgizarteratzeak behar duen interes bakarra.

Alde negatibo gehiago aurkitu izan ditut, kopuru handi bat informazioaren faltan oinarritzen dena. Zalantzak dira -nagusiki- informazio hauek sortarazten dutena, horregatik erantzunak eman ordez galderak botatzeko aukera daukat bakarrik, hauei erantzuteko ikuspegiak subjektiboak direlako.

Lana eta hezkuntza baliabideak eskaintzeak etorkizunari begira bizitza berri bateri aurre egiteko balio dute? Benetan erraztu daiteke modu honetan birgizarteratzea? Programatramendu asko daude, baina nora begira? Etsaiaren zigor zuzenbidearekin lotu daitezke txostenean aipamen berezia egiten denean eraso sexualen kontrolari eta atzerritarrak diren biztanleriari? Terrorismoaren gainean trataera bereziko programarik al dago edo aktuarialismoaren oinarrian arrisku maila altuena duten heinean, hauen birgizarteratzea ezinezkoa da?

Zergatik dauka Kataluniako erkidegoak kompetentzia propioa sistema penitentiarioen sisteman? Zergatik gure eskualdean ez dago horrelakorik? Zergatik daude ospitale psikiatriko gutxi eta amentzako zentro gutxi? Gehiago behar dira? Populazioa inboluzio demografikoaren eraginean geroz eta adineko pertsona gehiago ekarriko baditu, zein izango zen sistemaren erantzuna?

Kualifikazio eta inplikazio maila altuko profesionalak beharrezkoak badira zergatik ez da kriminologoen lana kontsideratzen? Birgizarteratze helburu nagusia bada, zergatik bigilantzia arloko profesionalak gehiago dira tratamenduen arduradunak baino? Beharrezkoa da zentroen modernizazioa eta infrastrukturen hobetzea? Langile gehiago beharrezkoak dira?

Espetxeek kontrol politikoa badute -Gobernuaren esku dagoena-, gobernu interesak, daude sistema honen atzean? Arartekoak presoen eskubideak bermatzeko ahalegin guztiak egiten ditu? Argia da bere emaitzetan?

Populazio penitentziarioa aztertzerako orduan biztanleria gutxitu dela dio txostenak eta arrazoiak ematen ditu, gainontzeko kasuetan ez ordea: Zergatik Espainiako preso-tasa altua da? Presoen profilaren gainean zer ondorioztatu daiteke? Emakumeen tasa zergatik da altua? Buruturiko delituen indizeak zergatik dira direnak?

Espetxeratuaren profilak ezagutzea arazoak identifikatzeko eta estrategiak bideratzeko balio badituzte, orduan zer? Zergatik ez da informazio guztia ematen, adibidez profilaren ezaugarriei loturik dagoena?

Zigor askatasun-gabetzaileen aurreko neurri alternatibak askatasuna bermatzen dute esan bezala? Murrizturiko askatasuna existitzen da? Teknologia benetan aurrerapauso bat da?

“Lan produkzioa” terminoa erabiltzea, zigorra, produkzioan oinarrituriko lan penitentziarioa zuzenduta dagoela ematen du adieraztera? Lan penitentziarioa marjinalitate eta bazterketa egoeran izan diren pertsonentzako *aukera* da?

Esan bezala, galdera guztiei erantzuna emateko aukera daukat baina hori ez da oraingo helburuetako bat. Galdera ikur gehiegi daude lan, dokumentu edo txosten garden batek izan behar dituenak baino, hortaz, ematen ez den informazioa ematen dena baino handiago da. **Hobetu beharreko eremuak** beraz puntu konkretu batzuetan finkatu beharko lirateke:

1. Txostenaren helburuak finkatzean, sistemaren oinarri diren aspektu guztiak kontsideratzea. Araubide eta oinarri administratibo penitentziarioen aldeko apustu handiagoa egin da txosten honetan presoen bizimodu, egoera eta eskubideen ordez.

2. Datuak ematen badira hauen zergatia ematea. Adibidez, populazio penitentziarioari buruz hitz egitean, presoaren profilaren ezaugarrien gaineko zergatiak ematea gardentasunaren aldeko posizio bat erakusteko aukera eman dezakete.

3. Informazioa nazioarte mailako kontestuekin konparatzean informazioa zehatza izatea. Konparaketan herrialde bakoitzak duen posizioa identifikatzean, goiko aldean edo beheko aldean egon, hori transmititzeko joera izan behar du.

4. Eremu jakin bateko informazioa ematen bada, interesa duten datuak ematea. Birgizarteratze programa, tratamendu eta jarduerak aipatzen badira, birgizarteratze hori gauzatzen den edo ez esatea oinarrizko informazioa izan behar da.

5. Praktika onen eta hobetu beharreko aspektuen aldeko apustua egitea. Gardena izan nahi bada, sistemaren alde onak eta alde txarrak azalaraztea beharrezkoa da. Konfiantza maila geroz eta altuagoa izango da, bakoitzak bakoitzaren ahuleziak identifikatzeko lehen pausoak egiten baditu.

6. IRUDI OROKORRA: MANIPULAZIOA?

“Espetxeak beharrezko zorigaitzak dira eta, ordea, askatasun-gabetzea suposatzen duten espetxe zigorren krisia eztabaida ezina da, seguruenik denbora luze batean horrelakoak izaten jarraituko beharko dute.” (LOGP, hitzaurrea, 1979)

Kanpora begiratu ordez barnera begiratzen badugu, estatuko hiritarrei zuzenduriko informazioak beste modu batekoa izan behar dela igarri dezakegu. Interesa kasu honetan, propagandetatik at dago, hiritargoaren mesedeetara zuzenduta egon behar direla esan daiteke. Kasu honetan beraz, nazioartean irudi ona ematea ez da xedea, baizik eta, espainiar estatuko biztanleriari erakustea sistema penitentiarioaren testuinguruan egiten den lana oso eraginkorra dela. Hau egiaztatzeko bideak ordea, ilunak izaten jarraitzen dute lan-esparrua oso mugatuta dagoelako.

Orain arte nazioarteko mailan eginiko jarduna edo erakutsitakoak, ez da oso gogobetekoa izan, niretzat behintzat. 2014. urteko txostenaren aurreko azterketa txikiak, Barne Ministerioarentzako munduko edozein hiritarrei zuzenduriko datuak interes berezik ez dutela erakusten lagundu dezakete. Hemen dugun egoera argitara ez da eman nahi, beste herrialdeen iritzi eta balorazioak ez dira entzun nahi ondorioz, honela aurrerapausoak egiteko oztopoa bihurtzen dira, datuak hutsak edo koloregabeak izaten jarraitzen dute.

Oraingo 2015eko Informe Orokorrak, urteroko informazio-lana jarraituz, administrazioaren jarduna erakustea du helburu. Testu hauetatik espero dena beraz, informazio eta datu ahalik eta gehiena jasotzea izango zen, hau da, hauen jardunean egiten den lanaren informazio publiko guztia argitaratzea.

Gardentasuna aztertzeko teknika propio bat erabiltzen ari naizen heinean, interes bereziko datuak aipatzea joera honen balorazioa egiteko nahikoak dira. Aurreko kapituluan jarraitu den kriterio berdinean, transparentzia falta dagoela baieztatu dezaketen zantzuak eman daitezke horrela.

Barrura begira

XXI. mendean geroz eta ohitura gehiago dago gainontzekoen ezaugarri eta egoerekin konparatzeko. Langabezia tasa, hezkuntza-uzte tasa edo lan soldataren batezbestekoa konparazio honen aldagaiak dira adibidez, munduko gainontzeko herrialdeekin alderatzen garen aspektuetako batzuk. Oso ohituta gaudela dirudi -hori da behintzat nire sentsazioa-, herrialdearen Barne Produktu Gordina Europa mailan altuetako bat jakitearekin esaten dutenean adibidez, hau entzun eta lasaitu egiten gara, begirada bertara zuzentzen dugu bakarrik.

Barrukoa konpondu beharra dago lehenago, besteen lekuan jartzea alegia. Kanpora proiektatzen dena zenbakiak dira bakarrik, ez da interpretazio sakonik egiten (gogoratu 2014ko Txostena), emaitza moduan gainontzeko herrialdeetako biztanleriak ez du modu zuzen batean jakingo hiritarrek pairatzen duten egoera haien eguneroko bizitzetan. Honi gehitu diogu -barneko kontestuan-, hiritarren kopuru handi batek apatia egoeran daudela diruditela, lokaturik, haien gertuko bizitzen at gertatzen dena ez zaie axola eta zerbaitek interesa izango balu, modu makro batean gertaturikoa izango zen.

Herrialde mailan -marko mugatu batean-, ematen diren datuak zehatzagoak izan behar dira hiritarrak zaindu behar baitira hauek informatuta mantenduz. Baina nola lortzen dugu guk gaur egun informazioa? Mass-mediaren edo komunikazio hedabideen papera hemen garrantzi berezia hartzen dute. Astero espetxeei buruzko zenbait albiste ezagutzen ditugu? Delituak burutzen direnean eta epaiketen prozesuari buruz hitz egin ondoren zer gertatzen da? Interesik al daukate epai irmoaren ondoren suertatzen diren gertakariak? Badirudi kondena ematen denetik arau-hauslea den pertsona espetxetik irteten den arteko denboran ezer gertatzen ez dela. Gainera arau-hausteak edo atxiloketei buruzko albisteak ematean, ez dira kazetariak ohartu pertsona hauen artean ezaugarri komunak badaudela? Benetan sinetsi dezakegu hutsegite hori?

Barnera ikusi beharra dago. Ahaleginak egin behar dira gure ingurunea ulertzeko eta gero proiektzio egoki bat egin hau aproposa iruditzen bada. Administrazio penitentziarioaren inguruan egoera berezia da esan bezala, nazioartean ematen den irudia ezagutzarik transmititzen ez duelako eta herrialde mailan situazio berdina gertatzen da herritarrekin: edo isilik gelditzen gara bertan, harresitik at, gertatzen denari buruzko susmoak izanen edo ezagutzeko interesik ez dago pizturik.

2015eko Informe Orokorra

Erakunde penitentiarioek urtero bere zereginen artean informe orokor bat plazaratzen dute haien webgune ofizialean. Oraindik, 2017. urteko apirilean, ez da 2016. urtekoa aurkeztu, horregatik 2015ekoa aztertuko dut. Bertan zerbitzu orokorren organigraman dauden zuzendariorde desberdinen datuak argitaratzen dira, biztanleria penitentiarioaren informazioari ere aipamena eginez (11. grafikoa).

11.Grafikoa. Sistema penitentiarioaren organigrama nagusia



Iturria: (euskarara itzulia) BARNE MINISTERIOA (2014). The Spanish Prison System. Madril: Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia., 17.or.

Dokumentuak 424 orrialde ditu, estentsio honekin azterketa-lan sakon bat atera daiteke, baina informazio iturri desberdinei so egiteak lanaren hipotesia indartzea lagundu dezake, txosten honen aspektu adierazgarrien laburpena aurkeztuko dut hortaz, ondoren hauen analisia ere eginez.

1. Biztanleria penitentiarioa

-2015. urtean 2014an baino 2.922 preso gutxiago egon izan ziren, %5,2ko jaitsiera izanen. Batezbestekoa 55.415 pertsonak osatzen zuten hauen %92,2a gizonak izanen eta gainontzeko %7,8a emakumezkoak. -30 egun baino gutxiago espetxeraturik egondako biztanleriaren artean, gizonen kasuan 31-40 (%32,3) eta 41-60 urteen (%34,6) arteko pertsonen osatzen zuten gehienbat eta emakumeen kasuan egoera berdina %34,5a eta %32,3arekin.

-Jatorriaren kasuan, %73,4a espainiarrak izan ziren eta %26,6a atzeritarak. Guztira 38.762 espainiar izan ziren eta 14.042 atzeritar.

-Egoera prozesalari dagokionez biztanleriaren %85,5a espetxe-zigorra betearazten zeuden eta %12,3a prebentziozko espetxeratzea. Azken kasu honetan, emakumeen portzentajea gizonena baino altuagoa da: %13,4a, %12,2aren aurrean.

-10/1995 Lege Organikoaren aplikazioaren indarrean zigorturikoak biztanleriaren %99,5ak osatzen dute.

	<p>-Indargabeturiko Zigor Kodeko delitu tipologia eta Zigor Kode berriaren delitu tipologia erakutsi aurkezten da txostenean. Azkenengo kasu honetan %35,3an ondarearen eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delituek osatzen zuten eta %22,7a osasun publikoko delituak gizonezkoen kasuan. Emakumezkoen kasuan, %39,4a osasun publikoko delituak ziren eta %31a gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delituak.</p>
<p>2. Kudeaketa eta Tratamendu penitentiarioaren zuzendariordetza</p>	<p>-Zigorturikoen zigor-graduaren klasifikazioaren gainean, 2. gradua preso gehiago zituena zen, 39.977 pertsonekin.</p> <p>-Irteera baimenen kasuan, baimen gehiago eman zirela adierazten du Barne Ministerioak 2015. urtean 2014.an baino (117.697 baimen 115.182 baimenen aurrean).</p> <p>-Zerbitzu penitentiarioen tratamendu programa desberdinak eskaintzen direla aipatzen da: familia eremuko erasotzaileak; eraso sexualen kontrola; atzerritarrak diren biztanleri penitentiarioa; suizidio prebentzioa; desgaitasun fisiko, sensorial, psikiko edo intelektuala duten pertsonak; erregimen itxiko departamenduetan dauden presoak; gazteekin eginiko interbentzioa; animaliekin lagunduriko terapia; gatazken konpontzea; emakumeei zuzenduriko programa; gaixotasun mentala dutenen atentzio integrala; irtete baimenak prestatzeko programa; tabakismoa; edari alkoholikoen ez-ohitze programak; errespetu moduluak; modulu terapeutikoak; portaera normalizatzekeo programa; joko patologikoen programa eta; haur pornografia programa.</p> <p>-Aipaturiko tratamendu programa hauen artean, errespetu moduluek batezbesteko pertsona kantitate altuenari zuzentzen zirenak ziren, 18.710 pertsonekin. Unitate terapeutikoak, gazteei zuzenduriko interbentzioek eta alkoholismo tratamenduek ere kantitate aipagarriagoa dute gainontzekoak baino.</p> <p>-Talde bereziak bezala identifikatuik banda armatuko kideak aipatzen dira 2015. urtean 457 pertsona barneratuak zeudela aipatuz. Talde organizatuen eta ezaugarri bereziko kasuetan igoera gertatu zen 2014. urtetik 2015ra 585 pertsonetatik 761etara</p> <p>-Atzerritarrak aipamen berezia ere egiten zaie. Biztanleri jaitsiera erakusten da, hala ere, 1.947 magrebtarrak dira eta 1.539 errumaniarrak. Delitu tipologiaren gainean igoera berezia ondarearen aurkako delituetan (2014 %27,88a – 2015 %28,59a).</p>
<p>(3. Kontrol telematikoa eta inguru irekia)</p>	<p>-13 Aparteko gizarteratze zentro; 19 menpeko zentro eta sekzio ireki zeuden 2015. urtean</p> <p>-Inguru ireki batera zuzenduriko programa desberdinak daude: gizarteratzekoak; errespetu moduluak; lan-inklusiozko programak; osasun programak; substantzia eta nahaste mentalekin erlazionaturiko programak...</p> <p>-Gobernuz Kanpoko Erakundeek kasuan, 2015. urtean 359 entitatek parte hartu zuten, 433 programekin eta 1.123 kolaboratzaileekin (2012-2013 urtean baino %21,6 gehiago).</p> <p>-GKE-en lana aztertuz, eginiko interbentzioetatik, 2014 - 2015 urteetan, gehienak zuzenduak osasun eta droga-mendekotasun programei (%34); lan barneratze programei (%23); hezkuntza eta formazio programei (%19) eta giza-integratzekei (%16). Beste aldetik, %1a interbentzioa dago soilik bitarteko penitentiarioaren komunikazio eta sentsibilizazio programetan.</p> <p>-Kontrol telematikoa batezbesteko adina 43koa da, %83,6a gizonak eta %16,4 emakumeak izanen.</p>

4. Osasun penitentiarioaren koordinazio zuzendariordeztza	<p>-Osasun arloan bi sarbide maila bereizten dira: alde batetik, lehenengo maila batean, erakunde penitentiarioetan jarduten den oinarritzko atentzioa; beste aldetik, atentzio berezia, ambulatorioa, ospitalekoa edo larrialdietakoa.</p> <p>-Bi ospitale psikiatriko daude Alacanten eta Sevillan.</p> <p>-Euskal Autonomia Erkidegoan konpetentzia propioa dago.</p> <p>-Prebentzio jarduerak: bigilantzia epidemiologikoa; txertatzeak; transmisio parenteraleko edo sexualeko gaixotasunen prebentzioa eta detekzioa; tuberkulosi prebentzio eta kontrola; osasunerako hezkuntza eta; ingurumen- higiene eta osasuna.</p> <p>-Diagnostiko prozedimenduak edo prozedimendu terapeutikoak: 16.775 interbentzioetatik, 6.219 errehabilitazio sesioak izan ziren.</p> <p>-Giza immunoeskasiaren birusaren infekzioari buruzko prebalentzia eboluzioan jaitsiera nabarmendu daiteke urtetik urtera, 2005ean % 10a izatetik, 2015an % 5,4a izatera heldu zen.</p> <p>-Tuberkulosi kasuak: 2015ean 80 kasu, 2014an baino kasu bat gehiago, baina 2005 urtearekin alderatuta (134) jaitsiera nabarmena.</p> <p>-C hepatitisaren birusaren infekzioari buruzko prebalentzia eboluzioan jaitsiera nabarmentzen da ere 2014. urtean %20a izatetik 2015ean % 19,5a izatera heldu zen.</p> <p>-Hilkortasun tasa: 155 hildako egon ziren, 147 gizonak izanen eta 8 emakumeak. Batezbesteko adina 47,8 urtekoa izan zen. Gehienak kausa naturalak (95), droga arazoengatik (42) eta buruaz beste (26) kasuengatik. Kasu gehienak (96) espetxeetan gertatu ziren, harritzekoa da medio telematikoen kasuan 2 buruaz beste egon zirela.</p> <p>-Droga kontsumoa: barneraturiko pertsonen %76ak barneratuak izan baino lehenagoko hilabetean drogak kontsumitzen zituela baieztatzen da. Biztanleria osotik % 35,9ak heroina eta/edo kokaina kontsumituz.</p>
5. Ordezko zigor eta neurrien zuzendariordeztza	<p>-2015. urtean ordezko zigor eta neurrien inguruko emaniko aginduak 82.178 izan ziren. Guztira artxibaturiko edo beteriko aginduak eta indarreko aginduak zenbaturik 140.292 agindu izan ziren (2014. urtean 144.479, progresioa gero eta txikiagoa).</p> <p>-140.292 aginduetatik, komunitatearen mesederako lanetan 121.647 eman ziren(%86,7a) eta zigorraren etete edo ordezkatze kasuetan 18.645 (13,3%).</p> <p>-Komunitatearen mesederako lanaren inguruan, neurri hauek aplikaturiko pertsonen gehienak bideko segurtasunari buruzkoak (%40,2), biolentzia matxista (%23,41), lesioak (% 10,7), bestelakoak (% 13,9) eta ondarearen aurkakoak (% 11,7) izan ziren.</p> <p>-Arlo honetan giza baliabideen erabileran: %30,52a funtzionario administratiboak dira; 19,36%a langile sozialak eta %13,43a psikologoak.</p> <p>-Programa berriei aipamena eginez, honakoak jarri ziren martxan 2015. Urtean besteak beste: “<i>Fuera de la red</i>” programa sarean hurrekin buruturiko delinkuentzia sexualari buruzkoa; “<i>PRIA-MA</i>” programa biolentzia matxistari buruzkoa; “<i>Cuenta Contigo</i>” programa droga-menpekotasun sentsibilizazioari buruzkoa; “<i>PROSEVAL</i>” programa bideko segurtasunari buruzko interbentzioa; “<i>PROBECO</i>” programa, gaitasun sozialen berreziketari eta sentsibilizazioari buruzkoa eta; “<i>Encuentro</i>” programa, neurri alternatiboen barneko familia biolentziaren interbentzioari buruzkoa.</p> <p>-Baldintzapeko askatasuna: 8.076 kasu egon ziren 2015. urtean (7.238 gizon eta 838 emakume).</p>

6. Giza baliabideen zuzendariordetza	<p>-Langile berrien sarbideei buruzko informazioa ematen da, oposaketak eta araubide desberdinak aipatuz.</p> <p>-Langile sindikatuei buruz, CSI-F, ACAIP-USO, CC.OO. eta UGT garrantzitsuenak dira.</p>
7. Zerbitzu penitentiarioen zuzendariordetza	<p>-Zuzendariordetza honen egitateen gainean: kontratazio espedienteen tramitazioa; gastuen aurrekontuak; ondasun higiezinak eta ekipamenduen administrazioa eta ondare kudeaketa; programa eta proiektuen exekuzioa eta jarraipena; instalazioen mantentzean behar diren informe eta kontrol tekniko guztien gauzatzea eta plan informatikoen elaborazioa eta exekuzioa.</p> <p>-Aspektu desberdin guzti hauei buruzko eragiketa monetarioak azaldu egiten dira sakonki.</p>
8. Ikuskaritza penitentiarioaren zuzendariordetza	<p>-Kexa eta iradokizunen urteko jarraipena: 2015. urtean guztira 405 kexa egon ziren, nabarmenenak honako hauek izanen: 75 leku, ingurune egoera edo altzariei buruzkoa; 18 langile publikoen kortesia eta hezkuntza faltei buruzkoa eta; 120 Espetxeetako komunikazio ukatzei buruzkoa.</p>
9. Instituzio- harremanen eta lurralde- koordinazioaren zuzendariordetza	<p>-Herri defendatzailea: instituzio honi zuzenduriko kexa gehienak osasungintzari (156), tratu txarrei edo erasoei (150), lekualdatzei (130) eta diziplinazko erregimen eta neurriei buruzkoak dira aipagarrienak.</p> <p>-2015an atzerriko delegazioen bisitak egon izan direla aipatu egiten du informea, nazioarteko erlazio hauen artean herrialde hauetako bisitak izanen: Errusiatik, Txiletik, Armeniatik, Turkiatik, Paraguitik, Filipinetatik, Kosta Ricatik, Italiatik, Namibiatik edo Koreatik besteak beste.</p> <p>-Eremu penitentiarioetan sistema penitentiarioari buruzko ikerketa eta lanen baimenei buruz, urte honetan zuzendariordetzak 123 ikerketa edo lan onartu zituela aipatzen da informean</p>
10. Lan penitentiarioaren eta lanerako formazioaren estatu erakundea	<p>-Lanerako formazio planak eta lan barneratzeak: plan desberdinen artean, zentroan lan egiteko formazio planeko programak, lan orientazio eta formazio planak, lan barneratze programa, “REINCORPORA” programa gizarte-lan barneratzeari buruzkoa, “SAL” programa lan barneratzearen akonpainamenduari buruzkoa, “ECOEMBES” programa eta “EMPRENDEDORES” programak daude.</p> <p>-2015. urtean 1.570 pertsonak hartu zuten parte eta hauetako %49,61a lan merkatura sartu ziren.</p> <p>-Lan penitentiarioa: espetxeetan burutzen diren jarduerak hiru multzo desberdinetan banatzen dira: ekoizpen propiorako tailerrak, zerbitzu tailerrak eta kanpoko enpresekin kolaborazioan buruturiko produkzio tailerrak.</p>
Eranskina	<p>-Aipamen berezia egiten zaio Araubide Penitentiarioari informe orokor honen azkenengo atalean.</p> <p>-Aipatzen diren arau aipagarrien artean: Lan penitentiarioaren eta lanerako formazioari buruzko 122/2015 Errege Dekretua; Zigor Kodea erreformatzen duen 1/2015 Lege Organikoa; Prozedura Penaleko Legean 13/2015 Lege Organikoa eta 41/2015 Legea besteak beste.</p>

Gardentasun azterketa

2014ko txostenarekin eginiko azterketa berdina jarraituz, kasu honetan aurkituriko alde negatiboen kopurua alde positiboak baino gehiago ere badira. **Alde positiboen** artean, ezaugarriak azpimarragarriena informazio eta datu maila altua da. Ezaugarri asko jorratzen dira eta emaitzak konparatzerako orduan urteetako eboluzioa aipatu egiten da ere momentu askotan.

Emaitzen aldetik, hauek erakusterako garaian grafikoaren erabilera nabarmengarria da ere. Administrazio penitentziarioaren organigrama orokorraren baitan, zuzendariordetza guztiei buruzko jardunen informazio ematen ahalegintzen da baita -osasun penitentziarioaren koordinazio zuzendariordetzaren alorreko datuak anitzak dira adibidez-.

Informe orokor honen estentsioak erakutsi dezake urteroko jardunen bilketa egiten gogor jardun egin dela Barne Ministerioa, hala ere bere akatsak erakusten ditu txostenak. Lehendabiziko arazoa, zuzendariordetza bakoitzaren jardunak batzean erabilitako kudeaketa hori da. **Alde negatiboen** artean, gardentasun arazo bat txostena irakurtzean emaniko sentazio nahasia da, zuzendariordetza bakoitzak jarduera desberdinak izan arren, atal batetik beste batera eginiko ibilbidean lotura falta nagusitzen da.

Zalantzak eta zergatik nagusitzen dira berriro txosten hau irakurri ondoren adibidez: biztanleria penitentziarioaren tasa-jaitsiera benetakoa da? Zer dago horren atzetik? Hau positiboa da?

Biztanleria penitentziariorik buruzko informazio guztia argitaratzen du Barne Ministerioak? Adin, sexu, jatorri eta egoera prozesalarekin konformatu behar gara? Zergatik ez da hezkuntza maila buruzko informaziorik ematen edo drogekin egiten den moduan, kondenatua izan baino aurreko hilabeteetan lan egoera eta egoera sozio-ekonomia azaltzen?

Delituen tipologiaren atzetik, ondarearen eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren eta osasun publikoaren aurkakoak gehien burutzen diren delituak izatea zer interpretazio ekarri dezakete? Egoera sozio-ekonomikoarekin eta droga-kontsumo mailarekin harremana izan dezakete?

Tratamendu desberdinen artean errespetu moduluek zergatik dute hainbeste partehartze? Zer esanahi atera daiteke hemendik? Zergatik ez da informean horrelako datuen arrazoiketa egiten?

Zergatik egiten da aipamen berezia terrorismo eta talde organizatuei? Atzerritarrei buruzko atal indibiduala ezartzen da ere, zergatik?

Aurreko urteekin alderatuz gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartze igoera positiboa da, hala ere hauen programak osasun eta droga-mendekotasunera (%34) eta lan barneratzera (%23) zuzendurik daude hein handi batean, honek badirudi hauen lanaren mugak erakusten dutela, edo, benetan osasuna eta lana dira birgizarteratzen laguntzeko esparru nagusienak?

Osasun arloan alde negatiboena agian hilkortasun tasa izan daiteke, hildakoen batezbesteko adina (47,8 urte) zergatik da hain baxua? Kausa naturalez aparte, droga eta buruaz besteak aipagarriak dira, zergatik? Kontrol telematikoen kasuan bi buruaz beste egon ziren eta datu txikia dirudien arren interpretazioak ekarri ditzake, benetan eraginkorrak dira honelako kontrol hain eguneratuak?

Droga kontsumoari buruzko datuak oso kezagarriak dira, barneraturikoen %76ak barneratuak izan baino lehenagoko hilabeteen drogak kontsumitu zituztela onartzen dutelako, beraz zer dago honen atzean? *Paupeculturaren* zantzuak egon daitezke? Marjinalitate egoeran dauden pertsonak dira kondenatzen direnak?

Komunitateen mesederako lanen arloan, ordezeko neurri moduan bide segurtasunarekin loturiko delituak erlazio zuzena daukate, arau-hauste mota honetako erantzuna bertara bideratzen delako askotan. Ondorioz, zergatik ez da berdina egiten delitu tipologia altuena duten kasuekin? Ondarearen aurkako delituen %11,7ak erantzun hau zuten bakarrik, zergatik?

Ordezko zigor eta neurrien prozesuan kriminologoen papera zergatik ez da kontsideratzen?

Kexa eta iradokizunen alorrean -non 2015. urtean 405 kexa izan ziren-, 120 kasu espetxeetako komunikazio ukatzei buruzkoak izan ziren, benetan eskubide bat dela esan daiteke ondorioz kanpo komunikazioa izateko eskubidea? Herri defendatzailearen kasuan, honek jasotako kexen atzeko arrazoiak nabarmengarriak dira, adibidez, osasuna

espainiar espetxeetan ondo zaintzen den alorra izanen, zergatik egon izan ziren osasungintzari buruzko 156 kexa?

Ikerketa profesionalen alorrean, eremu penitentiarioetan sistema penitentiarioari ikertu nahi izan duten profesionalen kasuan, onarturiko ikerketak 123 zirela aipatzen da, baina zenbatetik? Agian ezkutatu nahi dute oso gutxi onartu egiten direla? Interesa onarpen hauen atzetik egon daiteke?

Lan penitentiarioen eremua berriro aipatu egiten da. Lan merkatuan sartzen diren pertsonak ez dira %50ra heltzen. Hau garaiko krisiagatik dela interpretatu daiteke? Presoen espetxeetatik ateratzen pairatzen duten bazterketagatik? Edo bietatik? Beste sistema penitentiarioaren lan formazioa porrota moduan interpretatu daiteke?

Hobetu beharreko eremuen artean informazioaren transparentziari buruz atera daitekeen konklusioa aurreko txostenean emaniko kasuarekin antzekotasunak ditu, kasu honetan ordea hiritarrei begira, honakoak ematen ditut:

1. Aurkezturiko informazioaren zergatiak eta balorazioa egitea. Informazioa oso anitza eta zabala da, baina hau sistema eta organizazio penitentiarioaren alorrean gertatzen da bakarrik. Datuekin batera balorazioak eta interpretazio objektiboen falta da lan honetan nagusitzen dena. Barne Ministerioaren eta informea burutzen dutenen iritzia ezagutzea oso garrantzitsua da, eta haiek, frogekin, datu hauek baieztatzen badituzte zalantzak ekidingo lirateke.

2. Datu gehiagoren beharra. Esan bezala sistema penitentiarioaren kudeaketari buruzko informazio ondo landuta eta azalduta dago, ahala ere presoek buruzko ezagutza gehiagoren beharra argitaratu beharko zen. Beste behin ere, instalazioak eta sistemak protagonismoa hartu du bertan daudenen egoera azaldu ordez. Horra hor, aztertzen diren dokumentu guztiek duten akatsik aipagarrienetako bat.

3. Informazioaren kudeaketaren hobetzea. Badirudi zuzendariorde eta guztien txostenak batu egin direla, amaieran zatirik-zati eginiko emaitza aurkeztuz. Lan honen elaborazioaren oinarrian arazoak daude ondorioz, atal batetik beste atal batera salto kualitatibo asko baitaude.

4. Honelako informazioa ematerako orduan, profesionalen lana behar da.

Interpretazioak behar diren heinean, esparruarekin lotura eta ondo ezagutzen dutenen laguntza beharrezkoa da. Adibidez, kriminologoek lana diziplina anitzeko talde bat gidatzeko lagungarria izango zen ebaluazioak dituen informe bat egiterako orduan.

5. Praktika onen eta hobetu beharreko aspektuen aldeko apustua egitea.

Administrazioak barnera begiratzeko beharra dauka. Sistema penitentiarioaren Lege Organikoak bere hitzurrean espetxeak beharrezko zorigaitz bat direla onartzen duen heinean, zergatik ez du sistemak dituen alde txarrak erakusten? Zergatik ez ditu hobetzeko proposamenak ematen? Agian sistemaren araurik nagusienetako bat esaten duen moduan, denbora luze batean egoera berdina izaten jarraituko du, beraz, zertarako interesik jarri?

7. EGUNEROKO IRUDIA: NAHIKOA DA?

“Estatistika penitentiarioak gartzelaratzeko ‘prozesuari’ buruz gutxi esaten digute, soilik espetxeetako biztanleriari buruzko pintzeladak ematen dizkigute, ikuspegi desberdinetik eta leiar desberdinak erabiliz aukeratzen direnak” (Matthews, 2003, 136.or.)

Kapitulua honetan markoa gehiago zehazten bada, orain eremu konkretu batera begira sistema penitentiarioaren webgunean egunero daitezkeen datuak ikusi daitezke. Hauek gehien eguneratzen direnak izanen: estatistika penitentiarioak.

Administrazio penitentiarioaren ahulezia informazio gutxi izatea da kopuruari dagokionez eta zaharra denborari dagokionez. Noizean behin txosten berriren bat agertzen da, baina urteko informarekin batera, estatistika penitentiarioak interes gehien pizten duten eremua dira. Honek, ikerketak egiten dituzten profesionalak laguntza ematen die momentu-momentuzko “errealitatea” ezagutu ahal izateko, honela datuen arabera gora-beherak eta aldaketak neurtu daitezke. Egunero ematen den informazioa iritziak eta posizioak bideratzen ditu, informazioa jartzea eskubidea da eta horregatik horrelako plataforma publikoek honen alde egin behar dute bai edo bai.

Gardentasuna bezalako eremuak ordea betiereko aldaketa bide batean dirau, horregatik hobetzeak bata-bestearen atzetik daude beti. Kritikoak eta metodikoak izan gaitzake, baina sozialak diren esparruak minutu-minuturo aldatzen diren prozesuak dituzte. Gizartea astiro aldatzen den heinean, interpretazioak azkar aldatzen direla baieztatu daitezke gure interesak egunero aldatzen direlako.

Azterturiko aurreko txostenen edukia izan ondoren, orain estatistika-informazio hauen analisia egitea errazagoa da, informazio kopurua ez baita hain sakona. Ikuspegi eta interesen eraginengatik akaso, zehazturiko gai edo aldagai gutxi kontsideratu egiten ditu administrazio publikoak, beste esparru batzuetan egiten ez duten moduan, sistema penitentiarioak ematen duen eguneroko irudia mugatuta dago. Eta harresi horretatik ezin da inor goraino igo eta beste aldean zer dagoen ikusi, hor dago arazo nagusia, suposizioak errealitate izateko posibilitateak ez dakizkigula.

Hiritarrok eskura duguna

Hiritarrek sistema penitentiarioaren gainean duten interesa aztertzea lan oso interesgarria da, hala ere ibilbidearen geltoki honetan hiritarrek eskura duten informazioa non dagoen kokatzea da jomuga -nahiz eta informazio hau gutxiren interesean egon-. Informazio hau non kokaturik dagoen esatea beharrezkoa egiten da hortaz, nora bideratu daitekeen edozein pertsona eta zein den datu hauek duten eta eman dezaketen transmisio maila.

Datu hauek gaur egungo gizartean hainbat plataforma-erakundeen eskutik jaso daitezke: Gobernu Kanpoko Erakundeak presoek eskubideei eta espetxeen egoerei buruz lan handia egiten dutenak; espetxeetako langileen plataformak existitzen diren baita haien jardun eta eskubideak giltzarri dituztenak edo; ikerketa erakunde desberdinen lana aipatzekoa da ere besteak beste.

Hiritarrok kartzela sistemei buruzko informazioa izateko aukera maila altua daukagu baina bertan gertatzen denari buruzko egoera jakiteko iturria ez da izan behar den modukoa. Errealitatea, ezagutzen badugu -nork jakin hori posiblea den-, aipaturiko erakunde eta profesionalek eginiko lanetatik da eta ez administrazio publikoak argitaraturiko dokumentuek emanikoetatik. Hau, argitasun gabeko datuak transmititzen direlako gertatzen da, mezua nork ematen duen pertsona fisiko edo juridikoaren arabera objektibitatea galtzen duelako, zaila da hortaz irakurri daitekeena sinestea.

Hiritar baten kontestuan kokatzen bagara eta lan honetan ikusiriko egoera eta suposizioak ezagutzen ez dituela imajinatzen badugu, Administrazio Penitentiarioaren aldeko apustu bat hartuko zuen lehen urrats moduan. Hori ordea, ez da horrela gertatzen, administrazio publikoarenganako konfiantza maila altua ez dela pentsatu daitekeelako. Pertsona honek sistema penitentiarioak emaniko datuak aztertuko balitu beraz, zer esperoko zuen galdetu beharra daukagu: estatistika penitentiarioetan dauden datuak efizienteak dira? Bilatzen nuen informazio jasotzeko aukera izan dut? Informazio zabala eskaini dit plataforma honek? Gehiagoren falta somatu dut edo bertan agertzen denarekin nahi nuena ezagutzeko posibilitatea izan dut?

Estatistika penitentiarioak

Estatistika penitentiarioaren sekzioa webguneko dokumentuen atalean kokatua dago eta bertan, plataforma horretan bi eremu desberdinu daitezke: hileroko informazioa alde batetik eta bestetik asterokoa (2. irudia).

2. Irudia. Estatistika penitentiarioen kokagunea.

Inicio > Fondo Documental > Estadística penitenciaria

Mensual > marzo de 2017 >

DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN RECLUSA POR SEXO

No existen las estadísticas para la opción de búsqueda seleccionada

Nota: La media de población reclusa NACIONAL para el año en curso, va referenciada a la media de las semanas publicadas hasta la fecha. Con fecha 01-01-2012 entra en vigor una modificación metodológica en la fuente de datos de la Estadística de la Población Reclusa en el ámbito de la Secretaría General de Asuntos Penitenciarios. El Sistema de Información Penitenciaria sustituye a los cuestionarios estadísticos cumplimentados por los Centros Penitenciarios

Estadística penitenciaria

Mensual

Última estadística mensual

Ambito: Total Nacional

Año: 2017 Mes: marzo

Tema: Población reclusa por sexo

Buscar

Penas y Medidas Alternativas.

Semanal

Última estadística semanal

abril 2017

L	M	X	J	V	S	D
						1 2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Tema: Por sexo y administraciones

Buscar

Iturria: Erakunde penitentiarioaren webgune ofiziala. 2017ko apirilaren 21ean kontsultatua.

Eremu bakoitzak eskaintzen dituen esparruak ikusiz (3. irudia), hilerokoaren kasuan, azkenengo hileko estatistika ikusteko aukera ematen du plataformak, baita konpetentzia eremu eta daten arabera informazioa bilatzeko aukera. Gaien artean, egoera prozesal-penala sexuarekin konparatzeko aukera ematen da edota tratamendu graduak, erkidegoetako populazioa, adin eta sexuaren araberrako preso kopurua... Azkenik, zigor eta neurri alternatiboentzako atal berezia ere badago.

Asteroko sekzioaren kasuan, azkenengo asteko estatistikara zuzenean bideratzeko aukera dago, baita daten arabera astea aukeratzeko aukera. Gaien kasuan, hauek gutxiago dira eta administrazioa, sexua, egoera prozesal-penala, erkidegoen banatzea eta zigorraren eboluzioa dira aldagai bakarrak.

3. Irudia. Eremu bakoitzaren esparru nagusienak.

The screenshot shows the 'Estadística penitenciaria' website interface. It is divided into two main sections: 'Mensual' (Monthly) and 'Semanal' (Weekly).

Mensual: Under 'Última estadística mensual', the 'Ambito' (Scope) is set to 'Total Nacional' and the 'Tema' (Topic) is 'Población reclusa por sexo'.

Semanal: Under 'Última estadística semanal', a calendar for 'abril 2017' is displayed. The 'Tema' (Topic) is 'Por sexo y administraciones'.

Iturria: Erakunde penitentiarioaren webgune ofiziala. 2017ko apirilaren 21ean kontsultatua.

Bilaketa konkretu bat egiterako orduan, emaitzek erakusten dutena da aldagaien artean egiten diren konparazio gehienetan presoek sexua gehien errepikatzen den elementuetako bat dela. Emaitza guztietan, bai hileroko informazioan baita asterokoan, taula forma duten emaitzak erakusten dira, bi aldagai konparatuz. Kasu batzuetan portzentajea azpimarratzen da, beste batzuetan ez ordea. Adibide batzuk erakusten duten moduan (4. irudia) informazio oso zehatza/murritzua dela ikusi daiteke.

4. Irudia. Atzeritarrak sexuaren arabera konparatua. Hileroko emaitzak.

DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN RECLUSA EXTRANJERA, POR SEXO

Genero	Total	%
Hombres	15.876	92,46
Mujeres	1.295	7,54
Total	17.171	100

Iturria: Erakunde penitentiarioaren webgune ofiziala. 2017ko apirilaren 21ean kontsultatua.

Gardentasun azterketa

Aurretiaz beste txostenekin eginiko lana jarraituz, gardentasunaren analisisian, estatistika penitentziarioen **alde positiboan** artean informazioa jasotzeko aukera propioa aurrerapauso bat da. Honela sistema honi buruz interesa dugun populazio txikiak informazioa jasotzea bermatzen du. Bestetik, hileroko eta asteko banaketak ideia ona dira ere bai, aukera ematen dutelako tarte konkretuetan informazio jakin bat ezagutzeko. Sistema orokorraren eta Kataluniako sistemaren kasuak banatzea ere ideia ona iruditzen zait, bi sistemen arteko desberdintasunak egin daitezkelako.

Alde negatiboan kasuan, gardentasunarekin erlazionatzen den alderik nabarmengarriena aukera gutxi ematen direla da, sekzio bakoitzean (hilerokoan eta astekoan) erakusten diren atalak mugatuak daudelako. Horrexegatik, aldagai gehiagoren presentzia falta da eta ezin dezakegu jakin zergatik, adibidez, iraungitako zigor kodearen informazioa ematen da eta ez presoaren hezkuntza maila. Hileroko eta asteko gaien arteko desberdintasuna ere nabarmena da, agian asteko gaiak eguneratuta dauden aldagaiak direlako.

Hobetu beharreko eremuak beraz, asko diren arren, transparentziari begira honela laburbildu ditzaket:

- 1. Aldagai gehiago ezartzea.** Txosten eta informeetan erabiltzen diren aldagaien ildo berdina jarraituz, zerbitzu honetan eskaintzen diren aldagarriak mugatuak daude. Hezkuntza maila, atzeritarren herrialdea edo tratamenduen parte-hartze kopurua falta diren aldagai batzuk izan daiteke.
- 2. Aldagaiak konparatzeko aukera ematea.** Esan bezala, gai guztiak presoaren sexuarekin loturiko binomioan eratuta daude. Ez dago aukerarik, adibidez, atzeritarrak eta adina konparatzeko edo nazionalitatea eta zigorturiko delituetatik jakiteko. Beharrezkoa den urratsa beraz, aldagaien independentzia ezartzea da eta haien arteko konparazioak egiteko aukera ematea.
- 3. Datuak eguneratuak izatea.** Ikerketa egiten hasi nintzenean emaitzak jakiteko asmoarekin, apirilaren erdialdera martxoko datuak jakiteko oztopoa zegoen, hauek oraindik ezarrita ez zeudelako. Hilabete sekzioan beraz, aktualizazioa bultzatu

behar da. Asterokoan datu berriagoak daude, hala ere gogoratu behar da gai gutxiagoren inguruan bilaketa egiteko aukera ematen dutela.

4. Emaizak beste hizkuntzetan ikusteko aukera izatea. Hizkuntza koofizialetan eta ingeleraz ikusteko aukerarik ez du ematen Administrazio Penitentziarioak. Emaizak nola erakusten diren ikusten bada, itzulpen lana egitea ez zen hain zaila izango.

5. Emaizak ikusteko aukera gehiago edukitzea. Taula formako emaitzak ez dira nahikoak, gainera kasu askotan ehunekotan ikusteko aukerarik ez dago. Grafiko gehiagoaren presentzia beharrezkoa da, baita datuak denboraren arabera konparatzeko aukera, horrela egoeraren proiektzio eta interpretazio bat egiteko.

III. ATALA: ARAZO OPTIKOA

Ikuspegi akatsa

Orain arte azalduko, bai barraskilo sareen alorretik baita zifra koloregabearen aspektutik alde komun bat badago zigor-instituzioen testuingurutik at joaten dena: gure gizartearen aspektu batzuk begirada okerrean interpretatzen ditugula. Boterea eta legeak kudeatzeko politikek bere joera propioa izan dute eta eraginak nabarmentzen ahalegindu naiz, baina transparentzia bezalako fenomenoarekin topo egitean, dena bere horretan geldirik gelditzen da. Gaur egun, “pasibitateak sentimenduak menderatzen ditu” eta hau ezin da edozein modutan aztertu, hau ez baita guztiz erreza (Sontag, 2010, 54.or).

Hipermetropia arazoa dago gure inguruan, hurbileko bizipenak, gertaerak eta ondorioak ikusteko arazoak ditugu, dena oso lauso ikusteko joera erakutsiz. Kanpora begira, kezka izan ditzakegu beste herrialdeetatik datozen albisteak entzun ondoren, baina gure ingurura hurbilduz desberdintasunak daude interes sozialean. Uste dugu zoritxar gehiago gertatzen direla kanpoan, hemen gertatzen direnak baino. Honen atzean interpretazio desberdinak egin daitezke, agian, argitara ematen dena benetan gertatzen dena ez delako.

Zigor sisteman barneratuz, Arartekoak orain dela aste gutxi *2016 urteko Eusko Legebiltzarrarentzako txostenean*, zigorreki eta espetxe egoerari buruzko interbentzioa oinarri batzuetan ezarri behar dela aipatu egiten du: gizartean politika kriminalaren eta espetxe-sistemaren gainean **hausnarketa bultzatzea**; askatasuna mugatzen duten zigorren ordez, **ordezko neurriak** gehiago bultzatzea, erregimen irekiaren aldeko apustu zuzena eginez; **gizarteratze** helburuen gainean **lan gehiago** egitea bereziki maila soziolaboralean eta behar kognitibo-konduktualetan, eta azkenik; espetxeek gizartearekin lotura gehiago izan behar duten beharra indartuz, **parte hartzea bultzatu** beharra dago bai barrurantz baita kanporantz hiritarren ekimenen alde eginez (Arartekoa, 2017, 235.or.).

Arartekoaren oinarri hauek bat egiten dute orain arte aurkezturiko aspektu desberdinen multzoarekin. Positiboa da ikustea administrazio publikoaren eskutik ahuleziak erakusten direla, honek gizartea kontzientziatu dezakeelako gizarte-banaketari buruz. Honela Baumanen pentsamenduetako bat hartuz:

Haiek beti dira gehiegi. *Haiek* gutxien egon beharreko pertsonak dira, edo hobeto esanda, ez da inor egon behar. Eta gu ez gara inoiz nahikoak. *Gu* beti gehiengoan izan behar garenak gara. (2005, 51.or.)

Zer nahi dugu, zer egiten dugu eta nora begira gauden, hor dago lan honek zabalik uzten dituen galderak. Orain arte lan asko egin da baina ikuspegi akatsak suertatzen dira beti, hau gai isila, iluna eta ukitu ezina delako. Gutxi batzuk arduratzen gara eta inor gehiago, baina zergatik?

Hartu beharreko ikuspegia, aldatu beharreko edo sendatu beharreko akatsak errealitatera hurbiltzera zuzenduak egon behar dira. Benetan gertatzen denari buruzko leku horretara heltzea. Hala ere, errealitatea definitzea aspektu filosofikoetara eramaten gaitu, nik modu sinple batean errealitate hori benetan gertatzen den egoerari eta joerei buruzko ezagutza izatearekin erlazionatzen dute. Beste gauza bat ordea, benetan gertatzen dena osoki ezagutzea posible den galdetzea izango zen edo ia sistema guztiaren engranajeak ezagutzeko aukera dagoen...

Kriminologia sendagai moduan

Oftalmologia lana egin dezakeen esparru nagusia kriminologia zientziak hartzen du bere gain. Begirada hau ezaugarri juridiko eta sozialez eratzen den heinean, kriminologia bezalako disziplina-anitzeko zientzia batek hauei erantzuna emateko balio dute.

Joera desberdinen artean, kriminologian historian zehar indarrean izan diren azkeneko ideologia nagusienak erlazio edo lotura zuzena daukate: garantismo penala, abolizionismo penala eta errealismo ezkertia.

Garantismo penalaren oinarrian giza eskubideen bermeen alde egiten duen pentsamendua da, zeinak “zuzenbide politikak hartzen ditu oinarri moduan, giza eskubideen aldeko politikan” (Rivera Beiras, 2005, 196-197.orr.). Gutxiengo zigor zuzenbidea honen erantzuna da, *ultima ratio* ideiarekin bat eginik politika kriminalaren joerak malgutzeko ideia dago beraz. Honekin lotu behar dira ere lanean aipaturiko neoliberalismo errepresiboaren aurkako joera, zigor zuzenbidearen espantsioari kritika, denboraren pribatizazioari kritika edo sistema penalaren mekanismoak sorturiko kaxa ilun horretan gertatzen dena.

Abolizionismo penalak bestetik, aurreko ideologiek bat egiten du, zigor zuzenbidearen malgutasunaren aldeko joera ere erakusten duelako. Honek ordea, muturreko bide batera joaten da maximalismo politiken aurkako joeretan: zigor-instituzioen eta sistema penalararen indargabetzean oinarritzen direnak. “Interakzio sinbolikoa, fenomenologia edo utopismoa bezalako aspektuen kutsua izanik” botere banaketa zalantzan jartzen duen ikuspuntua da, azterturiko burokrazia hierarkia, merkantilismoa, *ethos enpresariala* edo etsaiaren zigor zuzenbidearen ideien aurka eginez (Rivera Beiras, 2005, 210.or.). Botere eta politiken eraginak kritikatzeko dira ondorioz, baita mass mediaen eragina edo informazioaren manipulazioa eta interes kontuak bereziki.

Azkenengo esparru batean, azken urteetan nagusitu den **errealismo ezkerriak** - kriminologia “berria” edo “kritikoa” bezala ere ezaguna-, “lehentasuna ematen dio justizia sozialari, gizarte zuzen eta ordenatu bateri” (Rivera Beiras, 2005, 218.or.). Eskuindarrak diren ideiak beraz (estatu penala, *paupeculturaren* aldeko joerak, etiketa joera, tolerantzia zero politikak, aktuarialismoa) alde batera utzi, eta bazterketa soziala ekidin nahian, instituzio sozialaren izaera nagusituz gizartearen aldeko joeren alde egiteko joera dauka.

Atal enpirikoetan azterturiko informazio iturriekin pentsamendu desberdinak lotu daitezke baita. Garantismoaren aldekoen giza eskubideei garrantzia emanez, Konstituzioko birgizarteratze eta berrezte helburuetara iritsiko zen pentsamendu hauen oinarria. 2015. urteko zigor erreformak, ondorioz, sistema gogortzen eta indartzen duen heinean aldatu beharreko ezaugarria bihurtzen da hauen ustez.

Abolizionismotik, arlo konklusio moduan erakutsi daiteke sistema penitentziarioaren porrota benetakoa dela, administrazio publikoak informazioa ezkutatzeko duen heinean bere ahulezien seinaleak ez ditu ematen. Hortaz sistema ezabatu behar denaren aldeko iritzia ematen dute.

Dokumentu eta txostenen interpretazioak errealismo ezkeretik, presoak pertsona moduan ikusiz egitura sozialaren gainean egin beharreko lanean oinarritzen den joera da. Gizarte zuzen eta ordenatu bat lortzeko gardentasuna beharrezkoa da ondorioz. Instalazioak eta sistemaren funtzionamendua da kezkarriena kasu honetan, gizarte eta gizakiek ez dute axola, baizik eta administrazioaren biziraupena, hor dago hauen kritika.

Lan honetan hiru joera desberdinen ardatzak edo pentsamendu asko batu egin izan dira. Zein bide hartzean dago zailtasuna, beraz, hiruren arteko mix baten alde egin daiteke? Azken finean espetxeek moduko sistemak eraldatzeko beharra dago, etorkizunean hauen existentzia gaur egun ezagutzen dugun moduan aldatuko denarena, horretarako lortu beharra dago eraldaketa. Abolizionismoaren aldeko joera hartu daiteke, baina epe luze batera begira oraindik lan handia egin beharra dago, justizia soziala ardatz izanik zigor zuzenbidearen gutxieneko esparrua lortu behar dela defendatu beharra dago hortaz.

8. ETORKIZUNA JOKOAN

“Hemen bi koral multzoen aurrean aurkitzen gara, bat zaharra, orain dela milaka urteko hil zena, eta bestea, lehenengoaren hondakinen gainean bizirik dagoena, koralak, zibilizazioak bezala, haien aurreko eskeletoen gainean garatu egiten baitira.” (Lorenz, 1980, 12.or.)

Denbora aurrera doan heinean, gizakion joera aurrera egitea da, eboluzionatzea, garatzea. Prozesu natural honen joeraz jabetuz, kartzelen testuinguruan egin beharreko lana pausoz-pauso egin beharra dago, mailatik mailara. Horretarako hurbileko epea, epe ertaina eta epe luzera begiratu beharra dago.

Etorkizunari begira, sistema honen gain eraldatzea posible egin ahal izateko indarrak batu behar dira eta horregatik biharko lana -lehen pausoa-, errealitatearen lehen islak ematea izan beharko zen. Gradu Amaierako Lan hau, adibidez, pauso bat da, gardentasunaren aldeko joera bultzatu nahi duen bide txiki bat. Giza eskubideen aldeko defentsa, polizia lanaren kontrola edo birgizarteratze emaitzen analisia epe laburrera lortu behar diren beste pauso batzuk ere badira. Lehen pausoa edo xedea hiritarren kontzientzia bereganatzea izan behar da.

Epe ertainera, askatasuna mugatzen duten zigorren txikitzea lortu beharra dago -ordezko neurriak bere alde txarrak dituzten arren-, askatasuna eskubiderik preziatuenetako bat izanen berarenganako presioa malgutu beharra dago. Politika kriminalean eta hauen emaitzetan -legeetan-, *ultima ratio*ren ideia berriro ekarri beharra dago, hura bultzatu behar da.

Azkenik, epe luze batean utopismoaren joeretara egin behar da bidea eta sistema guztiz eraldatzea izango da horren emaitza. Kritiken aurrean zerbait egin beharra dago hau funtzionatzen jarraitzen duen edo ez. Abolizionismoa lortzeko ordea, proposamenak behar dira eta hauek beti gizarteari begira egon behar dira.

Gaur egun zein da dugun egoera eta etorkizunean nora joan behar garen dira egin behar diren hausnarketarik garrantzitsuenak. Hauei erantzuna ematen ez bazaie, lan hau oinarri dituen gainontzeko ikerketak moduan, etorkizunik ez dute izango.

Sareak merkeegi ateratzen dira

Lehenengo atalean -marko teorikoaren oinarrian- iritzi eta pentsamendu desberdinen batzeak ekarri ditzakeen konklusio nagusien artean, aipaturiko guztiaren zimendu nagusia interes sozialaren eta lan sozialaren faltan dago. Guzti honek, ondorengo marko penitentziario eta penala ekarri du:

1. Gaur egungo gizarte-egoera aitzinako bizimoduarekin desberdintasun handirik ez dauka. Industrializazio eta post-industrializazio garaien artean globalizazioak ekarritako ondorio anitzez aparte, sistema penitentziarioen egoera “krisialdi” situazio berdinean jarraitzen dute. Administrazio publikoan aldaketak gertatu diren arren, giza eskubideen defentsan berme gehiago dauden arren, espetxeek joera berdina izaten jarraitzen dute nahiz eta aurpegiz aldatu behin baino gehiagotan.

2. Ekonomiak gizartearen bizimodua baldintzatzen duen alorrik nabarmengarriena izaten jarraitzen du. Lanaren etikatik kontsumoaren estetikara igaro garen heinean, kapitalismoaren eragin sakonak Mateo efektua sortarazi egin du. Pobrezia handitzen doan heinean, beraz, kontrol sozialaren joera eremu konkretu batera zuzentzen da bakarrik⁶⁷.

3. Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa kutsatuta dago. Interes desberdinak bultzaturik, estatu bateko botere banaketaren oinarrian, botere legegilearen eta betearazlearen eskutan dago botere judiziala. Botereen fusioa ekarri du honek, bereziki legegileen paperaren eraginaren ondorioz, arbitrariotasuna zalantzan jartzen delako. Eremu judizialaren politizazioa da guzti honen emaitza⁶⁸.

4. Legeria eta sistema penalaren kontrola benetakoa da. Ongizate estatuaren edo *welfare state* fenomenoaren porrota geroz eta hurbilago dagoela dirudi. Balore sozialak ezabatu egin dira -noizbait existitu izan baziren-, orain gizartearen parte diren edozein pertsonak bere izaera galdu egin du eta estatuaren eskutan dauden txotxongiloak dira.

⁶⁷ Ekonomiarekin loturiko gaiak Espainiako herritarrentzat arazorik nagusienak izaten jarraitzen dute: langabezia; korrupzioa eta iruzurra; gai ekonomikoko arazoak; politikari, politika eta partiduak... CIS (2017). *Barómetro de Febrero. Estudio n°3168*. 7. galdera, 4.or.

⁶⁸ Politizazio honekin harremanean, epaile eta magistratuen arabera %75ak uste du BJKN independentzia beharrezkoa den moduan defendatzen ez duela. Datu interesgarria erakusten duela presio politikoak errealitate bat badela. BJKN (2015). *Encuesta de ámbito nacional a todos los jueces o magistrados en servicio activo. 2015*. Sigmadós, 35.or.

5. Politika kriminalaren gainean esku-hartze eta eragin konkretuak daude.

Gizarte kontrolaren irudi bihurtu dira gutxiengo estatuaren sorrera, aktuarialismoaren joera edo etsaiaren zigor zuzenbidea. Politika hauek erantzun moduan, behar batzuei zuzenduta egon behar dira, kasu honetan ordea behar haiek ez dira sozialak, interesen arabekoak baizik. Etorकिनak, erasotzaile sexualak edo terroristak jazarpen handiena jasotzen jarraitzen dute, non gutxi dutenek gehiago sufritzen dutenak izaten jarraitzen dute.

6. Zigorraren eta denbora-pribatizazioaren aldeko praktikek protagonismo nagusia dute gaur egungo sisteman. Espainiar Konstituzioak berreztea eta birgizarteratzeari eremu propioa ematen dio, baina kondenaren xedea errepresioan eta mendekuan oinarrituta dagoela dirudi. Zigorra da bilatzen dena, presoan espetxean gizartetik bananduta geroz eta denbora gehiago egotea, hauek animaliak eta zaborra direlako.

7. Sistema kaxa ilun batean zalantzaz piztuta dagoen mekanismoa da. Testuinguru hau zalantzez josita dago, barnean gertatzen denari buruzko publizitatea ez da gizarteak behar duen modukoa. Galdera ikurrak nagusitzen diren heinean, bertatik ateratzen diren emaitzek ez dute ezer argirik erakusten. Zer gertatzen da bertan, barnean? Tratamenduak, prozesua, bertako eguneroko bizitza eta pertsona hauek bizi diren kontestu guzti hori osoki ezagutzen dugu?

8. Gizarte eta gizarteratze arazoak ez dira konpontzen. Eragin edo konklusio desberdin guzti hauen ondorioz, “delituak” edo “kriminalitatea” bezalako hitz hutsek konponezinak direla dirudi.

9. Sistemak funtzionatzen du. Nahiz eta elementu negatibo eta kritiko asko izan, sistema penitentiarioa bizirik dirau. Hau aspekturik kezkarriena da, txarto dagoena somatu daitekeen arren, errealitatea ez ezagutzea ondorio hau ekarri egiten duelako.

10. Paupecultura prozesu guzti honen emaitzarik aipagarrienetako bat bihurtzen da. Hausnarketa guzti hauen emaitza da barraskilo-hazkuntza, bizitzan atzean gelditzen diren pertsonak kontrolatzeko prozesua. Biztanleria penitentiarioaren gehiena hauek dira, gero gizartera atera eta sare multzo batean ezaugarri berdinak lortu dituztela esanda (birgizarteratzea eta berreztea) saldu egiten direnak.

Guzti honek inflexio puntu batera garamatza, non, saldu egiten zaiguna ez du gure usteekin bat egiten. Barraskilo multzo bat hartzen dugu eta leku konpartitu batean sartzen ditugu gero gizarteari sistemaren funtzionamendua saltzeko. Presoak ateratzen dituzte eta birgizarteratuak daudela esaten digute, baina azkenean gezur hori erosten dutenak gutxi dira eta pobreak baztertuak gelditzen dira. Zikloa berriro gertatzen da eta saldu egin diren barraskiloak naturatik harrapatzeko probabilitateak izaten jarraitzen dute.

Haztegi hauetan lan egiten dutenak edo kontrol osoa dutenak haien interesen arabera jokutzen dute. Boterea dutenak herrialde honetan aginte-makila daukate eta ez gaude gobernuari buruz hitz egiten modu orokor batean. Interes nahasketa da guzti hau eta politika kriminala honen parte da. Sistema penitentiarioa guzti honen sinonimoa da eta funtzionatzen duen modu berean berarekin erlazio duten gainontzeko fenomenoek ere funtzionatu egiten dute.

12.Grafikoa. Barraskilo sareen testuinguruaren konklusioak.



Iturria: Elaborazio propioa

Zifrak kolore bakarra dauka: gorria

Atal honen hasieran -arlo metodologikoari buruz hitz egitean-, politika publikoen mugak, ikerketak edo analisiak egiterako orduan aipatu izan ditut, hauen adibide izanen lan honek erreferentzia moduan hartzen duen informazio eta datuak zigor-instituzioak bezalako testuinguruak. Gardentasuna ikerketa objektu moduan edukiz, transparentzia politiken ebaluazio zerbait oso berri da, beraz erantzun konkretu baten falta nabari daiteke oraindik. Lan honetan zero koloregabearen atalean eginikoa gogobetekoa da, interpretazio eta konklusio desberdinak atera daitezkelako ikerturiko lau eremuetatik:

11. Gizartearen konfiantza maila kolokan dago. Konfiantza oso nahasia izan daitekeen gaia izan daiteke, baina marko orokor batean egin daitekeen interpretazioa erakustea posiblea da. Mesfidantza nagusitzen da hortaz, eta hori CIS bezalako inkestetan ikusi daiteke -ekonomia interesetan ikusi den moduan-, administrazio publikoak hortaz bere irudi soziala kaltetua dauka.

12. Transparentzia politikak erantzun huts bat baino ez dira. Egoera honen aurrean, gizartearen kezka edo ardurei erantzuteko helburuarekin, estatu espainiarrak 2013. urtean 19/2013 Legea jarri zuen indarrean. Hau erantzunen adibideetako bat da, baina honen atzean ez dago mamirik. Erakunde desberdinek gardentasunaren jarduketan lan garrantzitsua egiten dute baina ez nahikoa, eta hori espetxe-administrazioaren gaineko jarduera ezaren adierazpen bat da.

13. Ebaluazio arazoak existitzen dira. Lege hauek osatugabeak daudenean eta informazioa eskuratzeko eskubidea edo gobernu ona giltzarri baino ez hartzen denean, interpretazio lanak ez dira kontuan hartzen. Kalitatea edo balioa neurtzera ez daude bideratuta eta hori ez da zilegizkoa. Lan honek aurkitu duen oztopo nagusienetako bat izan da egoera hau: ebaluazioa egiterako orduan dauden mekanismo egokien kantitate txikia edo kantitate eza.

14. Interpretazio eta kudeaketa arazoak plazaraturiko dokumentuen ezaugarri dira. Erakunde penitentziarioen dokumentu desberdinek administrazio publikoaren joera erakusten dute: interpretazio eta kudeaketa arazoa. Datuak ematen dira baina zergatirik gabekoak. Hau transparentzia lanen kontrako aspektua da, gainera badirudi inoren eskutan egoteko informazioa plazaratzen dela, eduki aldetik informazio asko konexio gabe dagoelako kasu batzuetan.

15. Manipulazioa, propaganda eta lan nahikoa ez egitea administrazio lanaren bereizgarri dira. Nazioarteko mailan, estatu mailan baita maila lokalean egiten den lana ez da behar bezala egiten. Honelako gaietan gertatzen denari buruzko aspektu garrantzitsuena ahazten dugu: sufrimenduaren eta minaren garrantzia. Gai hauei buruzko lanak egiterako orduan, kontu handiz ibili beharreko pausoak egin behar dira, benetan gertatzen denarekin jolasteko aukerak existitzen baitira.

16. Informazio desegokia. Guzti honek informazio ezaren panorama batera hurbiltzen gaitu. Hau pentsatzeko aukera zabaltzen du, ez da benetan gertatzen dena argitaratu nahi? Kaxa ilun horrek ez dauka kolorerik? Honek bertan gertatzen dena ez esateko nahiaren susmoak kontuan hartuz, agian ez dugu egia entzun nahi edo interesa ez daukagu, edota gauza bietatik gerta daiteke.

17. Erakunde penitentziarioan ez dago transparentziarik. Hau erabateko iritzi pertsonala da. Datuak ez badaude, ez dago errealiterik eta errealitate gabe ez dago hausnarketarik egiteko eremurik. Transparentziak hesi hori dauka bere inguruan informazioa transmisio katean egotea eragozten duelako. Hau prozedura guzti honen emaitza da.


18. Aldaketen beharra. Harresia botatzeko gizartearen aldeko lanak bultzatu behar dira. Administrazioarekin lan egitea -hortaz txotxongiloak manejatzen dutenekin- zaila dirudi, iritiz aldatzea ia ezinezkoa delako hauek baldintzatuta baitaude, baina pixkanaka-pixkanaka eskua sartu beharra dago. Horretako egin beharreko lehengo gauza hiritarrak esnatzea da. Baina nola lortzen da hau? Hor dago jorratu beharreko lehen buruhaustea.

19. Kriminologoek lana funtsezkoa eta garrantzitsua da testuinguru guzti honetan. Kriminologoek erantzuna emateko aukera paregabea daukagu, testuinguru guzti hauei buruzko ezagutza dugulako. Informazio ematen dutela uste dutenen artean lan guztiz subjektiboa egiten den heinean, lan kriminologikoa objektibitatean oinarritu behar da. Hau oraindik administrazio publikoak guztiz onartu ez duen egoera da, aurrerapenak beraz astiroago joango direlakoan nago.

20. Zifra kolore gorria dauka. Sentitzen dut hain negatiboa izatea baina hau da gaur egungo egoera. Datuen transmisioen engainua edo honen aldeko jokaera ez izatea konklusio horretara eramanez, horregatik sistema penalaren mekanismo horren alde ilunak kolore gorria dauka, alde txarrak alde onak baino gehiago direlako.

Marko enpirikoan eginiko lanak erakusten du barraskiloen metafora benetan gertatzen den egoera izan daitekeela. Ez dugu *ex ante* kondenaturiko pertsonen informaziorik, soilik haien adina, sexua, jatorria eta ezer gutxi gehiago. Hau bereziki boteredunek barraskiloak hartzen dituztelako gertatzen da eta ez erbiak bezalako animaliak. Marjinalitate egoeran daudenak dira eta administrazioak berak hori baieztatzen du, haien politika-joerak ezkutatzeko ahaleginak akatsak dituztelako.

13.Grafikoa. Zifra koloregabearen testuinguruaren konklusioak.




Iturria: Elaborazio propioa

Merkatu berriak, zenbaki berriak

Egoera larria da, gorria bezain larria. Behin hori jakinda zer da egin beharrekoa? Interes sozialari eta errealitateari begira zeintzuk dira hartu behar diren pausoak? Scotten ideiak hartuz (2013) desberdintasun sozialak eta gaur egungo gehiegikeria penalak murrizteko aberatsen eta pobreen arteko balantza orekatu beharra dago, irabazien alorrean aldatetako eginez eta zerbitzu publikoen prestazioetan berdintasuna bultzatuz.

Joera sozialez kutsaturiko erremedio hauek nabarmengarriak dira eta oso positiboak, hala ere, hori lortzean agertzen dira oztopoak hor daude. Horregatik hiru planoetako kronograma jarraituz, epe desberdinetan -laburra, ertaina eta txikia- lortu beharreko sei adibide plazaratu nahiko nituen (14. Grafikoa):

14. Grafikoa. Etorkizuneko lana eta proposamenak.



Iturria: Elaborazio propioa

Epe laburrean, nire ideien barnean lortu beharreko hiru atal oso garrantzitsuak **gardentasuna aztertzeko pauso berriak lortzea**, **administrazio publikoaren parte hartzea bultzatzea** eta **gizartearen interesa piztea** dira. Denboraren kontra arraun egiteko indarra eta ilusioa izan behar da eta nahiz eta egoera zaila izan, une oso garrantzitsua da momentu honetan.

Gardentasunaren inguruan ebaluazio/metodologia berri bat martxan jarri behar dago, informazioa transmititzen den edo ez ikertu ordez, zer nolako informazioa ematen den ikusi behar dagoelako.

Administrazio publikoaren lanean, kontrol eta interesetatik aldendu ahal izateko ahaleginak lortu behar dira. Honela gizartera ematen den emaitza garbia eta osoa izateko probabilitate altuagoak izango ditu.

Pauso hauek, gaur egun egiten diren beste askorekin batera gizarte interesa pizteko laguntza izango dira. Momentu hau gertatzen denetik, testuinguru penitentziarioaz arduratzen garen pertsona bitxiak gehiago izango gara eta agian arraroa dirudien ardura hori ardura soziala bihurtuko da.

Hau lortu ondoren, maila bat gorago erronka guztiz interesgarriari eusteko indarrarekin, politika sozialak bultzatzearen alde eta zuzenbide penalaria mugak ezarri nahi dizkietenak gehiago izango dira **epe ertainera**.

Bazterketa soziala eta Mateo efektuaren ondorioak larriak dira eta geroz eta egoera okerrago batean egongo gara honen aurrean zerbait egiten ez bada. Solidaritateak esparru honetan protagonismo berezia izango du, baina hori lortzeko kontzientziazio lana egin beharra dago aurretik, bakoitzak lan honetan zehar behin eta berriz errepikatu izan den interesei begira jotzen duelako. Behin hori lortuta, sistemaren arazoei aurre egiteko gogoekin, zuzenbide penalean eta politika kriminalean aldaketak lortzeko aukera izango da. Zigorak erabat eraldatu behar direlako.

Bide honen amaierako helmugan, **epe luze** batera begira, “zigor-instituzio” berri baten agerpena gauzatuko da. Eta nork jakin abolitzea posible izango den edo ez. Adibidez, erakunde sozialen eskutan, birgizarteratzea lortzeko aukerak handiagoak izango dira eta komunitatearen laguntzarekin gaur egungo espetxeek beste izaera bat izango dute.

Gure bizitza, gure familien, lagunuen eta ezagunen mesedeetan egiten dugun guztia, ezagutzen ez ditugun pertsonen alde ere egin behar dugu. Gizarte honen oinarrian indibidualismo eta onuradun propiotik at, biztanleria guztia dagoelako. Kriminologiak bere ikerketa objektuetatik at eginik, enpatia lana proiektatzera bideratuta egon behar da hortaz, kriminologo batek zoritxar guztien atzean dagoen alde positiboak ateratzen badakielako.

BIBLIOGRAFIA

- ALDAZ ARREGUI, J. (2014). La institución del castigo en la sociedad del control social incontrolado: Una propuesta desde la evaluación para una institución de castigo corresponsabilizadora. *International e-Journal of Criminal Science*, (8), 1-31.
- ANITUA, G.I. (2015). Justificación del Castigo. *Enciclopedia de Filosofía y Teoría del Derecho*, 3(58), 2109-2139.
- ARANDA OCAÑA, M. (2005). La política criminal en materia de terrorismo. Ondorengo liburuan, RIVERA BEIRAS, I. *Política criminal y sistema penal* (367-394). OSPDH, Bartzelona: Anthropos.
- ARARTEKOA (2017). *Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2016*. Gasteiz.
- ARENDT, H. (1998). *Los orígenes del totalitarismo*. Madril: Taurus.
- AUZITEGI GORENA, Zigor Sala, 2. Sekzioa. (2017eko otsailak 21). 4/17 Sententzia.
- AUZITEGI GORENA, Zigor Sala, 4. Sekzioa. (2017eko martxoak 29). 9/17 Sententzia.
- BARNE MINISTERIOA (2010). *La Prisión paso a paso*. Madril: Espainiako Gobernu, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia.
- (2014). *The Spanish Prison System*. Madril: Espainiako Gobernu, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia.
- (2016). *Informe General 2015*. Madril: Espainiako Gobernu, Barne Ministerioa, Erakunde Penitentiarioen Idazkaritza Nagusia.
- BAUMAN, Z. (2000). *Trabajo y consumismo*. Bartzelona: Gedisa.
- (2001). *La globalización. Consecuencias Humanas*. Mexiko: FCE.
- (2002). *En busca de la política*. Mexiko DF: FCE.
- (2005). *Vidas Desperdiciadas. La Modernidad Y Sus Parias*. Bartzelona: Paidós.
- (2009). *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*. Madril: Siglo XXI.

- BECCARIA, C. (1943). *Disertación sobre los delitos y las penas*. Madril: UC3M.
- BECK, U. (1998). *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*. Bartzelona: Paidós.
- BJKN (2015). *Encuesta de ámbito nacional a todos los jueces o magistrados en servicio activo. 2015*. Sigmados.
- BOE (1978). Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa.
- (1979). 1/1979 Lege Organikoa, irailaren 26koa, Espetxeetarako Lege Organiko Orokorra.
- (1985). 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialaren gainekoa.
- (1995). 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.
- (2000). 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horien Gizarteratzeari buruzkoa.
- (2003). 7/2003 Lege Organikoa, ekainaren 30ekoa, zigorrak oso-osorik eta eragingarritasunez betetzeko eraldaketa-neurriak ezarri dituen.
- (2013). 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- (2014). 919/2014 Errege Dekretua, urriaren 31koa, Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluaren Estatutua onartzen duena.
- (2015a). 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.
- (2015b). 2/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena, terrorismo delituei dagokionez: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.
- BRANDARIZ GARCÍA, J.A. (2014). La difusión de lógicas actuariales y gerenciales en las políticas punitivas. *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, (2), 1-27.

- BRANDARIZ GARCÍA, J.A. et al IGLESIAS SKULJ, A. (2012). Neoliberalismo y política penal. Aproximación al trabajo de Bernard E. Hardcourt. *Eunomía: Revista en Cultura de la Legalidad*, (2), 17-30.
- CABRERA, P.J. (2005a). La realidad penitenciaria en el siglo XXI y perspectivas de futuro. *Corintios XIII: Revista de teología y pastoral de la caridad*, (114-115), 63-118.
- (2005b). Cárcel y exclusión. *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, (35), 83-120.
- CAMPOS ZAMORA, F.J. (2010). Pensar el Castigo. Evolución de las formas penales en Michel Foucault. *DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho*, (33), 625-638.
- CASTAÑO TIERNO, P. (2014). ¿Otra política penal es posible? Un estudio sobre la viabilidad de una política criminal alternativa. *Estudios Penales y Criminológicos*, (34), 561-638.
- CASTEL, R. (1997). “*La metamorfosis de la cuestión social*”. Buenos Aires: Paidós.
- CHRISTIE, N. (1993). *La industria del control del delito. ¿La nueva forma del holocausto?* Buenos Aires: Editores del Puerto.
- (2004) *Una sensata cantidad de delito*. Buenos Aires: Editores del Puerto.
- CIS (2017). *Barómetro de Febrero*. Estudio n°3168
- CESANO, J.D. (2003). De la crítica a la cárcel a la crítica de las alternativas. *Boletín Mexicano de Derecho Comparado*, (108), 863-889.
- CTBG (2017). *Informe de evaluación de los órganos Constitucionales y reguladores. Órganos constitucionales y de relevancia constitucional y entes reguladores*. Madrid.
- COELLO, J. (2006), *Derecho Penal del Enemigo* (Ikerketa lana). San Martín de Porres Unibertsitatea, Lima.
- COHEN, S. (1988). *Visiones de control social*. Barcelona: Editores PPU.

- DAROQUI, A.V. (2002). La cárcel del presente, su “sentido” como práctica de secuestro institucional. Ondorengo liburuan, GAYOL, S. eta KESSLER, G. *Violencia, delito y justicia en la Argentina* (191-206). Buenos Aires: Manantial.
- DE GIORGI, A. (2000). *Tolerancia Cero. Estrategias y prácticas de la sociedad de control*. Bartzelona: Virus.
- DÍAZ CANO, L. (1997). El ser humano en la cárcel. Impacto del ámbito penitenciario en la persona. *Acontecimiento*, 33-36.
- DÍAZ CORTÉS, L.M. (2007). Algunas consideraciones sobre el castigo. Una perspectiva desde la sociología. *Derecho Penal y Criminología*, 28(83), 141-176.
- DÍEZ RIPOLLÉS, J.L. (2005). De la sociedad del riesgo a la seguridad ciudadana: un debate desenfocado. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, (7), 1-37.
- DURKHEIM, E. (2012). *La división del trabajo social*. Madril: Biblioteca Nueva.
- EHU (2006). *Constitución Española- Espainiako Konstituzioa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- FEELEY, M. (1991). The New Penology. Reformulating Penal Objectives and Implications for Penal Growth, *Growth and Its Influence on Correctional Policy*. Guggenheim Criminal Justice Program, Berkeley, 66-67.
- FOUCAULT, M. (2009). *Vigilar y Castigar: nacimiento de la prisión*. Mexiko: Siglo XXI.
- GALLEGO DIAZ, M. (2010). *Andar 1 KM. En línea recta: la cárcel del Siglo XXI que vive el preso*. Madril: Universidad Pontificia Comillas.
- GARCÍA CASTAÑO, C. (2012). ¿Cómo afecta la reforma del Código Penal al derecho penitenciario? Madril: Asociación Libre de Abogados.
- GARCÍA ESPAÑA, E. (2016). La expulsión como sustitutivo de la pena de prisión en el Código Penal de 2015. ¿De la discriminación a la reinserción? *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, (18), 1-31.

- GARLAND, D. (1999). *Castigo y Sociedad Moderna*. Mexiko: Siglo XXI
- (2005). *La cultura del control. Crimen y orden social en la sociedad contemporánea*. Bartzelona: Gedisa.
- GARREAUD, A. (2009). La prisión post-panoptica. Apuntes sobre el umbral del poder contemporáneo. Gaztelera zko bertsoia, “Das postpanptische Gefängnis”, *Catálogo de la exposición Knast sind immer die anderen*, Berlín, NGBK,
- GIL VILLA, F. (2004). *La delincuencia y su circunstancia*. Balentzia: Tiran lo Blanch.
- GOFFMAN, E. (1994). *Internados. Ensayo sobre la situación social de los enfermos mentales*. Buenos Aires: Amorrortu Editores.
- GONZÁLEZ RODRÍGUEZ, M. (2008). El Derecho Penal desde una evaluación crítica. *Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología*, (10-11), 1-23.
- GONZALEZ SÁNCHEZ, I. (2012). La cárcel en España: mediciones y condiciones del encarcelamiento en el siglo XXI. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, (8), 351-402.
- GOUGH, I. (1979). *The Political Economy of the Welfare State*. Londres: Macmillan,
- GRAEBER, D. (2012). *En Deuda*. Bartzelona: Ariel.
- HAN, B.C. (2016). *La sociedad de la transparencia*. Bartzelona: Herder.
- HARDCOURT, B.E. (2007). *Against Prediction*. Chicago: Chicago Press Unibertsitatea.
- JIMENEZ FRANCO, D. (2013). *La burbuja penal. Mercado, Estado y Cárcel en la democracia española. Un análisis estructural no-estructuralista de la inflación punitiva en el estado español* (Doktoretza tesia). Zaragozako Unibertsitatea, Zaragoza.
- (2016). Abandono, expulsión y sistema penal. Producción de daño social y administración deudocrática de castigo. *Mercado-estado-cárcel en la democracia neoliberal española* liburutik harturiko laburpen berrikusia (IV. kapitulua: *Fin de ciclo*). Bartzelona: Anthropos-OSPDH.

- KELSEN, H. (1995). *Teoría general del derecho y del Estado*. Mexiko: UNAM.
- LAMO DE ESPINOSA, E. (1989). *Delitos sin víctima: orden social y ambivalencia moral*. Madril: Alianza.
- LARRAURI, E. (1991). Las paradojas de importar alternativas a la cárcel en el derecho penal español. *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*, 44(1), 45-63.
- LÈVI-STRAUSS, C. (1988). *Tristes trópicos*. Bartzelona: Paidós.
- LORENZ, K. (1980). *Sobre la agresión: el pretendio mal*. Mexiko D.F.: Siglo XXI.
- LÓPEZ CAPDEVILA, J. (2015). *Derecho penal del enemigo. La sombra del autoritarismo en la Política Criminal contemporánea* (Gradu Amaierako Lana). UAB, Bartzelona.
- LÓPEZ PETIT, S. (2009). *La movilización global. Breve tratado para atacar la realidad*. Madril: Traficantes de Sueños.
- LOZANO JIMENEZ, J.L. (2013). La influencia del Panóptico de Jeremy Bentham en el Proyecto *Tracking Transience* de Hasan Elahi. *AUSART Journal for research*, 1(1), 201-212.
- MANCHADO, M. (2012). Educación en contextos de encierro: Problemáticas, miradas e interrogantes en torno al sujeto del aprendizaje y el proceso educativo en las prisiones santafesinas. *Revista Latinoamericana de Educación Inclusiva*, 6(1), 125-142.
- MANZANOS BILBAO, C. (1992). *Cárcel y marginación social. Contribución crítica e investigación aplicada a la sociedad vasca*. Donostia: Gakoa,
- MARCHIORI, H. (2004). *Criminología: teoría y pensamientos*. Mexiko D.F.: Porrúa.
- MARÍ, E. (1983). *La problemática del castigo*. Buenos Aires: Hachette.
- MATTHEWS, R. (2003). *Pagando tiempo: Una introducción a la sociología del encarcelamiento*. Bartzelona: Bellaterra.

- MATHIESEN, T. (1997). The viewer society: Michael Foucault's 'panopticon' revisited. *Theoretical Criminology: an international journal*, 1(2), 215-232.
- MATIAS CAMARGO, S.R. (2012). Tendencias y enfoques de la investigación en derecho. *Diálogos de Saberes*, (36), 9-22.
- MELOSSI, D., eta PAVARINI, M. (1980). *Cárcel y fábrica: los orígenes del sistema penitenciario (siglos XVI-XIX)*. Mexiko: Siglo XXI.
- MERTON, R.K. (1968). The Matthew Effect in Science. *Science*, 159 (3810), 56-63.
- MIR PUIG, S. (2007). *Política criminal y reforma penal*. Boadilla del Monte: Edisofer S.L.
- MIRÓ, G. (2002). Prácticas carcelarias y desigualdades sociales, ondorengoan: *Un cacheo a la cárcel. Jornadas de Derecho Penitenciario de la Universitat de Barcelona, 1997-1999*. Bartzelona: Asociación Contra la Cultura Punitiva y de Exclusión Social. 287-298.
- MONTESQUIEU, C.L. (2007). *Del espíritu de las leyes*. Madril: Tecnos.
- MORRIS, N. (1978). *El futuro de las prisiones: estudios sobre crimen y justicia*. Mexiko D.F.: Siglo XXI.
- MORRISON, W. (2009). What is crime? Contrasting definitions and perspectives. Ondorengo liburuan, HALE, C. et al., *Criminology* (3-22). Oxford: Oxford University Press.
- NAVARRO, V. (1998). *Neoliberalismo y Estado del Bienestar*. Bartzelona: Ariel.
- OAPM (Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) (2016). *Metodología de evaluación y seguimiento de la transparencia de la actividad pública*. Amaierako informea. Madril: AEVAL.
- OLMO, O.P. (2013). "Origen y evolución histórica de la pena de prisión", Ondorengo tesitik sorturiko apunteak: OLMO, O.P. (2000). *La cárcel y el control del delito en Navarra entre el Antiguo Régimen y el Estado liberal* (Doktoretza tesia), EHU.
- PAULLADA, G.A. (s.f.). La cárcel como forma de castigo en las sociedades modernas. *Diálogos con presas*, 17-72.

- PAVARINI, M. (1993). La justificación imposible. La historia de la idea de pena entre justicia y utilidad. *Capítulo Criminológico*, (21), 31-41.
- (1995). El orden carcelario. Apuntes para una historia material de la pena. *El derecho penal hoy*. Buenos Aires: Editores del Puerto.
- PETRELLA, R. (1997). Une machine infernale. *Le Monde Diplomatique*. <https://www.monde-diplomatique.fr/1997/06/PETRELLA/4783> helbidetik eskuratua.
- POSTER, M. (1995). Databases as discourse, or electronic interpellations. Ondorengo liburuan, HEELAS, P., LASH, S. eta MORNS, P. *Detraditionalization*, Oxford: Blackwell.
- PRATT, J. (2006). *Castigo y civilización: una lectura sobre las prisiones y los regímenes carcelarios*. Bartzelona: Gedisa.
- RAE. (2017ko urtarrilaren 1ean). Real Academia Española. <http://dle.rae.es/srv/search?m=30&w=pan%C3%B3ptico> helbidetik eskuratua.
- RIVERA BEIRAS, I. (2005). *Política criminal y sistema penal*. OSPDH, Bartzelona: Anthropos.
- (2015). Actuarialismo Penitenciarios. Su recepción en España. *Revista Crítica Penal y Poder*, (9), 102-144.
- RODRIGUEZ MANZANERA, L. (1981). *Criminología*. Mexiko D.F.: Porrúa.
- ROXIN, C. (1992). *Política criminal y estructura del delito (Elementos del delito en base a la política criminal)*. Bartzelona: PPU.
- RUSCHE, G., & KIRCHHEIMER, O. (1984). *Pena y estructura social*. Kolonbia: Temis.
- SÁNCHEZ-OSTIZ GUTIERREZ, P. (2012). *Fundamentos de política criminal*. Madril: Marcial Pons.
- SCOTT, D. (2013). Visualising an Abolitionist Real Utopia: Principles, Policy and Praxis. Ondorengo liburuan, MALLOCH, M eta MUNRO, B. *Crime, Critique and Utopia* (90-113). Londres: Palgrave Macmillan UK.

- SECRETARIA GENERAL DE INSTITUCIONES PENITENCIARIAS. (2017ko apirilaren 21ean). Erakunde penitentziarioaren webgune ofiziala. <http://www.institucionpenitenciaria.es/> helbidetik eskuratua
- SILVA SÁNCHEZ, J.M. (2001). *La expansión del derecho penal. Aspectos de la política criminal en las sociedades postindustriales*. Madril: Civitas.
- SONTAG, S. (2010). *Ante el dolor de los demás*. Bartzelona: Debolsillo.
- SOUS- COMMANDANT MARCOS (1997). Sept pièces du puzzle néolibéral : la quatrième guerre mondiale a commencé, *Le monde diplomatique*. <https://www.monde-diplomatique.fr/1997/08/MARCOS/4902> helbidetik eskuratua.
- SOUZA, M.L. (1999). La individualidad postmoderna: una lectura del pensamiento de Pietro Barcellona y Boaventura de Sousa Santos. *Anuario de filosofía del derecho*, (16), 321-338.
- TAYLOR, I., WALTON, P. eta YOUNG, J. (1977). *La nueva criminología*. Buenos Aires: Amorrortu.
- TOLSTOI, L. (1966). *War and peace*. New York: WW Norton.
- TORRENTE, D. (2001). *Desviación y delito*. Madril: Alianza.
- UGALDE, L.C. (2002). *Rendición de Cuentas y Democracia en México*. Mexiko D.F.: Instituto Federal Electoral.
- VALVERDE, J. (1991). *La cárcel y sus consecuencias*. Madril: Popular.
- VILE, M. J. C. (2007). *Constitucionalismo y Separación De Poderes*. Madril: Ed. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- VON LISZT, F. (1994). *La idea de fin en el derecho penal*. Mexiko: UNAM.
- WACQUANT, L. (2000). Voces desde el vientre de la bestia americana. Ondorengo liburuan, BURTON-ROSE, D. *El encarcelamiento de América: Una visión desde el interior de la industria penitenciaria de EE.UU.* (9-16). Bartzelona: Virus.

- (2001). *Parias Urbanos. Marginalidad en la ciudad a comienzos del milenio*. Buenos Aires: Manantial.
- (2004). *Las cárceles de la miseria*. Buenos Aires: Manantiales.
- WEBER, M. (1984). *El político y el científico*. Madril: Alianza.
- WITKER, J. (1995). *La investigación jurídica*. Mexiko D.F.: McGraw-Hill.
- ZAFFARONI, R. (1998). *En busca de las penas perdidas. Deslegitimación y dogmática jurídico-penal*. Buenos Aires: Ediar.
- (2001). Naturaleza y necesidad de los consejos de política criminal. Ondorengo liburuan, CARRANZA, E. *Justicia Penal y sobrepoblación penitenciaria: respuestas posibles* (85-104). Mexiko D.F.: Siglo XXI.

INFORME EXEKUTIBOA

*“Sistema penitentiarioaren transparentzia:
interes sozialaren beharra politika kriminalaren prozesuan”*

Ikerketaren testuingurua

Gradu Amaierako Lan hau aukeratzeko orduan, kriminologia bezalako zientzian interes desberdinak jarraitu daitezke, hala ere, zigor-instituzioen gaineko ikerketa sozio-juridikoaren hautua hartzea oso interesgarria da. Testuinguru honetan interes soziala espetxeen gaineko ikerketa lanen egoeran kokatu daiteke, bertan barruan gertatzen denari buruzko informazio nahikorik ez dugulako.

Lan honen interes soziala, interes sozialik ez dagoela da -paradoxikoa dirudien arren-. Honen zergatian arrazoirik nagusiena zein den ikertzen ahalegindu naiz. Zer gertatzen da herrien beste aldeko eremuan? Tratamenduak, prozesua, bertako eguneroko bizitza eta presoak bizi diren kontestua nolakoa da?

Gaur egun, mass-mediaren eskutik delituei, kondenei edo presoek gerturatzeari buruzko albisteak jasotzen ditugu gehienetan, baina hauetaz aparte zeozer gehiagorik dago? Zalantza guzti hauei erantzuteko, sistema penitentiarioak publikaturiko informazioa zein den argitzen ahalegindu nahiz, ezagutuz hauek duten transparentzia maila zein den.

Estruktura eta oinarria

Hutsuneak aurkitzeko helburuarekin, lan honen egitura puntu desberdinen inguruan mugitzen da. Marko teoriko baten eskutik, zigorraren eta politika kriminalaren joera botere interesen araberakoa dela erakustea du xede.

Atal enpirikoaren eskutik, joera honi erantzun objektiboa ematen dioten erantzunak aurkitzea ahalegintzen da, herritarrok eskura ditugun dokumentuen analisia eginez. Informazioa nahikoa da? Informazio baliagarria ematen dute? Gehiago egin daiteke?

Azkenik, hirugarren atal batean, interpretazio kriminologiko bat eginik konklusioen eta etorkizunerako proiektzio eremuak landu egiten dira, ikerketa testuinguru honetan dauden hutsune eta zailtasunak azalaraziz.

Emaizak

Kartzelen ganean eginiko lanak betidanik egon izan dira eta kasu guztietan kritiken presentzia bertan egon dela esan daiteke. Batzuek esango dute espetxeak “krisialdi” egoeran daudela, baina hau, betidanik egon izan den egoera da.

Marko teorikoan azterturikoak erakusten du, azken boladan globalizazioak indarra hartu duen arren, soilik espetheen markara aldatu egin dela, hauen joera berdina izaten jarraitzen duelako: punitibitatea eta isiltasuna. Botere interesen eta politika kriminalaren arteko harremanek ematen duten emaitzak hortaz, puntu desberdinetan batzen dira:

-Gaur egungo gizarte-egoera aitzinako bizimoduarekin desberdintasun handirik ez dauka. Industrializazio eta post-industrializazio garaiak desberdinak izan arren, espetxe edo kartzelen kontestua berdina izaten jarraitzen du: aipaturiko punitibitatea, alegia.

-Ekonomiak gizartearen bizimodua baldintzatzen du geroz eta gehiago. Industrializazio garaian lanaren etikak garrantzia zuen arren, gaur egun kontsumoaren estetikara igaro gara, non kapitalismoaren eragin sakonenak pairatu daitezke. Horren adibide da Mateo efektua eta %99aren ideia: pobreak geroz eta pobregoak dira eta aberatsak geroz eta aberatsagoak.

-Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoaren ideia kutsatuta dago. “Botere banaketa” famatua oso fusionatuta dagoela esan daiteke eta legegilearen papera bereziki oso indartsua da. Ereku judizialaren politizazioa gertatzen da beraz, honek **legeria eta sistema penalaren kontrola** ekarriz. Botere interesek politika kriminalarekin erlazioa daukate hortaz, eta hau ongizate estatuaren porrota ekartzen ari da. Badirudi balore sozialak ezabatu egin direla, eta orain gizartearen parte direnek bere izaera galdu eta gutxi batzuren eskutan dauden txotxongiloak bihurtu direla.

-Politika kriminalaren ganean esku-hartze eta eragin konkretuak daude. Emaizta moduan gizarte kontrolaren irudi bihurtu dira aktuarialismoa edo etsaiaren zigor zuzenbidearen moduko politikak. Aktuarialismoaren eskutik arriskugarritasun-maila aldarrikatzen duten estatistikek pobreziaren zapaltzea

ekarri dute (adibide dira zero tolerantzia bezalako politikak ere). Etsaiaren zigor zuzenbideak bere aldetik, errepresioa hiru eremu konkretuetara fokatzea ekarri du etorkinen kontestura, delinkuentzia sexualaren eremu penalera eta terrorismoaren aurkako politiketara. Hortaz punitibitatearen irudi, zigorraren eta denbora-pribatizazioaren aldeko praktikek protagonismoa hartu dute sistema penitentziarioan.

Teoria eta gizartearen irakurketa guzti hauetatik ateratzen diren emaitzak baieztatzeko, aipaturiko erakunde penitentziarioen hainbat dokumentuen analisia egin zen. Hauen arabera transparentzia edo gardentasun maila zein den argitzen ahalegindu nintzen. Dokumentuak honako hauek izan ziren:

-The Spanish Prison System 2014: Espainiako erakunde penitentziarioaren irudia nazioarte maila proiektatzeko helburua duen dokumentu berriena.

-Informe General 2015: estatu mailan kokaturik, sistema penitentziarioaren urteko irudi orokorra ematen duen dokumentua.

-Espetxeetako estatistika: erakunde penitentziarioaren webgunean aurki daitezkeen datu baseak espetxe informazioari buruz.

Dokumentuekin hasi baino lehen, atal enpirikoan, espainiar estatuan 2013. urtean indarrean sartu zen **19/2013 Legea** aztertu nuen, **abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa**. Bertatik atera daitezkeen konklusio nagusiak honako hauek dira:

-Gizartearen konfiantza maila kolokan dago. Lege hau administrazio publikoekiko mesfidantzaren erantzun bat izan zen. Adibidez, ustelkeria albisteek bultzaturik sortua izan zena.

-Transparentzia politikak erantzun huts bat baino ez dira. Honen edukia ordea, gizartearen kezka edo ardurei erantzuteko helburuarekin ez du bat egiten. Adibidez, informazioa eskuratzeko eskubidea edo gobernu onaren ideiak ematen dira, baina argitaratu behar den dokumentuen kalitatea edo balioaren neurtzea ez da aipatzen. Ebaluazio arazoak ekartzen ditu beraz legeri honek.

Arazo hauen aurrean beraz, gardentasuna eremu publikoan neurtzeko metodologia baten falta erakusten du. Hortaz, kriminologo moduan, erakunde penitentiarioen webguneko hiru dokumentu desberdinen transparentzia-analisi propioak emaniko emaitzak hauek izan ziren:

-Interpretazio eta kudeaketa arazoak dituzte dokumentuek. Azterturiko informe desberdinek datu asko ematen dute baina, non daude interpretazioak eta zergatiak? Honek zerbait pentsatzeko aukera ematen digu: hau ikusita aurkezturiko kaxa ilunak kolorerik ahal dauka? Susmoa ematen du ematen edo argitaratzen ez den informazio zerbaitengatik dela.

-Erakunde penitentiarioan ez dago transparentziarik. Konklusioz, honek sistema penitentiarioaren informazioaren transparentzian mugak jartzen direla esan daiteke. Ondorioz, aldaketak egin behar dira eta lehenengo pausoa hiritarrak esnatzea da.

Eraginak

Emaitza hauek erakusten dute sistema penala **kaxa ilun batean zalantzaz piztuta dagoen mekanismoa** dela, hau da, joera desberdin horren barruan gertatzen dena jakiteko oztopoak eta trabak baino ez jartzen duela administrazioak. Hortaz, **erakunde penitentiarioan ez dago transparentziarik** eta datuak/informazioa eskuratzeko eskubidea kolokan jartzen da.

Sisteman *paupecultura* nagusitzen da: pobreak hazteko prozesua. Biztanleria penitentiarioa ezaugarri komun bat daukate kasu handi batean: pobrezia.. Presoak preso izan aurretik gizartean bizi diren barraskiloak dira, kontsumoaren estetikaren bizimoduan atzean gelditzen diren direnak, motelak direnak. Gizartearen mesederako ez direnez, hauek hartu eta espetxeak moduko haztegiatara eramaten dira, bertan gertatzen dena “zigorra jasotzea eta berrezte eta birgizartzeratze prozesuetatik” igarotzea xede nagusia dela dirudi, baina ez dakigu. Hori bai, hainbat denbora igaro ondoren, gizartera atera eta sare multzo batean ezaugarri berdina lortu izan dutela esanda saldu egiten dira gizarteari.


Arazo gehiegi izan arren, **sistemak funtzionatzen jarraitzen du.** Hor dago kezka handienak sortarazten duen egoera, akatsak egon arren sistema ahultzea lortzen ez dela.

Gomendioak eta hobetu beharreko aspektuak

Konklusio moduan, jokaera bat hartu beharra dago egoera honen aurrean: honela jarraitu, ezer egin gabe edo, interesa jarri eta zerbait egin. Arartekoaren eskutik adibidez, orain dela aste batzuk honek aurkezturiko Eusko legebiltzarrarentzako txostenean aipatu egiten da egoera hau, aipatuz: gizartean politika kriminalaren eta espetxe sistemaren gainean hausnarketa bultzatu behar dela; askatasuna mugatzen duten zigorrez ordeztuz, ordeztoko neurriak gehiago aplikatu behar direla; gizarteratzearekin lan gehiago egin daitekeela eta; hiritarren parte hartzea lortu behar dela (2017, 235.or.).

Zein da gure lana guzti honetan beraz? Kriminologia pentsamendu askoren artean murgiltzen da baina hauei erantzuten dieten ideologiarik nagusienak garantsimo penala, abolizionismo penala eta errealismo ezkertia dira. Gutxiengo zigor zuzenbidea lortu beharra dago, zuzenbide penala *ultima ratio* izaera orain dela denbora asko galdu zuelako; zigor-instituzioen desagertzea -gaur egun ezagutzen dugun moduan- posiblea dela pentsatu beharra dago eta; justizia sozialaren aldeko lana egin behar dela.

Hor daude espetxearen testuinguruan lan egiterako orduan lortu beharrekoak. Epeak desberdinak izango dira -laburra, ertaina eta luzea- baina gure lana garrantzitsua izaten jarraituko du. Gomendio desberdinak eta hobetu beharreko aspektuak honako hauek dira nire ustez:



Epe laburrean, **gardentasuna aztertze**ko pauso berriak lortu beharko dira, **administrazio publikoaren parte hartzea** bultzatuz eta **horrela gizartearen interes soziala lortuz**.

Hau lortu ondoren, maila bat gorago, erronka interesgarriari eusteko indarrak eskuratuta, **politika sozialak bultzatzearen alde** eta **zuzenbide penalari mugak ezarri** behar zaizkio. Azkenik, epe luze batean **“zigor-instituzio” berri baten agerpena** gauzatuz. Pentsatu dezagun, erakunde sozialetan birgizarteratzearen ardura jartzen badugu zeintzuk izango ziren emaitzak? Komunitatearen parte hartzea sistema penalarentzako lagungarri izan daiteke? Solidaritatearen indartzeak sistema guzti honek apurtu dezake?

Urte honetan zendu berri izan den Baumanek zioen moduan: “espetxeak harresiz beteriko ghettoak dira, ghettoak harresirik gabeko espetxeak diren heinean” (2009, 188.or.).

Jon Gómez Garmendia
Kriminologiako ikaslea (4.maila)
jgomez077@ikasle.ehu.eus

